

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

Academia Popular de la Lengua Vasca

L'Academie Populaire de la Langue Basque

36'KO GUDALDIAN SU-IZKILLATUTAKO IDAZLE GAZTEAK

Lauaxeta - Lurgorri - Josu Peña (Aitza)



PEÑATAR JOSU (AITZA)

IDAZLE GAZTE SU-IZKILLATUA

1. ITZAURREA

Euskerazaintza elkarteak lankideak ditu, idazle oiek bakoitzak bere gaiak daukez, baiño orain dela lau urte erabagi bat artu gendun, danok gai bat aukeratzea eta gai ura danon artean idaztea.

Gure billeretan maiz zetorkigun anai arteko gudaren garaia, garai illun bat bezela, oso gutxi geniken orduko idazkien laneri buruz, batzuek eta besteek zer bait geiago jakiteko etorri zitzaizkigun eredu batzuekin, alaxe sortu zan ikerketa onen gogoa eta asmoa; jakin nai genun garai orren balioa gure edestian, ortarako bildu genitun idazki guztiak garai ortako idazlei buruz, baita erriak bizitu zuan giroa: gai guztiak onak zerbait jakiteko; orrela ez ditugu erortzen utzi papertxo zatiak ere, garai artako giroaren aitorleak dira, orrela astertu ditugu egun txar aien mezuak eta ondorengoak. Ara emen, gizarte baten emaitza.

Erabagi genun orduan, gure lanaren etekiña Euskerazaintza aldizdarian azaltzea, eta bizpairu aldiz gure asmo au berritu naian ibili gara.

Azkenean, gure gai au luzegia agertu zitzaigun, eta beartuak izan giñan erabaki bat aukeratzea; gure asmo ori indar aundiakin aukeratu naian genbillan ta orrela, bear bezela agertu zitzaigun garai artako gazteen lanak ezagutzera.

Orrela bi elburu lortzen genitun, alderdi batetik gure gazte aien emaitza ezagutu eta bigarren, eredu bezela artu gure gaurko gazteriarentzat; bear bearrezkoa zeritzaigun garai artako gazteen lanak argitara berriz bialtzea. Bide orretatik genezake gure edestia illunpetik atera; bete bear-au len bait len ainbeste lan guztien aurretik egin bearra zegoela uste genuen.

Gaiñera eragozpen aundi baten aurrean geuden, ia idatzitako lan guztiak erdez idatzia zeudela, guretzat elburu bezela nai-ta nai-ez euskeraz izaki eta euskeraz eman bearrak, lan aundi ori betetzekotan ibili gera emen.

"EUSKALERRIA, EUSKERAREKIN EGIN NAI DOGU"

Latxaga

2. AURKEZPENA

BELAUNALDI ZIGORTUA

Beti izango da landutako hizkuntza batean baino landu, finkatu eta eguneratu gabeko hizkuntza batean idaztea zailagoa. Ereku urriko hizkuntza baten jardutea baino erosogoa eta tentagarriagoa izango da hiztun, entzule eta irakurle asko dituen hizkuntzan aritzea ere. Besteak beste, bizibidea eta lanbidea ere hobeto segurtatzen dituelako. Gaur egun ere ez da erraza, adibidez, euskarazko literatur-gintzatik eta kantagintzatik bakarrik bizitzea.

Baina gaur ez da euskaraz egiteagatik inor zigortzen. Inork ez du bere patrika-sosekin libururik argitaratzen. Eta, denentzat ez bada ere, askorentzat bihurtu da euskara lanbide eta bizibide.

Horrelako laguntzarik eta baliabiderik gabe egin behar izan zuten lehengo askok lan euskaraz. Musutruk egin behar izan zuten. Are okerrago, zigorraren beldurrez. Askok dira mehatxuak, isunak, espetxea eta atzerria jasan zutenak. Baita hilak ere.

Hain zuzen, euskaraz egiteagatik eta euskararen alde saiatzeagatik afusilatu zituztenak gogoratzen dira liburu honetan. Besteak beste, olerkari haundi bat eta euskararen eta euskal kulturaren eragile haundi bat hil zituzten: Lauaxeta eta Aitzol. Euskararen kontrako gurutzada ere izan baitziren 1936ko gerratea eta ondorengo larderia. Hala ere, euskarak ez duela inoiz erasorik izan sinestarazi nahi digu zenbaitek.

Liburu honek zenbaiten memoria lausotua eta beste askoren ezjakintasuna nahi ditu argitu, batetik. Bestetik, ohore egin nahi die eta esker ona agertu euskararen alde lan egiteagatik erasotutakoak, zigortutakoak eta erailak izan ziren haiei. Azkenik, gure ispilutzat eta eredutzat aitoren eta ezagutarazteko aukera eman nahi digute liburua-
ren egileok. Izan ere, bizitzan eta heriotzako ordu larrietan izan ziren eredu, inoren kontrako gorrotorik gabe eta Jainkoaganako eta Euskadirenganako maitasunean eta itzaropenean bizi eta hil baitziren.

Belaunaldi berri bakoitzak mundua berarekin batera jaio dela uste izaten du. Nabarmena da uste hori euskararen munduan. Baina euskararen mundua, euskaltzaletasuna, gu guztiok baino zaharragoa da, motelaldiak eta suharraldiak gorabehera. Gerra aurrean izan zuen, jakina, berpizkunderik haundienetakoa, eta ondoren eta ondorioz, erasorik bortitzen eta gaiztoena.

Belaunaldi suhar eta eragile eta zigortu haren umeak gara gu. Zordun gatzaizkie. Zor hori aitortu nahi diegu orain. Nor den semeak edo alabak ez baitu nor izateko gurasoak ukatu beharrik.

Gure aurrekoen ohoretan eta guretzat eredu izan daitezten.

Jose Antonio Ardanza
Lehendakari ohia

3. GAZTARO NEGARGARRIA

1936'go urtea aurrera zijoan eta gure protagonistak 21 urte beteak zituen.

Adiñari zegozkionez pozik bizi zan naiz eta eguneroko gurrpilean sortzen diran neke ta naigabeak gaintitu bear izan. Zintzoa, sendi apal batekoa ta zuenarekin etsita bizi zan, garai artako bizimoduan murgildurik.

Bere izaera patxarakoa eta ameslaria zan eta maitemindurik aurkitzen zan, eta, zorionez, bere biotzeko bultzadak onartuak izan ziran berak begia ipiñi zionagatik.

Soldauzka, derrigorrezko morrontza, gaiñean zuen. Nai eta ez bete bearreko eginkizun onek kezkatu zeukan. Soldaduzkarako epea urtebetekoa zan garai artan eta iru illabete mozte arren, "instruzioa" ikasten ari zan gero bederatzi illabeterekin bukatzeko.

Gauzak orrela igarotzen zijoazten, baiña, uste gabean, naiz eta azken bolada artan ekaitz-laiñoak ugari nabarmendu, Uztaillaren 19'an, igandea zan, bizimodua dena aldaturik argitu zan, dana geldirik.

Trenak eta beste eratako ibilgailluak gelditurik. Iñork ez zekien ziur zer gertatzen zan, baiña zerbait gauza larria zala bai.

Urrengo egunetan, irrati bidez eta izparringiak ziotenez jabetzen joan zan aldrebeskeri garrantzitsuren bat gertatzen ari zala, baiña nork esan zenezaiokan orduan bere gartzetasuna sei urte luzeetako aro negargarri bat izango zala? Guzior ustez aste pare bateko kontua izango zan, 1934'go Urrillaren antzeko zerbait.

Eguna joan eta eguna etorri gauzak argitzen zijoazten, ez baiña garbitzen eta gizarajoa geroago eta urduriago zegoen.

Azkenik, erabaki bat artu bearrean aurkitu zan, eta ori bai, garbi ikusten zuen arrazoia noren aldetik zegoen eta ez ori bakarrik, baita ere noren alde jokatu bearra zeukan, ez bai zuen beste biderik, bera ez bazan aurreratzen derrigorrean eramango zuten. Eta gogozko gudari biurtu zan.

Gudari biurturik, Gipuzkoa'ko mendi batera igo zan eta orduan ziran kontuak. Lagun artean kontaktzea eta bizi-bizi gudan aurkitzea gauza ezberdiñak dirala konturatzeko ez dago guda-lekura urbiltzea bezelakorik.

Lenengo egunetan, gaua irizten zanean eta "parapetoan" zaintzarako ordua gertatzen zitzaionean, alde guzietatik mamuak nun-nai ikusten zituen eta inguruan zeuden zugaitzei begira luzaroan egon ondoren auek mugitu egiten ziran (ez noski

zugaitzak, baizik-eta bere urduritasunak eta begietako nekeen ondorioz iruditzen zitzaion) eta tiroka ekiten zuen.

Lotarako txanda ere etortzen zitzaion eta an, lurrean, belar gaiñean, al zuen eran noski, etzan bear izaten zuen eta baita ere lo egin, soñña nekatua zeukalarik premi aundian aurkitzen bai-zan. Orduan gogoratzen zuen bein baiño geiagotan, bere etxeko oexoxoa eta bere aitak bein baiño geiagotan esandakoa; ikusiko dek, ikasikodek soldauz-kara joaten aizenean, edozer gauzari muxin egitean, erritatxo bat ematen zionean.

Urrengo egunak ere berdin igaro ziran, bera zegoen lekua guda-toki paketsua zan, arerioak urruti zeudelarik; egunez lasai baina gauak irizteko beldurrez, illunpetan edozer uste gabeko gertakizunen bat gerta bai zitekeen.

Egun batez, laino artean zetorren egazkin bat azaldu zan eta lenengotik urduri zeuden baiña bereala konturatu ziran "Aitona" deitzen ziotena zala, eurena alegia, ta berari begira jarri ziran, beren ustez aurrean zeukaten mendia erasotzera zetorrelakoan. Baiña bai zera!, bira aundi bat egin ondoren, zuzen-zuzen, bera zegoen etxolara zetorrela ikusirik, agintariak garratzi batez lurreratu zitezela agindu zieten, eta eskerrak ari, bizirik irten ziran, bada egazkiñen lergailluak berak zeuden etxolako gaiñaldea zearo apurtu zuen. Jasan zuten ikaraldia ez zitzaion berealakoan aaztu leergaillua zetorrela ateratzen zuen xistu-otsa.

Nola nai ere bere guda-bataioa izan zan, geroago gertatuko zitzaizkion beste larrialdi askoren asiera. Nai-ta edo nai-gabe egin zuen egazkilariak ez zekien, baiña, geroago jakin zuanez, aipatutako egazkilariari eriotz zigorra ezarri zioten bere taldekoel eraso zielako.

Egun batzuk geroago arerioak bere indarrez zeuden lekuetatik alde egin arazi zieten eta goizalde batean, ixil-ixilik, mendian bera jetxi bear izan zuten eta eguna argitzerakoan erri batera inguratu ziradenean beste ikaraldi bat ere jasan bear izan zuten. Beste mendi batetik zetozen mandazai batzuk ikusi zituzten eta eguraldi euritsua zalarik, mandozaiñak bizkar gaiñean manta zuri batzuk zeramazkiten eta bereala "moroak" ote ziran zalantza sartu zitzaien eta ezurretarañoko bildurra sartu zitzaion gudari gizarajoari, jakiñik aipatutakoek zer jokabide beldurgarria erabiltzen zuten atxilotzen zituztenekin.

Alako batean, burni-bidean zear zijoaztella, erritik bere etxera zijoan baserritar batekin topo egin zuten eta onen bitartez jakin aal izan zuten artean, beren aldekoak zeudela erri artan.

Erriratu ziradenean ongi etorri bikaña egin zieten eta goseak zeudelarik gosari bikaña eman ere bai. Gozaltzen ari zala, berri tamalgarri bat jakin zuen; bere adiskide miña zan bat egun batzuk lenago "artilleriarekin" egindako erasoaldi batean bizia galdu zuela.

Eta berri garratz ura jakin zuenean ikaragarritzko zirarra sortu zitzaion bere barruan; batetik, bere bakardadea, bada bere guraso ta senideak etxean gelditu ziran arerioen mendean eta baita ere bere biotzeko maitea, ta bestetik berriz egun aietan ikusi zituen gauzak gudari buruz, zearo larritu zuten oarturik zein larria izan zitekeen gudari baten egoera, eriotza beti urbil, batetik, ta bizimodu latza, bestetik. Izan ere, lenengo era ortako gertakizunak izaten bai dute biotz-zimiko aundienak. Gizarajoak ez zuen asko uste orain arteraiñoakoak, naiz gogorak izan beretzat, uskeri batzuk zirala geroago jasan bearko zituenarekin parekatuz.

Egun batzuk beste erri batean atsedenduaz igaro ondoren, illunabar batean beste mendi batera eraman zituzten eta illunpetan bertaratu ziranean beste larrial-di batzuk igaro zituen. Arerioak ziurki non zeuden ez zekiten eta urrutira ikusten ziran, bide-zabalez kamioiak nola zetozen, argiak pisturik, beretatoak zeuden lekura, bere ingurura. Ordu luzeak gertatu ziran gau artakoak eta egun sentiarekin batera, autobus batean sarturik, alde egin bear izan zuten beste aldekoak bertan ziralako.

Besperan utzitako errira jetxi ziran berriz eta illunabar artan bertan andik ere alde egin bearrean aurkitu ziran, Bizkai aldera itzuliaz.

Goizaldera, Bizkai-ko ur-etxe batera iritxirik al zuten bezela lotaratu ziran, eta urrengo goizean gudari gizarajoari oldozmen asko bururatu zitzaizkion; gero ta bere etxetik urrutirago, berak ainbeste maite zituen guraso, senide, maite zuen neska, lekuak eta giroa ere bai, konturatuz gauza negargarri bat dala, iñork ez duela ezer irabazten, denak zerbait galtzen dutela, etorkizuna bada-ezbadakoa dala, eta larritu egiten zan. Ez zuen asko uste, berriro diot, asiera bakarrik zala ta geroago jasan bearko zituenak askoz larriagoak izango zirala.

Bi edo iru egun barru andik era alde egin bearrean aurkitu ziran beste aldekoen erasoei ezin eutsi zitelako, ez bai zuten bear aiña su-izkillurik.

Berriro ere atzera, oraingoan itsas-ertzeko erri aundi batera ta eskerrak egun aietan izkillu mordo bat Bikaia'ra eldu zirala ta arerioari, ain zuzen, Gipuzkoa'ko eta Bizkaia'ko mugan eustea al izan zala zortzi bat illabetetan.

Urria zan eta gudaroste bateri itxura eman ondoren izkillu berriak sorbaldan zituztela, umeak jostailu bat eskuratzen dutenean nabaritzen duen pozaren antzera, berriz mendiratu ziran eta mendi-egal batean kokatu, baserri baten sapaian bizilekua zutelarik.

Orduan, sei bat illabete iraungo zuen pakealdia sortu zan guda-mendietan eta eguna joan eta eguna etorri, mendi batean illabete pare bat, gero amabost eguneko atsedan-aldia eta berriro mendiarra Aberria zaintzera, tarteka tiro batzuk jaurti, besteetan besteen tiroei itzuli "parapetoan" babestuz, alde batekoek bestekoei garratzi batzuk egin eta al zan ondoen igaro egunak, loi tartean, otz-beroak gaindituz eta erriratu arteko bizarra aziaz.

Lenengo gabonak ez ziran berak naiko zituen bezelakoak gertatu. Mendian, bere lagun gudariekin batera, al zuten eran moldatu zuten gabon aparia, baiña beti batzuk "trintxeretan" zaindari zeudela.

Eta alai eta pozik zeuden, besteetan ez bezelakoa egin ondoren eta alako batean or esaten diete zaindari zeudenak: Aizue, or aurreko zelai ortan gizon batzuk igaro dira bi guda-lekuen artean dagon baserri artaraiño ta ziur aski or eskutatu dira ta egun sentian erasoko digute, leenago ere beste toki batzutan egin oi duten eran.

Orduntxe bukatu ziran ango ospakizunak, danak urduri jarri eta prestaketak egin ziran goizean uste gabeko erasoari gogor egiteko asmoz, ain zuzen aipatutako baserria berak zeuden goikaldean bai zegon.

Baiña, eguna argitu zan, Eguberri-eguna, ta ez zan ezer gertatu. Geroago kon-turatu ziran sei beor zebiltzala inguru aietan mazkatzen eta aien irudiak, bildurra bitarte zala, makurtuta zijoazten gizonak zirala iruditu zitzaien.

Era ortan gauzak zijoazten, baiña beti kezkatu arerioak gero ta sendoagoak zeudela oartzen ziran eta naiz eta berak ere obeto ornituak aurkitu ez zeuden lasai, beti erasoaren zai, eta iritxi zan udaberria eta berarekin batera Euzkadi'ren eriotz epaia. Epaillaren 29an, atsedean alditxo baten ondoren, berriro ere mendiratu ziran eta bi egun barru, illaren 31an gogor ekin zioten arerioak, egazkiñez zerua estalirik eta eundaka kañoiek sua zeriota. Aaztu ziran azken illabetetako mendiko atsedean aldiak!

Eguna argitzeko bildurrez eta eguraldi ona ba-zan "trimotor-eguna" diagu esanaz, an egoten ziran urduri ta kezkatu zein aldetatik ekingo zieten bildurrak, jakiñik zein gogor erasotzen zuten aurrean zeuzkatenak.

Aipatutako lenengo egunean gure gudaria zegoen mendi gaiñetik igaro ziran Durango zirzilatu zuten egazkiñak eta jaurtitako leergailluak zerurantz bidali zituzten ke pillak bildurra sar arazten zuten.

Eta gudari gizarajoari ere iritxi zitzaion bere burruka eguna.

Apirillaren azken aldea zan eta goiz-goizetik or datoz iru motorreko egazkin aundi batzuk, irunaka, "run-run" ota banatuaz eta bera zegoen mendira eltzerakoan an ikusten zituzten nola egazkiñetatik irteten ziran zigarro puro aundi batzuk eta andik pixka batera bera etzanda zegoen lurra saltoka ari zala ematen zuen. Egazkin batzuk joan, besteak etorri, ordu laurden bateko tartearekin. Bestaldetik berriz kañoi pillak bat, eun inguru izango ziran, bota ta bota, batzuk gaiñetik igarozten ziralarik besteak aurrean lertzen ziran, lur pillak aundiak banatuaz.

Alako batean, gure gudaria ta beste iru lagun tartean komandantea zalarik, or dijoaz ankaz gora, izkil-azkarra (ametralladora)ren etxolan zeudenak, auts eta lur tartean, baiña zorionez ez zitzaion ezer garrantzikorik gertatu, nonbait lergaillua azpi samarretik sartu eta ez zituen zuzenean arrapatu.

Era ortan bazkalondo arte eta, orduan ekiten diete aurrekaldean zeuden soldadua, tartean moroak zituztela, berak zeuden lekuetara igotzeko asmoz, baiña egoera ortan iru-alu orduko eraso aldia egin ondoren, illundu egin zuen eta gauzak leenago zeuden eran gelditu ziran, bi parapetoen artean erasotzaileen gorputz ugari geldituaz eta zauritu ugari gertatuaz, bai alde batetik eta bai bestetik.

Gure gudari gizarajoaren pentsakizunak ez ziran oso atseginak, egun artatetik ongi atera izan arren urrengotik nola gertatuko zan kezkatu. Eta bere guraso, senide, maite-miña gogoratzen zitzaizkion, ez zutela asko usteko zein larritasunetan aurkitzen zan bera ta negargarria iruditzen zitzaion egoera ura.

Urrengo bi egunak itxuraz patxarakoak izan ziran, eguraldia ere lainotsua gertatu bai zan, baiña berriz ere irugarren egunean, goiz-goizetik lenengo eguneko antzera gogor ekin zion arerioak eta al zan bezela bakoitza bere burua gorde bearrean aurkitzen zan eta etzanda zeudela ederki ikusten zituen berreun kilo inguruko obusak, baiña aiek ez zieten beldurrik ematen igaroak bai ziran, beste batzuk zigortzera.

Berriz ere arerioek ekin zioten eta gogor gaiñera, lenengo illaran zeudena eutsi eta bitartean gure gudariak onela zion aldamenekoari: Ikusten al dek an dagon ura, jaurti akiok berriz ere ez dek erori-ta.

Geroago au gogoratzean era ontan oldozten zuen; i ere basati biurtua ago, gizona era ortan iltzeko zaleturik, baiña guda orrelakoa da-ta, ez ba-dek iltzen berak ilko au. Eta ia-ia ala gertatu zan, bada pentsakizun auek oraindik buruan zituela alako

batean or nabaritzen du zartateko ikaragarri bat ezkerreko sorbaldan eta bereala kontura zan zauritua zegoela.

Gauzak zeuden bezala utzirik mendartera jetxi zan, babesleku batera, ta an lenengo sendaketa egiten ari zirala or ekiten diote berriz egazkiñek eta lurrean etzanda an egon bear izan zuen erasoaldia bukatu arte. Gero, lagun bat aldamean zuela abiatu mendi atzean zegoen bide-zabal aldera eta or datorkio egazkin txiki bat, ta ikusirik bi lagun oñez zijoaztela, biratu eta bi aldiz eraso zieten tiroka, egazkilarien burua ikusten zutelarik. Zorionean eraso ontatik ongi atera zan, naikoa zuen sorbaldan zeramana eta bidean bera zijoaztela ederki nabaritzen zuten an mendi gaiñetik igarotzen ziran eundaka balen xistu-otsa.

Iritxi zan bide ertzean zegoen beste sendaleku batera eta an egin zioten beste sendaketa sendoago bat, bere izen-abizenak artu, ta artu zuen zartatekoagatik bere onera etorri gabea zegoelako edo guda-erasoak itxuturik, mozkor antzera jokatzen dalako, "diagnostikoa" egiterakoan, arrotasun pixka batekin ala esan zien gaixo-zaiñei, larria da noski zauria eta benetan larri xamarra zan odol galtzeagatik, ta konortea galdu egin zuen. Esnatu zanean, ambulanzia batean zijoan eta guda lekutik aparte xamar zegoen beste gaxo-etxe batean berriro ere sendaketa egin zioten ta bizkaraldean kokaturik zeukan "bala" atera ere bai. Geroztik berarekin ibiltzen zuen oroigarri garrantzitsu bat balitz bezela.

Berari laguntzera jetxi zan gudari laguna berriro mendira biurtu zan eta iritxi bezin laster tiro batez bertan ilda gelditu zan.

Geroago, gauean, beste zauritu askorekin batera, Bilbo inguruko uri bateko gaxo-etxera eraman zuten eta an ere berriro sendaketa bat egin zioten eta oeratzera-koan jakin arazi zioten, nabaritzen bazun bustia zegoela bereala deitzeko odola galtzeko bildurra bai zuten.

Gaxo-etxe ura ume eskola bat zan eta oeak berriz aientzako egiñak eta gudari gizarajoak an egon bear izan zuen anak oetik kanpora zituela beste oe luzeago batzuk ekarri zituzten arte. Ez zan arritzekoa gauzak orrela gertatzea, egunero eundaka zauritu gertatzen bai ziran, ta egunero gaxo-etxe berriak antolatu bear. Illak lurpera ta zaurituak sendatzera, gero berriz ere guda-lekura len-bait-len joan zitezzen.

Egoera ortan bi illabete igaro zituen eta Bilbo ere besteen eskuetan erori baiño lenago, egun batzuk aurretik, lenago autobusetan eta trenez gero, Santander'era eraman zituzten zaurituak, eta gure gudaria ere bai.

An erregearen jauregi izandakoan kokatu zituzten, al zan bezela eta an ere beste illabete bat igaro ondoren, azkenik zauria ormaindu zitzaion baiña besoa zinzilik gelditu zitzaiolako Tribunalera bidali zuten eta onen erabakia, mendirako ez zala gauza eta atzekaldean lanak egitera epaitu zuten.

Berriz ere bere guda-taldera biurtu zan eta auekin batean igaro zuen beste illabete aldia, atzeraka, Laredo'ra iritxi arte.

1937'ko Dagonillaren 25ean, konponketa zala edo ez zala, italiarrak urbildu ziran eta atxilotua gertatu zan. Gure gudariarentzat beste egoera berri bat atera zijoan, lenagokoa baiño ohea edo txarragoa izango, geroak esango zuen, baiña nola nai ere txoriak kaiolan aurkitzen diran egoeran aurkitzen zan, lenago berriz, naiz eta lazeri asko jasan bear, gizon askea zan.

Orduan ere bere burura beste oldozmen batzuk etorri zitzaizkion, bere sendia, bere maitea eta abar eta egun batzuk lenago jakin zuen berri garratza. Azken egunetan, Bilbo inguruko mendi batean, bere anaia ta bere lengusua, erasoaldi batean illak gertatu zirela ta ez zekitelako non lurperatuak izan ziran.

Bestalde, bereala jakingo zuen berak maite zituenak bizi ziran eta nola aurkitzen ziran, bada eskutitz bat idazteko baimena eman zieten.

Deklaratzera eraman zituzten eta gure gudari gizarajoari bidean zerametela, esakera bat itzuli zitzaion; "Ai ene Jainko", eta bera zaintzen zijoan soldauak ori entzun ondoren, onela mintzatu zitzaion "si siempre te hubieras acordado de El" eta bere artean onela zion: Au ere entzun bear, au dek egoera larria.

Berak egin zuen azalpenaren arabera, langille-batalloiak deitzen zieten batera bidali zuten, Miranda'ko baituen-zelaira eta naiz eta jakin bereak eta bi jasan bearko zituela, ez det esango pozik baiña bai lasai zijoala, bada beretzat penagarri izango zan berriz ere izkilluak artu ta gudara joan bearra bere barrenak agintzen zionen aurka.

Apatutako zelaira iritxi orduko lenengo egin zieten gauza, laban, tenedore, guraize, jostorraz, punta zuten gauza guziak kendu ta ondoren illea ondolik moztea, izan zen eta bere baitan onela zion: au geroago pasa bearko ditugunen erakusgarri bat izango dek, noski, baiña bestalde bizia zaintzeko era bat, bada era ortan egon zan denbora guzian, naiz eta askotan guda-lekuetan ibilli, bere taldeko bat edo beste illa eta zaurituak gertatu ziran.

Bigarren gabonak presondegian igaro zituen, bada lanerako ateratzen zituzte-nez kanpo, beti giltzapean edukitzen zituzten, baiño ordurako jarria zegoen, eta etxeko eta maitearen eskutitzak maiz artzen zituelarik, egoera ura eramankorrago gertatzen zitzaion. Astoak makilkadari jartzen diran bezela, bera ere etsita zegoen egoera orretaz, tarteka bizkarrondoko batzuk, baiña gudan zebiltzanean baiño lasaiago lo egiten zuen, zorriak uzten ziotenean, bada Miranda'ko zelaitik igaro ondoren bere soiñetk alde egin nai ez zuten maizterrak ziran eta zenbat eta maizago aldatu orduan eta ugariago. Dirudienez, zikiñetik sortutako zurrupakariak, zikiña baiño atsegiñagoa zuten jantzi garbia, batez ere garbitu berria.

Urrungo urtearen erdi aldera beste lurralde batera eraman zituzten eta illabete batzutan oso ongi aurkitu ziran mandoak sendatzen zituzten gaxotegi batean, mando tartean lo egiñaz, egunero aiek egurastu eta abar. Mandoak, pizti gaizto ta egoskorrak dirala ederki ikasi zuen gure gudariak eta bildur ikaragarria zien, bada bein batean aietako baten gainean zijoala nonbait azpian zijoana (Bilintx'en bertotan bezela) konturatu zan gainean zijoana urduri zegoela ta or asten da saltoka eta biurrika, gainean zijoana lurreratu zan arte eta orduan berak zeraman lokarriari jarraituz bukatu zuen ibilaldia.

Gauzak orrela zirela, berak pozik jarraituko zuten egoera artan baiña berriro ere lekuz aldatu zituzten eta toki atsegiñera, mendira eraman zituzten, guda-lekura, ta orduan ziran komeriak.

Borda batean, lur guzia ardi-kakaz estalirik zegoen lekuan kokatu zituzten eta egunero, goizan goiz, bost-sei kilometro oiñez ibilli ondoren "trintxerak" irikitzen eta "bunker"ak egiten jardun bear izaten zuten, mendi legor batean, ez zugaitzik eta ez urarik zan lekuan, eta an ari bear izaten zuten egun guzian, illunabar aldera berriro bordaratzen zituzten arteraiño.

Jakiña, soldadu pilla bat alboan beti eta mendian lanean ari ziranean noiz nai esaten zieten, pauso bat aurrera eman orduko bertan tirokatuko zituztela. Ezkerrak bestaldean zeudenak ba-zekitela an lanean ari zirenak euren alde jokaturakoak zirela eta ez zieten tirorik jaurtitzen, baina auek bertatik alde egin orduko elkarri tiroka ekiten zieten.

Bein batean onela mintzatu zan bere egoera berdiñeko kideko batekin. Gu soldaduen aldean ongi bizi gaituk, guri ez zigutek tirorik botatzen, gabean lo lasai eginen diagu eta gaiñera oiek baiño geiago irabazten diagu; oiek errial bat eta guk, berriz, errial bat eta "piko" (pikatxoia, alegia).

Baiña gudaren azken bost illabetetan beste gertakizun latz batzuk ere gertatu zitzaizkion gure gudari gizarajoari.

Abendua zan, amabirgiña eguna ain zuzen, eta guda-lekuan lanean ari zirala, bazkaltzeko garaian, bi su tartean zeudelarik, bere taldeko iru lagunek beste alde-ira iges egin zuten eta eurekin zegoen zaindaria, bera ere iges egitera zijoala uesteko zutelako geldirik egon zan aiek anka egin bitartean. Andik aurrera an ziran angoak, aiek iges egin eta gelditu ziranak erasoak jasan bear. Gabean bordara biurtu ziranean, lenengo gauza iru aiekin egon ziranak baztertu, biñaka jarri eta amairugarren zegoena eta bere parekoa eta azken zegoena eraillak izango zirala agindu zuen agintari nagusiak.

Gure gudariaren estuasunak, tarteko zalarik, ezin esan bezelakoak ziran, ta bere ama, aita, senide ta batez ere bere maitea gogoan zituen, batez ere agindu zuena ain urduri ikusirik, españetan zeukan zigarroa balantzaka bai zerabilkin. Baina ordu erdi luze bat igaro ondoren, ango illunpe bildurgarri artan, bordaren atarian, soldadu armatuz inguraturik, edozein imintzio edo zerbaitek gauza larritu zezakeen egoera artan, azkenik damutu egin zan emandako aginduaz eta artan bukatu zan gau artako egoera larri ura.

Andik egun batzutara, berriz, beste bi lagunek alde egin zuten bestaldera, ta ain zuzen gure gudari gizarajoarekin apaldu zuena zan aietako bat. Eguraldi txarra zalako kanpoaldian egiten zuten kontaldia barrenean egin zan egun artan, eta izenak izendatu ala aparria ematen zuten, ta nola aparria aldi bakoitzeko bi lagunentzat ematen zuten eta izen-zerrendan bata bestearen ondoren zeuden, ba arrekin apaltzea gertatu zitzaion, eta ondoren, iñori ezer esan gabe, anka egin zuten, aipatuta-ko biak, iñor konturatzeke.

Urrengo goizean, kontaketa egiterakoan palta zanen abizena, izena esan gabe esan zutenean, arrek bezelako abizena zuen batek, emen nago erantzun zuen, baiña bereala konturatu zalarik sarjentoari jakin arazi zion eta onek soldadua bestearen billa bidali, baiña arretarik jarri ez zuelako edo beste zerbaitegatik, ez zuten salatu eta egun guzian lanean aritu ziran agintariak oartu gabe. Euren artean "langilleak" onela esaten zioten bata besteari; zer gertatu bear du gaur gabean, konturatzan diranean? Eta gure mutilla iñor baiño kezkatiago zegoen, bera izan zalako azken aldiz igesitako batekin egondakoa.

Gabean iritxi ziran bordara, asi zan sargentoa izen zerrenda aipatzen eta palta zanen abizenera iritxi zanean "olako", berriz, "olako" eta azkenik konturatu zan ez zegoela an, alde egiña zala. Orduan ziran komeriak! Sargentoa larri, bere buruzagiari kontuak eman bear zizkiolako, eta bordako ormak karerik gabeak ziralarik,

ongi entzuten zan nola ari zan, asmatu bein da berriz, esaten, orrelakorekin apaldu ondoren, eta berriro ere berdin, ta ezin zuen asmatu zer jarri bear zuen, beste asko bezela sargento ura ere "txuskoak" janez iritxia bai zen agintaritzara: Zer esanik ez dago gure gudariak igaro zituen larri aldiak, bere izena lenengo mailan zegoela ikusirik.

Andik egun batzutara, mendian lanean ari zala deia artu zuen eta "escolta" batekin kamioi batean bordaratu egin zuten. Pentsatu bearrik ez dago ze estutasunean aurkituko zan, berari zer gertatuko zitzaion beldurrez. Epai-mai baten antzera jarria zegoen agintari nagusia eta bere alboan idazkari bat eta aien aurrean gau artako gertakizunak azaldu bear izan zituen. Gauzak ikusi zituen bezela azaldu zituen eta nola soldadu bidali zuen sargentoak palta zanean aztarnak jakitera, baiña agintariak onela esan zion idazkariari: ez ezazu ori idatzi soldaduaeren kalterako izango litzakelako. Eta era ortan egun artan besteaeren izena entzun zuena, berearen berdiña zalako, ta bereala jakin arazi sargentoari errudun gertatu zan eta bi eskuak loturik eraman zuten, errugabea, iñork jakin ez zuen lekuen batera. Ura zan zuzenbidezko jokabidea! Guetako bat ez bai zan iñor, aientzako!

Mendi artatik beste mendi batera eraman zituzten, zigortu antzera, eta andik beste bi lagunek iges zuten beste aldera eta goizaldean denok jaiki erazi eta palta ziranak lotaratzen ziran etxolakoak bereiztu eta bi lagun erailko zituztela jakin arazi zieten buruzagiak.

Ogei ta lau ordu eduki zituzten bi lagun egoera artan eta erailketa itxura egin ondoren, andik egun batzutara aske utzi zituen, nunbait ez zan ausartu zigor ura errugabeei ezartzera.

Andik egun gutxitara buruzagi nagusiaren eskutitz bat irakurri zieten eta bene-tan sinetsi zezaten, euretako bateri irakurri arazi zion agintariak, eta bertan onela zion: Ar ezazu iruditzen zaitzun erabakia naiz eta oso larria izan.

Berriro ere beste leku batera aldatu ziran eta oraingo tokian gertatu zan, azkenik, gure gudari gizarajoak pasa bear izan zuen unerik larrienetako bat. 1939'go Otsailaren 3'an, lanetik, erri baztarrean zegoen borda batera zetozela, beste konpañiko bi lagun bata besteaekin izketan eta "eskolta"ko soladu bat aiek zer esaten zuten entzuten eta beren kokalekura iritxi ziranean, an ziran istilluak. Aipatutako soldaduak bere buruzagiari entzundakoa kontatu, ondoren aiek biak eskuak loturik zituztela danen aurrera ekarri eta agintariak "pikaitxoi" kirten batekin ebaindu, eta "ni bildurti bat naizela esan dezute, ta biar goizean ikusiko dezute ori egia dan", danak entzuteko moduan esan zuen. Errukarria zan aien egoera!

Urrengo goizean, egun sentian, denok esnarazi, taldea osatu ta bi lagun aiek aurretik eskuak loturik zituztela, soldaduak alde guzietatik zainduaz, an eraman zituzten erritik kanpoko zelai batera.

Buruzagiak mintzalditxo bat egin ondoren eta deneri eskuak altzaraziaz, orduko oitura zanez, eta Espaiña'ko justizia osa bedi esanaz, erailtzeko agindua eman zuen. Ederki bete zuen eman zioten eskubidea!

Bi aiek an zeuden zutik denan aurrean, batek, bi pauso alde batera eta beste bi bestera emanaz, noiz ilko zituzten zai.

Lenengo tiroketa entzun zanarekin batera aietako bat lurrera jaurti zan eta gure gudariak bere baitan onela zion; ez dute asmatu besteaekin, baiña bai zera, beste

erasoaldi bat eta bigarrena ere lurrera erori zan. Sargentoa inguratu eta bakoitzari tiro bana jaurti zien, "graziazko tiroa" esaten dutena. Bat erail eta bestea erail bitartean ederki entzun zuen gure gudariak, bigarrenak esan zituen itzak. Erailtzai-leak, erailtzai-leak zerate!

Pentsa besterik ez dago nola egongo ziran lekuko izan ziranak eta batez ere gure gudari gizarajoa, euli bat iltzeko ausardirik ez zuena.

Gertaera gogor ura amaitu ondoren, beren kokalekura biurtu, gosari legea egin, kafe itxurako ur beroa artuaz eta egunero bezela lan-zigorra betetzera. Ezin zitzaion aaztu, bezpera-bezperan, au da egun bat lenago, etxeratzerakoan aietako batekin parekatuaz etorri zala eta urrengo eguneko izketaldia erabilli izan bazuen eta soldaduak entzun, bera ere illotzik egongo zala ordurako.

Andik laster guda bukatu zan eta Valencia aldeko lurretara eramana izan ziran eta illabete batzuk geroago, berari ere aske izateko garaia eldu zitzaion eta iru urteren buruan etxeratu zan.

Lenengo egunetan ezinoiturik bezela aurkitu zan, alakoa bai zan aldaketa, baiña bere sendikoen ongi etorriak eta berak maite zuenak, lasaitu zuten eta berriz ere alaitasuna bereganatu zan.

Gero beste kezka batzuk sortu zitzaizkion, lanik gabe aurkitu zan, guda galdu zutenak ez bai zuten inñolako eskubiderik, naiz eta legearen alde jokatuak izan. Ogei ta bost urte osatuak zituen eta ezin zitekean besteren bizkar bizi. Lenago, lan-truke, nola edo ala mantendu zuten iru urteetan, orain berriz gurasoen bizkar bizi bear zuen.

Nola edo ala jorنالtxo bat irabazteko modua egin zuen, baiña andik sei bat illabetetara berriz ere laiño beltzak agertu ziran bere ingurura. Guda aurretik soldaduzka egin ez zutenak eta garaillearekin jokatu ez zutenak, soldaduek egin zuten aiña denbora bete bearko zutela agindua azaldu zan, langille "batalloitan" egindako denborealdia kontuan izango zala esanaz.

Gure gazteak kontuak atera ondoren amarrenbat illabeteko soldaduzka izango zuela uste zuen. ustea ustel gertatu zitzaion, bada egin zuten azterketa baten ondorio bezela iru maillatan banatu zituzten egoera artan zeudenak, au da, "aldekoak", "ez bat ta ez bestekoak" eta azkenik "aurkakoak", eta azken mailla ontakoei ez zioten balio langille-batalloitan egiñiko denborak, ta auen artean aurkitzen zan gure gudaria.

Pentsa besterik ez dago, berriz ere, iru bat urterako lengo egoera larrira biurtu bear zuela jakin zuenean. Gurasoak, senideak, ainbeste maite zuenarengandik urruti.

1940'go San Pedro bezpera zan, seireun bat gazte gipuzkoar, Donostian zamatren batean sartu eta Miranda'ra joan ziran. Ango baituen zelai lango antzera zegoen eta barrengo egoera len bezin larria. Ikusi egin bear zan urrengo bi egunak, jai ziranak, nola igaro zituzten an aurkitzen ziran gazte aiek.

Egun batzuk an igaro ondoren, seireun bat lagunak osatzen zuten "batalloi" bat, abereak eraman zituzten bagoi batzutan sartu, saldi-zimorrak kendu ondoren, eta Barzelonara, ta andik itsas-ontzi batean Mallorca'ra, eki aldean dagon ondartzabatera.

Oraingo egoera ez zan gudatekoa bezin larria, baiña penagarria gertatzen zan bere kideko lagun geienak etxeetan zeudela eta bera bezelako gizarajo batzuk,

atxipetuak, etxetik urruti, beren sendiei ain premizkoa zuten laguntza ezin eskeñirik eta noiz askatuko zituzten ziurtasunik gabe.

Iru illabete an igaro ondoren berriz ere lekuz aldatu zituzten, eta bost egun bidean igaro ondoren (iru egun bagoitan sartuta Barcelona'tik Asturias'era) Obiedo inguruan kokatu zituzten egazkiñentzako aide-portu bat egiteko.

Leku berri ontako egoera ez zan oso atsegiña, egurrezko etxola batzutan lo egi-ten zuten eta lana berriz beti loi tartean eta janari buruz, zer esan? Ordurako estado maillan gosea banatu zan eta egoera artan zeudenak ematen zietenarekin konformatu bearra zeukaten. Patatak ziranean or nunbait baiña geienetan ur zikindutako zerbait jaten zuten. Ez zegon janari begiratu bearrik ez gizentzeko. Ainbeste ziralarik patata zuritzera eramaten zituztenak alboan zaindariaz zituztela aritzen ziran eta bukatutakoan sakelak miatzen zizkietan ea patriketan lur-sagarrik ba ote zeramaten.

Eta era ortan 1941 garren urtea ere aurrera zijoan. Udazkenean gauza berezi bat gertatu zitzaion. Aspaldiko egunetan ez zuen etxeko berririk eta larrituta zegoen ta alako batean bere erritar batek au esan zion: bai al dek etxeko berririk? Ez motel, badek egun batzuk ezer ez dakidala. Ba zerbait gertatu izan bear dik ire etxean.

Bereala baimena eskatu ta aitarekin urrutizkiñez itz egin zuen, eta ez zuen adorerik izan anaia ill eta lurperatua zegoela esateko.

Andik egun batzutara artu zuen eskutitz baten bitartez argitu zan gertatutakoa. Guardia zibillen bitartez bidali zituztela bi telegrama anaia gaizki zegoela eta ill egin zala, ea etxeratzeko baimena ematen zioten, baiña buruzagiak norentzat zan galdetu ondoren, atxilotutako batentzat zala jakin zuenean ez zioten eman. Toki onean gelditu ziran etxekoen itxaropena eta buruzagien biotz gogorra.

Andik laster, gauzak noiz bait izaten dute beren amaiera eta bera eta bere erritar batzuei, eskerrak biotz oneko gizon bateri, klasifikazioa aldatu zieten, soldadu biurtu ziran eta Eguberrietarako etxeratu zan gure mutilla, bere zigorra ederki ordainduta, bear baiño amar illabete igaro ta gero.

Kortajarena' tar Andoni

4. ORDUKO GIROAREN OTSA

San Sebastián, 6 de Septiembre de 1990

Querido amigo Peña:

Me atrevo a escribirte para enviarte lo que te prometí y explico. He escrito un libro sobre Galindez para hacer contrapeso al de Vázquez-Montalban que le destroza. Ya sabes que estoy en conversaciones con Fito para sacarlo. Hoy tengo que estar con él, pero no sé si será fácil.

El libro es lo siguiente: Galindez, nacido en Madrid de padres de Amurrio (Alava), se queda en Madrid el 18 de julio y se inscribe como miembro de la Delegación del Gobierno Vasco allí. Resulta que su cometido es salvar todas las vidas posibles con don Manuel Irujo, que es ministro. Luego se va a Barcelona donde trata de fundar la Brigada Vasco-Pirenaica con vascos de todas las ideologías que quieran luchar contra Franco. Es una opción de gente de su tiempo.

Se tiene que exiliar y elige a dedo una isla, Santo Domingo, como muchos eligieron otros sitios desastrosos. Bien. El cree hallar allí la libertad (es poeta, escritor y Premio Nacional de Derecho de su promoción) y se encuentra una dictadura implacable mucho peor que la del propio Franco. Eso lo leerás en el capítulo que te doy. Ese capítulo es la transformación del vasco de Amurrio (todos sus ancestros los son) al vasco universal que se da cuenta de que el mundo es mucho más ancho que Euskadi.

En el prólogo, escrito por uno de los mejores economistas de América, Fernando Carranza, que estuvo con Galindez en el Madrid sitiado, podrás adivinar lo que viene después: Galindez se va a Nueva York, y escribe su tesis "La Era de Trujillo". Trujillo lo secuestra en Nueva York, lo mata. Pero Galindez muerto se convierte en un símbolo para los vascos de la Diáspora que hay miles y miles, entre otros yo.

En el libro pronuncio siglas partidistas (PNV) una sola vez. Opinan al final gentes del exilio. Es un libro como otro cualquiera, pero no su autor. Se me ponen trabas para que lo saque y Fito me está ayudando. Eso lo hablaremos en el Esparru cuando termines el capítulo. Te escribo principalmente porque eres

amigo de Carlos y los amigos de Carlos –yo soy mucho más joven– son mis amigos. Y te agradezco sumamente que te molestes en leer todo este rollo. Creo que el secreto de este país y de esta vida es hacer el bien, solidarizarse con lo que uno cree justo y eso es lo que yo trato con todo eso porque el libro no me va dar un duro.

Elosegi eta Amundarain'dar Alberto

5. ONDARRETA'KO FUSILATUAK

Soldadu nengoen Donostia'ko Ingenieros'etan Urria'ren lenengo egunetik. Bezperan joan ziranak, Iraillaren 30'erarte, Somosierra'ra eraman zituzten Buitrago'ko frentera. Gaez eraman ere. Kuartelera joateko epea, Irailla'ren 30'ean amaitu zitzaigun. Urria'ren asieran amabost lagun eldu giñan, berandu. Errats bana eman ziguten eskura eta Kuartel osoa garbitzeko ordena. Goenaga azpeitiarra, nere kideko apaizgaia, ipiñi ziguten talde-buru. Teniente Coronela eta bi alferetz "chusquero", beste graduko militarrik ez zan baztar aietan ikusten. Somosierra'ra bidaltzeko talde txikitxo eta, bertan Batalloi bat osatzea erabaki zuten. Gure poza!

Bi alferetz aietako bat, Teniente Coronel'aren bulego-eramantzaillea zan eta langela ori osatzeko, Goenaga ta biok artu ginduzen. Apaizgaiak giñan eskeroz, idazten ikasita genden.

Jendea urbiltzen ari zan erara, zijoan Batalloia asten. Kuarletek at bazkaltzeko askatasuna eman ziguten. Eurentzako lan gutxiago.

Jan da lo Oquendo jatetxean egiten nuen. Jateko laguna, Lazkao'ko benedita rren taldeko zan Altolaguirre, nuan. Artilleri'an zegoen, inprentako lanak egiten, eguneroko ordena-orria ateratzeko. Biok jaten genduan beti maitxo berean eta aldameneko maitxoan Guardia-de-Asalto'ko sarjento eta kaboak. Eurongana urbiltzen zan, "Búfalo" dendako neskatxa bat. Inpermeable denda ori, Oquendo'tik gertu zegoen, Bulebar'eko ertzean. Neskatxa irundarra zan.

Guardia oien aotik ikasi genduen, Bizkai'tik pasa zirala, ango frentea utzita. Donostiko Ondarreta'ko kartzelan eman zieten lan-bidea. Mutil galantak ziran...

Baña, aurretik esan bear det zer gertatu zan Gipuzkoa'n gerra asita gero. Napa-rrek (Karlista, falangista, soldadu...) bide askoetatik batera sartu ziran Gipuzkoa'ko lurraldean: Irun, Oiartzun, Tolosa, Beasain (Alsasua'tik Etxegate'ra), Lazkao (Etxarri-Aranaz'tik Ataun'era). Lazkao'ko taldeak Columna Cayuela zuen izen. Onek eta Beasain'goak, Ordizia artu, eta biak Tolosa'ra jo zuten. Tolosa'koak Donostiruntz eta beste onek, Andazarrate'tik Zarautz'era, Pasaia eta Donosti'ko ieslariet bidea moztera.

Danen artean izugarrizko sare bat antolatu zuten, Gipuzkoa erdia barruan arturik... Errietan sartu ala, asi ziran ilketak. Edozer zan aitzaki ona, gizakia garbitzeko...

Ni Lazkao'n bizi nintzan eta tirorik botatzeke sartu ziran. Beasain'en bost guardia-civil'ek egin zieten frente eta arpegia eman. Errian sartu ziraneko gau artan,

ogeita emezortzi il zituzten iskilluz illerrian. Erriko lauretik iru, Ordizia'ra alde egin-
da zeuen...

Esan eta egin: ogeita lau orduz eutsi zion Naparren eraso-aldiari.

Bizirik zirenetatik mordo aundia sartu zuten Ondarretako kartzelan. An zeuden
epaiketa-itxurarik inun asiko ote zan itxaropenean... Baña, ez ziran orduan izan
epaiketa oiek.

Giro orretan agertzen dira gure bi Guardia-de-Asolto auek. Lenengo itzak beti
sargentoaren mingañean ziran. Eta, eguerdi aretan, bazkaltzen ari giñala, bai gu
eta bai eurok, gauza askoren artean, onela diotza neskatxari: "Este mes (Azaroa)
hemos fusilado a dos mil". (Ondarreta'tik). Itzak esan zituen abosik altxa gabe,
"gaur euritsu dago" esan ba'lu bezela.

Altolaguirre il zan; neskatxa eta bi guardia aien berrirk ez det geiago sekulan
izan. Ni gelditzen naiz itz oien lekuko bakarra.

Arrinda'tar Anes
Urrillak 22.1.1998

6. NEGARRA UGARI ERRIAN

Mondragón, 1 de Noviembre de 1936

Mi queridísima mujer, Conchita, Isabelita, Mari Nati, Ignacito, madre y hermana: Bien sabe Dios mi inocencia en el grave asunto que se ventila y por cuyo desenlace me asaltan graves temores, pero acato gustoso la divina voluntad y me someto a sus designios, perdonando de todo corazón a los que me colocan en este trance.

Dios quiera que tengamos la dicha de vernos nuevamente para que le sirvamos mejor que hasta el presente, pero si así no fuera y me llamara a su lado, os pido resignación y que no tengáis pena de mí, pues todos los sacrificios que llevo y los que me esperan los ofrezco por el perdón de mis pecados y no dudo que los aceptará y me llevará a su lado.

Cuidad bien de mis desgraciados hijos y enseñarles a servir a Dios y a perdonar a sus enemigos para que El los perdone.

Ya sé la triste situación en que os dejo y que es la última pena que llevo, pero ahí está mi santa madre que no os abandonará y mi queridísima hermana esperando de todos os améis de veras y de esta forma os será más llevadera vuestra desgracia.

Nunca he dejado de rezar un avennaria por el alma de mi pobre padre (q.e.p.d.) y si es la voluntad de Dios creo nos encontraremos en el Cielo, donde espero veros también a vosotros. Enseñad a mis hijos esta buena costumbre y que rueguen por su desgraciado padre que morirá con el pensamiento en ellos.

Cumplid con todos los que con tanto interés han trabajado por mí y hacer presente a Dn. Ricardo, Sr. Basterrechea, Sr. Chacón, Sr. Añibarro, Dn. Francisco Resusta y Dn. José María mi sUplica de que atiendan a los pobres niños inocentes y victimas.

Urionabarrenaetxebarria'tar
Jose Antonio

7. IDAZLE FUSILATUAK

Latxaga jauna, abade eta Euskaraz aspergabeko idazleak, Euskerazaintza'ko batzarrean, asmo-erakuste bat egin euskun: nortzuk eta zenbat izan ziran Euskal-erriari Euskal-idazle izkillatutakoak. Eurokaz zor aundia daukagulako, eta Erriak jakin dedin, nola jokutzen eben, gure orduko idazle gazteak.

Ez da lan-erreza, arazoak agiri ta nun-nai agertzen diralako:

- a) Ez dago izkillatuen zerrendarik, euren bizi-bideakaz edo lan-bideakaz eginda.
- a) Apaiz eta sail ez-berdiñetako lekaideak? Euren artean, idazle oso-jakintsuak daukaguz, gaur-arte bizi izan direnak eta oraindiño geratzen diranak, Euskal-erriari zor aundia dautsenak. Euren artean izkillatuak izan ziranak: Ariztimuño eta Olaso'tar Joxe, "AITZOL"; Markiegi'tar Joxe; Otaño, biotzlarien lekai-dea, beste lekaide batek salatua izan zana; Zabala eta Arana'tar Joxe, Andra Maria'ren biotzeko lekaide misiolaria izan zana, eta beste ainbat, zerrendatan etorriko diranak.

Baiña apaizak eta lekaideak albizaritzaren berri-idazleak ziran? "Aitzol"-ek adibidez, Euskadi aldizkarian asko idazten dau (dana erderaz) erriari, bere jakintzatik arnasa emon naian. Eta aldizkaritan ez dabenak idazten? Beste idaz-lan batzuk egiten dabezelako? Or! Bidea ikertzeko, eta ez errezenetariko bat.

- a) Artxibo edo agiritegietatik, ain-bat paper edo argibide desagertu diralako, ez dagoz gauza asko eginda, lan-au adibidez. Franko'ren aldekoak len sumatutako asmakizun edo marro (idea oculta) baten bidez. alan gertatu daiten; eurak egineko astakeri ain aundien lorratz edo astarnak galdu ditezan. Alan gertatu zan 1975 ta 1980 artean, Rodolfo Martin Villa barneko-ministrua izan zanean, Bilbo, Donosti, Gasteiz eta Iruña'ko Erri ta Guda-jaurkintzetatik, berrogei-urte ariñagoko izkillatuen, urkatutako eta garrotevil'ean ildakoen zerrendak desagertu egin ebenakaz. (Rebelián militar en Navarra, p. 61).

Aretxabaleta'ko Peña'tar Josu daukagu, Reinosa'ko eritetxean zaurituta egon zan ogetik atara eta izkillatua izan zana 22 urtekin. Idazle ona eta eten bako langille izan zana. Baiña beren ikasketak albistaritzako berri-idazlenak izan ziran? Albistaritzako berri-idazleen ikasketak, oin ogeita-amar urtetik onantza dira. Orregaitik idatz-lanetatik aurkitu bear dira, eta ez da lan erreza. Arazo aundiak diralako, baten-

bat aipatu barik geratuko da, naizta gudako zerrendatan agertu; barkamena eskatzen dautset. Laukiz'en jaio zan Urkiaga ta Bazaratz'tar Estepan "LAUAXETA", Gazteiz'en 1937'an Ekaina'ren 25'ean izkillatu ebena 32 urtekoa zala. Idazle eta olerkari aundia izan zana, eta gure Euskalerrian aipagarrienetako aundi-bat dana.

Erreterian jaiotako azkarraga ta Mozo'tar Joxe M^a "LURGORRI". Dueso'ko espetxetik Larrinaga'ko espetxera ekarri eta Derio'ko Lur-Santuaren orma ondoan 22 urtegaz izkillatu ebena. Ain-bat malla aundiko idatz-lan egindakoa aldizkarietan agertu daitezana, biotz guztiaz erriari arnasa emon naian. Baiña fazizta menperatzaileak, ez dabe gura jakintasunik, euren sasi-jainkotasuna ortik desagertzen dalako, eta gaur egun gizon aundiak izan bear ziranak, euren joka-bide zintzo eta ulermendunakaz, ori asieratik ebagia, bizitzaren erdeñu edo gaitz-etsi aundia daukien sasi-jainkoak izan gura direnakaitik.

Guztien Abertzaletasuna aipagarritzekoa da, euren biotzetan JAINKOA eta LEGE-ZARRAK zirelako elburuak, Euskalerrriak askatasunean jarraitu dagian izar aundi bat lez, Europako zarrena dana, eta bere jakintzagaitik gidari izan bear dauana, JAINKOAren bideak zeintzuk diran erakusteko.

Atutxa'tar Paul

Oarra: Lan bakoitzaren ostean, "SABINO ARANA" eta "SANTXO el SABIO"ko iraspenetatik, lortutako argibideak joango dira.

7. 1. GAZTEIZ ELEIZBARRUTIKO ABADE ETA LEKAIDE-LEKAIMEAK

"RELACION DE LOS SACERDOTES Y RELIGIOSOS ASESINADOS EN LA DIOCESIS DE VITORIA"

FABIAN LEGORBURU AXPE. Coadjutor de Llodio, en Areta, muerto el 24 de Julio de 1936.

FELIPE GOENE URQUIA. EcPnomo de Pasajes, asesinado en Pasajes el 2 de Julio de 1936.

JOSE MARIA ALCIBAR GOROSTOLA. Coadjutor de (ciar, asesinado hacia agosto de 1936 y hallado junto a Orio

EULOGIO ULACIA BURGANA. Capellan adscrito en Eibar, fusilado en San Sebastian el 4 de setiembre de 1936.

NICASIO NAFARRETE DIAZ DE MANDIVIL. Ecónomo de Menoyo, muerto en la carretera el 17 de setiembre de 1936.

FEDERICO MARTINEZ URIARTE. Capellan del barrio de Repéлага, en Portugalete, muerto en el "Altuna Mendi" el 25 de setiembre de 1936.

MATIAS LUMBRERAS ZUBERO. Coadjutor de Galdacano, en Usansolo, muerto en el "Cabo Quilates" el 25 de setiembre 1936

GREGORIO RAMIREZ MURGUIA. Ecónomo de Luyando, muerto en la carretera en setiembre u octubre de 1936.

ANDRES AGUIRRE RESPALDIZA. Capellán adscrito en Lezama, Ayala, muerto en el "Cabo Quilates" el 2 octubre 1936

VICTOR JOSE ALEGRIA URIARTE. Ecbnomo de Maroño, Ayala, muerto en el "Cabo Quilates" el 2 octubre 1936

MARTIN ALTUARENA LANDAJO. Coadjutor de Baracaldo-Desierto, muerto en el "Cabo Quilates" el 2 octubre 1936.

RUFINO GANUZA GONZALEZ d, S.PEDRO. Capellán de San Salvador del Valle, en la Arboleda, muerto en el "Cabo Quilates" el 2 octubre 1936.

SERAPIO GOMEZ DE SEGURA DE ZUN IGA. Ecbnomo de La cuadra, muerto en el "Cabo Quilates" el 2 octubre 1936.

GABINO GUTIERREZ BARQUIN Y SAINZ DE MAZA. Coadjutor de San Vicente, de Bilbao, en Olaveaga, muerto en el "Cabo Quilates" el 2 octubre 1936.

GLICERIO MAISON IBAÑEZ DE GARAYO. Ecbnomo de Biañez-Carranza, muerto en el "Cabo Quilates" el 2 octubre 1936.

MANUEL DE MIGUEL ALAVA. Ecdnomo de San Esteban de Carranza, muerto en el "Cabo Quilates" el 2 octubre 1936.

ANDRES RANERO MUGICA. Ecbnomo de Aedo, Carranza, muerto en el "Cabo Quilates" el 2 octubre 1936.

FRANCISCO UGARTE ARBERAS. Ecónomo de Respaldiza, muerto en el "Cabo Quilates" el 2 octubre 1936.

CARLOS ACHA ALDECOA. Ecdnomo de Albizu-Eléztzaga (San martin de Orozco), muerto en los "Angeles Custodios" el 4 enero 1937.

ZOILO AGUIRRE ALORDUY. Adscrito en Sestao, muerto en los "Angeles Custodios" el 4 enero 1937.

ANGEL ALLENDE CASTAÑOS. Coadjutor de Gueñes, muerto en los "Angeles Custodios" el 4 enero 1937.

JUAN ANTONIO AIZPIRI IRIONDO. Coadjutor de Eibar, muerto en los "Angeles Custodios" el 4 enero 1937.

FIDEL ARRIEN GUEREQUIZ. Ecónomo de Olarte-Orozco, muerto en los "Angeles Custodios" el 4 enero 1937.

FELIX BASOZABAL ARRUZAZABALA. Coadjutor de Ortuella, en Nocedal, muerto en los "Angeles Custodios" el 4 enero 1937.

JUAN MIOTA GARITAONANDIA. Ecbnomo de Ibarri, muerto en los "Angeles Custodios" el 4 enero 1937.

MARTIN ECHEBARRIA OLAVERRIA. Teniente Arcipreste, Ecónomo de Orozco, muerto en los "Angeles Custodios" el 4 enero 1937.

LUIS ORBEA GOROSTIAGA. Ecdnomo de Llodio, muerto en los "Angeles Custodios" el 4 enero 1937.

FRANCISCO CARRERA AZCARRETA. Adscrito en el Buen Pastor, de San Sebastian muerto en la carcel de Larrinaga el 4 enero 1937

MIGUEL UNAMUNO ETZEÑAGA. Capellan de la Adoracion Nocturna de Santa Maria de Durango, muerto en la carcel de Larrinaga el 4 enero 1937

BENITO ATUCHA AGUIRRECELEAGA. Párroco de Ceánuri, muerto el 7 abril 1937 en Ceánuri.

"Lurgorri" hizo el comentario en el panegirico y es a este panegirico que alude el comentarista de Espetxian.

"Lurgorri" y "Lauaxeta", idos ejemplares de la raza! En sendas cartas escritas en esa trágica noche del 15 al 16 de diciembre, Azkarraga se despedia de sus padres y hermanos.

"Mis queridos padres y hermanas:

Valor para leer la despedida postrera de vuestro hijo. Ante el piquete, sereno, tranquilo, sin el mas leve temblor en mis labios ni en mi pulso, con esa tranquilidad que proporciona la conciencia limpia de falta alguna de las que me imputaren, voy ante el Supremo Juez, el verdadero. Agur.

He amado mucho a mi patria. Esa es la unica falta que se me pudiera imputar, para mi gran honor. Y sOlo os pido que la ameis vosotros tambien.

No llor is mi muerte; que en vuestras almas viva la eterna alegría que en estos instantes vive en la mía i⁹ue hermoso! Ya el sacerdote ha confortado mi espiritu con (la Eucaristia)1, y después de esto que importa la muerte? No lloreis; ipues si vierais la alegría que inunda mi corazOn al pensar que muero por haber amado a Euzkadi!

Ni una venganza quiero para mi muerte. Valor y patriotismo, patriotismo. Esa es la única venganza que solicito.

Y a los que dijeron que habiamos manchado el apellido, decidles que los que mueren por un ideal lo honran eternamente.

Hasta la eternidad, Agur. Vuestro hijo que hoy mas que nunca os ama".

Jose Mari

A su hermano, muchacho de 18 años, también condenado a muerte – ,qué delito habria cometido aparte de ser hermano de José Mari?– le dirigio la siguiente carta:

"Querido hermano:

Jaungoikoa me llama y a El voy tranquilo, sereno, con el alma henchida de gozo y con la conciencia sin un remordimiento al presentarme ante el Juez Supremo, el que no se equivoca en sus fallos.

No temas, Emiliano querido: no tiembla ni pulso ante el piquete. Sabes que soy inocente de cuantas acusaciones se me imputan. Asi quiero se lo hagas saber a mis querldisimos padres y hermanas, a los que amo hoy mas que nunca, y los que saben bien que de nada me acusa mi conciencia. El sacerdote nos ha confortado con los auxilios de nuestra santa religiOn y nada me queda ya por esperar en este mundo.

No quiero venganzas, hermano querido. La venganza que te pido es que trabajes con ardor y entusiasmo por el ideal que anamos muy de veras.

No dejes un solo momento a nuestros padres. Amalos como yo los he amado siempre. Conmigo vienen Olabarrieta, Barrondo, Peli de Larrañaga, Amadoz, personificando este a Nabarra: ipobre Nabarra!, jpobre Araba!, jprobe Euzkadi!...

Despideme de los compañeros de celda y Batallcin, asi como de los que en El Dueso sufieron conmigo por Euzkadi.

A ellos, y a todos, Agur. No lloreis mi muerte. Gozad y alegraos, pues gozoso y alegre voy a ella. Agur. Tu hermano que de veras te quiere hoy mas que nunca.

P.D. Despideme sinceramente de la familia de D. Santos Salaberri, Zaradona, Ormaetxea (RamOn tiene otras cartas de m() y de todos mis buenos amigos".

Jose Mari.

La misma serenidad admiramos en otra carta de unos tíos cuya visita habia recibido horas antes:

Queridos tíos:

Por contraste del destino en el mismo dia escribo mi tarjeta de agradecimiento por vuestra visita, y mi despedida.

Voy tranquilo a la muerte, sin que en mi conciencia haya sitio para ninguna odiosa imputación que se me hubiese hecho. He luchado por un ideal y por el muero.

No tiemblo ante la muerte. El sacerdote ha confortado bien nuestras almas, y ante el Juez supremo, el que en sus fallos no yerra, voy sereno.

A las tías y mis queridos primos un abrazo muy fuerte, y t6, tío, con el agradecimiento por cuanto hiciste recibe otro de

Jose Mari

Un dia, 15 años despues, tuve oportunidad de conocer a la amatxu de "Lurgorri". Eran los tiempos en que ya habia germinado la semilla vasca. Se habian acabado los tiempos en que nadie hablaba, en que todo el mundo se encogia.

Euzko Gaztedi, precursor del movimiento de la Resistencia vasca, comenzd a salir de las ruinas. Ahora parecerá pueril pero qué emoción producian las ikurriñas en San Marris, en Uliá, en aquel Aberri-Eguna de Bilbao del año 46, icuando en El Arenal los bomberos, nuestros bomberos, se hacian los remolones para no quitar de los árboles las 40 0 50 ikurriñas que aparecian colgadas!

Aquel Aberri-Eguna de 48 en que, a las 2 de la tarde, se interrumpió la sesión de Radio San Sebastián en el espacio de noticias de Radio Nacional de España, y dijo:
‘Aqui Radio Euzkadi, Hoy Aberri Eguna, declaramos ser la legitima autoridad del pueblo vasco’.

iVaya bomba!

El general Mola ya habia volado para entonces de su puesto de El Arenal de Bilbao. En Artxanda aparecia un Euzkadi asi que grande que... no hay quien lo borre. Allí sige para el que lo quiere admirar. ¡Euzkadi no habia muerto!

Todo esto le contaba yo en aquel año 50 a la *amatxu* de Lurgorri. Le hablaba de nuestras inquietudes, de nuestro resurgimiento, de la hermosa juventud que empujaba, de la nueva savia que renacía.

Con todo candor me dijo ella entonces:

¡Y yo que creía que la muerte de nuestro José Mari había sido en vano!

José Maria de Azkarraga cayó en el frío amanecer del 16 de diciembre de 1937, y con él fueron fusilados también otros 33 amigos entrañables de nuestras luchas y de los primeros meses de presidio.

Azkarraga eta Rodero'tar Gotzon

21. JESUS PEÑAREN EREDUA

Gure anai-arteke guda ontan, agertu zaigu eredu bat ezin deguna utzi, alderantziz jarraitu bear genukena, Josu Peña' ren emaitza.

Josu Peña'k izkillatzen dutenean ogeta bi urte ditu ta badu ortarako idazlan mordua idatzia ta aldizkarietan argitaratuak.

Alderdi batetik, garai artako gaztediakin bizi da ta lana egiten du. Bere idazlanak garai artako aldizkari onenetan argitaratuak daude.

Gaiñera, euskalduna dugu mutil-au, ta euskaraz itz egin ta asmatzen du; orregaitik erakusten dizkigu gure izkuntzaren edertasunak; ta gure ikerketak bear du nai-ta nai-ez begi-aurrean euki, orrelako gizon berezia; gure ekintza da illunpetik ataratzea. Orrela egiten da gure erriaren edestia ta kultura.

Guk euskeraz idazten degula gure anai arteko gudari buruz, zabaltzen degu gure literaturaren larraña ta erria; orrela beartzen ditugu ere gure lanak euskal kultura zabaltzen.

Josu Peña'k erakutsiko digu, nola ez, gure literaturaren argitasuna ta illuntasunak argitara eramaten; ortxe ikusiko degu nolako indarra daukan iruzurrak ta zenbateraiño izan diteken kaltegarria. Gaiñera gazte onek erakutsiko digu, anai-arteke gudaren erroak nun dauden; bear bearrezkoa da guk danok eza-gutzea.

Latxaga

21.1. OROITZAPENEN LURRINAK

Latxaga Jaunak jarri gaitu oraingoan elkarrizketan, bere idazlana dela eta, aspalditik berritik urrun samar gabiltzan bi atxabaltar.

Eskolako lagunak, eta orain, batez besteko laurogei urteaz biok bizialdiaren Unibertsitatean karrera luzea eginak, pozik asko elkartu gara beste batzuetan bezala, gure oroimenaren altzari zaharrei hautsak kentzen basteko, eta oraingoan, bereziki, Latxaga Jaunaren ihardun-hariari jarraituz; SENDI BATEN MIÑA izenburupean.

Andoni Lekuonak "Las victimas y la memoria del pueblo" izenburuko artikuluan (1999-VII-29/DEIA) Agurtzane baten esaldi hau jasotzen zuen: "Diskrezioa maite dugu euskaldunok bai, baina niri iruditzen zait, gurea gehiegizko dizkrezioa dela".

Hala bada, mahaiari, lasai eserita, Lorentxok, bere humore on eta euskal senaren izpiaren azalpean, hainbeste urtean gordea daraman zauriari eguin beharko diogu ukitu, eta Latxagak jarri digun puntu hori jarraituz: "Gerra aurretiko eta gerra garaiko Aretxabaletako giroa", zenbait alderditik begiraturaz arin-arin ikuspegi orokor bat ematen saiatuko gara, herriari ere Peña sendiaren gora beheretatik antz emanez. Eta ez da horixe erreza, labur esatea, behin hasiz gero, guri Aratxabaletak, Parisek berak baino gehiago esaten digu eta.

ARETXABALETA TURISTIKOA

Ez pentsa, Atxabalta izan denaz Benidor bera ere txiki gelditzen da.

Izan zen urtea Aretxabaletan Espainiako Nobleziaren hogeita hamairu tituludun baino gehiago bildu zena.

Segismundo Moret, hiru aldiz Espainiako Presidentea eta oraingoak kenduz ezagutzen zen politikaririk uztelena, hona etortzen zen, agian bere politikazko zikin-keria uratzaz garbituko zuelakoaren ustean.

Leintz eskualde osoa zen ospe haundikoa; ez zuen propaganda beharrik. Garai hartan ez zegoen "insersorik".

1879 urtean hil zen Eskoriatzako bainotetxean (Marianistetan) M^a Pilar de Borbón y BorbCn, Alfonso XII. Erregearen arreba.

Eta Muru ostean, Santa Agedan, ez zegoela munduan hori baino leku hoberik eta hortik zerura bidali zuen anarkista batek Canovas del Castillo, Espainiako Gobernuako Presidentea.

Elorrioko bazter bati "Chamberi" jarri zioten bezala, Aretxabaletan "Portasol" izena zeukan jarria bainotzeko inguruneak, pareko ikusten baitzituzten Madriltarrek beren parejeekin.

Alferrik izango zuen uratzak arraultza uztel usaina; panazea zen. "Bixamonak kentzeko ere espeziala". "Portasorko bainoetxeak laurogei logela zituen eta otalorakoak (Monja Agustinak) hirurogei.

Sekulakoa zen hango girgileria eta dotoretasuna. Marmolezko mahaiak, kalesak, hamakak, dantza aretoak, beirazko galeriak, bilar mahaiak, igelera jolasteko mahaitxoak, ziriguak, zuhaitz ederren itzala eta lorekiak eta tximeleta bildumak eta errekatxo baten zurrumurrua.

Hortxe atsedean hartzen zuen sekula nekatu gabeko jendeak. Eta halaxe orkati-letarainoko gona luzadun andra dotoreak, beren pamela eta eskuetako guanteaz; eta halaxe baita papar zabaldun neska gazte guri-guriak, maunga eta galtzerdirik gabe eta ipurataletarainoko gona motzaz. Halakoei eleizan jaunartzerakoan "txandalapasa" egiten zieten apaizek. Eta gizonak, lastozko kapela, galtza txuriz eta bas-toiaz, nork jakin nor nor zen! Edo kondeak, edo ministroak edo jeneralak!

Guk mutikook banakaren bat genuen ezagun, bat beti burua goraka, bere bise-ra azpitik zerura begira kinuka, arin-arin ibiltzen zena "Miracielos" deitzen geniona.

Eta ezin ahaztu, herrian egoten zen neska pispitxenaz. Hilez estalita, aurpegirik ikusten ez zitzaion txakurkuma antzerakoa eramaten zuen katetik, Whisky izenekoa. Gu orduan, gaseosatik ez ginen pasatzen eta Whisky zer izan zitekeen antzik ere ez.

Gauza da, garai hartan Gasteiztik ondartzara joan nahi zutenak, Debara jotzen zutela gehienak, eta kotxerik ez zegoenez autobus errenkadak zeharkatzen zuten Atxabalta, igandero, joanetorrian.

Horiatariko batek, goiz batez, Whisky arrapatu eta zapalzapal "siku" utzi zuen. Gu motikook barrezka. Gu, benetako kaletxakurrekin harrika eta ostikoka ohituak ez genuen konprenditzen nola halako emakume gazte eta polit batek negar egin zezakeen horren itxurabako txankurkume bategatik. Argazki hori gelditu zitzaidan irarria baruan.

Han zen baita ere Elola Olaso, gero Francoren garaian, Espainiako Kirol Saileko arduradun nagusia. Honek jartzen gintuen Atxabaltako mutikoak, edozein mizkinkeriaren truke, egun guztian ariniketan. Eta, nola ez, gaizki ez bagaude, herriaren alde zerbait egin beharrez hauek tarteko zirela sortu zen baita "AdoraciCn Nocturna Española" bazkundera ere.

Aretxabaleta herri lasaia: garaian, 2.500 bizilagun inguru, zazpi auzotan banatuak. Kale bakar bat, luzea, hiru zatitan bereiztua, Kalegoixena, erdikoa (izenik gabe) eta Kalebarrena.

Bazen kale bat, aretxabaletar baten izen handikiaz "Cardenal Durana" deitua.

Trena pasatzen zen gainera, eta guk mutikook geltokian, ikusten genuen exportaziorako merkantzia bakarra, urria aldean, gaztaina zaku pilak izaten ziren, eta nahiz eta etxean, janik tripan zorriak egingo zizkigutela esan, sekula ez genuen halakorik sumatzen.

BIZIMODU NEKEZA

Pixkana-pixkanaka beste "turista" mota bat agertu zen Atxabaltan.

Txapel estu-estuak belarrietaraino sartuak; beste batzuk biseraz; gehienak panazko frakaz; laban txiki bat eramaten zuten sakelean.

Hauen etortzeak, lantegietako adar-soinu eta keak axatu zituzten, erleak beza-la, galtza txuridun turistak.

Isabel II Espainiako Erreginak, udaroan Donostiara joateaz eraman zituen bere atzetik erle-mando alfer guztiak, ondartzamodaren ttunttunean.

Bainotxeko hormak zuhaitzetatik jausitako orbel eze eta uztelez inguratutik negar dariola eta lehioak ugartu eta erdoituak geratu ziren.

Iadanik 1929ko krisialdi "mundialaren" zioz gerra aurretik Errepublika garaian ere, latza zen herriaren egoera.

Hiruzpalau lantegi zeuden iadanik eraikiak Aretxabaletan: Lezama Laminazioa-Beroa, aluminio fabrika, –AZBE– Eizaguirre, Atxa Zerraileria eta Erromaldueneko oinetakoena.

"Vasco Cerrajera" lantegia Lakuntzara alde egina zen. Lantegi hauetako txatar piloak, jolasleku bikainak bilakatzen zitzaizkigun, hor aurkitzen baikenituen mota

eta neurri guztietako txirringolak, alambre eta gainetikoak gure "tiragoma" eta "goi-tiberak" e.a. egiteko.

L.- "Astean hiru egun egiten zen lan eta hiru kobratu ere, eta jateko zazpi egun eta familia haundia.

Peoiak, lana izateran, zortzi peseta irabazten zuen eguneko; eta langabeziaren zioz, aldi baterako zegoen miseria leuntzearren besterik ez bazen ere, herritik Koruetarianoko errepeidea eguin zen, pala eta pikatxoiz, baita kuartela eta bolalekua ere (1993). Jateko, zerrikia eta barazkiak nagusi, babagorri eta urdaia, patatak. porruak, kafesnea eta berakatz zopa. `Aita gurea, ama gurea, zopak jan eta logu-rea" zen gure esaldietariko bat.

Igandetan txitxioak, "garbantzu kanpaiak" deitzen genien domeketako hamabita-koei eta arrainetan, kalez-kale, ohiuka txakurraundiko antxoia frexkoak. Eskolatik irten eta gure eguneroko merendea, ogitakoa txokolatez edo sagarra.

Handik edo bestetik herritarrok hobeto defenditzen ginen kanpotik etorriberrir zirenak baino. Hauek denok ziren guretzat leku berekoak; geografia kontuak gutxi esaten zigun guri. Zaku batean sartu eta denak ziren "maketoak". Euskerarik ez zekiten, eleizara ere ez ziren joaten eta kitto, ez zegoen bestelako bereizkeriarik. Gahienetan, lanik gabe, kuadrilan ibiltzen ziren bazterrik bazter. Aho zabal gelditzen ginen baba baltzak eta tomateak gordinik jaten zituztela ikusiz.

Haiek erakutsi ziguten tomatea jaten; gure etxean letxuga solla jaten genuen eta bera azukreaz.

Mutikook bagenuen gure soineko "blusak" nola bete: non eta noiz sagarrak, asto-okaranak, gaztaina, arrak, mizpilak eta intxaurrak.

Mixiria ohi da bekaizkeriaren ongari eta ikusiezinaren iturri, eta herri txiki batean ere, sasiak bezala, indar hartzen zuten orma bazterretan.

L.- "Gu sei anaia-arreba ginen eta aitag Nikolasek 1927 urtea ingurutik Otazutarren pilotaleku eztabia zeukan, Norberto Arruerekin batera, alokairuan hartu eta zine bihurtua. Hango ikuskizunak, Charlot, Uzkudunen boxeo lehiaketar, Denssey primo Carnera eta Mc. Smelingen kontrakoak, indioenak, eta apaizek herriko neskmutilekin euskeraz antolaturiko abestalde eta antzerkiak izaten genituen, "Santixeneko tartaren" zozketaz, neguan entretenigarri.

Baina aitag ez zituen apaizak oso aldeko, zeren zinea zela eta jende gutxiago joaten omen zen eleizkizunetara. Amak nahikoa zuen, sei seme-alabakin, josten eta etxeko lanaz.

Nere aita BEROA lantegiko kontramaestrea zen eta hortik kanpo bere zaletasuna, baratza. Hala kurutzatzen zuen herri osoa bere otzara eta igitia bizkarrean.

BEROA fabrikako nagusiak ofizinarako mutil bat behar zuela eta Eskola maiuarengana jo zuen nor izan zitekeen eskolatik egokiena eta honek JesUs nire anaia proposatu zion eta hor hasi zen hamairu urteaz lanean. Lan-orduetatik gain, Jesus poliki poliki beste diru-iturriaren batzuk aztatzen hasi zen: gaso4ina pastilak salduz, kafea, irina, eta inguruetako lantegietarako "Kabrion" izeneko kartoia eta paperak, behin baino gehiagotan herriz-herri taxisa erabiliz. Etxean zuen bere bulegoa idatz-gailu eta guzti. Hiru etxeazpi izan zituen akuran hartuak biltegitzat Kale Barrenean, bakoitzagatik hilean hogeita bost pezeta ordainduz.

Ez zen gelditzen eta astia hartzen zuen egunkarietako herriko berriak zabaldu eta bertako arazoetan murgildurik "Euskadi", "Zeruko Argia", "Eguna", "Gure Mutilak", aldizkarietan bere lantxoak argitaratzeko.

Batzokiko idazkari eta administraria zen eta Luistarren buru".

Abiada handiegia zeraman Jesusek Atxabaltako kale estuetarako. Herrian ez zegoen beste irtenbiderik: Hamalau urte eskolan eta ondoren lanera edo fraile.

L *"Joxek ere Beroan lan egiten zuen, astean hiru egun, eta beste hiru egunak, "Arzamendi Berecibar y Cia" (Arrasaten) tomulari zulezko eskutilak estokatzen.*

Eta ni, 1933ko irailaren batean, entzun, Hitler Alemaniaz negusitu zen egun berean, hasi nintzen lanean: AZBE sarrailtegian hartu ninduten eta beste denak hiru egunetan ari baziren ere, niri sei egunetan lana egiteko aukera eman zidaten, eta lana zegoenean abespeluan. Baziren egunak hamabi pezeta irabazten nituenak: 80 dozana 0,15an bakoitza=12 pezeta.

Hamazazpi urte nituen gerratea hasi zenean.

Kristina ere Beroako ofizinan hasi zen lanean 13 urteaz. Nati, Kontxi eta Rufina zetozten atzetik eta osaba Joxe ere etxean.

Kale Barrenean bizi ginen, Otalora, 24an (orain 26)".

ESKOLAK

Aretxebaletako mutiko bati galdetu omen zion kanpotar batek:

- Hemen pertsonai haundiren bat jaio ahal da?
- Ez dut uste; hemen txikiak dira jaiotzen diren guztiak.

Ansaldo abiadorea, Arrue, musikalaria, Altube abeslaria, Loramendi, euskal olerkaria, Uribesalgo eskultorea, izan dira azkenaldiko aipu haundikoenak, baina akaberabakoa litzateke historian zehar lehendik datozen atxabaltar haundikien zerrenda.

Godofredo de Bouillonekin kruzadetara jo behar duzu; eta Elkanorekin itxa-soetara, han baitzebilen bere koinatua, atxabaltarra; Juan de Austriakin ikusiko duzu Lepanton, Izurieta, eta ez dira faltako ez... Peruko gobernadore, ez inkisidore, ez kardenal, ez eskribau, ez kantziler, ez lizentzaitu, ez korrejidore, ez komisario, ez epaile, ez kantadore, ez kapelau, eta ez predikalari atxabaltarrik munduan zehar. Galarza Juantxoa ere etxe-etxeko omen zuen Avilako Santa Teresak.

Nonbaiten ikasitakoak izan behar. Gu gutxiagoz konformatzen ginen.

Eskola bakar bat aski genuen, Viteri, Atxabaltako neskamutiko guztientzat; mutilentzako maixu Santiago Ondarra Jauna eta neskentzako maistra Francisca Azurmendi, senar-emazteak, biak Segurarrak.

Sei urtetik hamalau urterainoko neska mutiko guztiak bi geletan, neskak batean eta mutilak bestean, hirurogeiren bat ikasle bakoitzean.

Ikasketa guztiak erderaz Moyanoren legepean, eta noiz behinka euzkera ere erabiltzen zuen maixuak lagungarri, batipat, makila eskuan eta mahaitik altxa eta benetan gogaldi txarreko jartzen zenean.

Errepublikara garaian, Eskoletatik kurutzeak kendu zituztenean ordurako gu ere ikasiak ginen eta greba egin genuen, hurrengo egunetan denok kurutze txiki bat paparrean eta joaten ginen eskolara.

Maixu eta alkate izan zen batera, garai batean Santiago Ondarra Jauna. Zorro-tza gizona; bere alkate-makila bezain zuzena.

Arbela, egurrezko sugailua eta lamina pilo horretan itsatsiak: sugeak, kaimanak, pelikanoak, hipopotamoak, leoiak, libelulak eta tximeletak. Han zegoen baita aurre-aurrean, Gibraltargo aitz-tontorra. Espainiako bandera eta guzti.

Ez zen ezagutzen boligraforik. Binakako mahaietako tintontziak euliz eta klarion-hautsez beteak.

Larunbat goizez, errekan jarri eta banan-banan guztioi belaunburu, azkazal eta belarri zuloak begiztatzeko zizkigun ia azkazal tartetan galipot edo lokatsarik eta belarri zuloetan argizari edo ezirik geneukan, eta okerreanean, ostera garbitzera.

Gure liburuen artean, ez zen falta "Urbanidad y buenas maneras".

Urtean zehar egazkineren baten burrundarik entzunez maixua aurrenengo zelarik denok ateratzen ginen eskolatik "abioia-abioia" ohiuka, urteko gertakizun miresgarrietako bat agian.

Egia esan, ondo ikasten zen Aretxabaletako eskolan. Eskolatik kanpo ez zegoen ez ingelesik, ez frantsesik, ez karate, ez judo eta ez informatikarik. Ez bideorik ez telebistarik. Nahikoa genuen kromoekin.

Iluntzetan ELA Sindikatoko langileen semeentzat marrazketa klaseak ematen zituen doban Angel Jaunak, gerratea zela eta gero Venezuelara ihes egina.

Lehen bainoetxea izaniko tokian (gaur ALMEN), Aretxabaleta eta Eskoria-tza mugan Marianistek zeukaten ikastetxe dotore bat lurralde eder eta zabala.

Herritar banakaren bat, besterik ez zen joaten Ikastetxe horretara; inguruko baserrietatik zihoaztenekin eta guzti, ez ziren dozenatik gora izango.

L.– "Nik, *neure eskola-azken urtea egin nuen hantxe. Hilean bost pezeta ordaintzen nuen. Zilarrezko ogerlekua*".

Kalea zen gure bigarren eskola eta inguruneke baso, zelai, eta erreka bazterrak.

Kirolen artean, ezin ahaztu borrokak; nortasunerako izugarritzko pixua zeukan hor gailen ateratzeak eta soinak berak eskaltzen zigun egin behar hori.

Gaixotasunak, kakurruko eztula, oin eta belarrietako ospelak eta okaran berdeak janda ondorengo sabeliria eta beruzkoak. Tiritarik ere ez eta belaunburu, ukalondo eta buruko urratu eta zaurien odolbatu eta ubeldurak.

Gu linboan pozik bizi ginen, baina gerora, batean azpian infernua, hurrengoan erdian purgatoria eta azkenik gohian zerua zela eta zer tokatuko ote zitzaigun gure beldur eta larrialdiak jasotzen genituen.

ELEIZA

Pekatuak pixuaren gorabeheran izango bailira: pekatu arinak eta pekatu astunak eta gehienak aragiari lotuak; 6. mandamentua zen lehenengoa.

Droga lehunetik, axen eta artobizarretik droga gogorrera, matakintoetara pasatzen hasiak.

Egunero etxean "errozaixua". "Errosarioa eskuan eta deabrua kolkuan".

Garinzumako misio trunboitsuak, goizeko eta arratseko zazpirak aldean, bidrieretako ohial gorriak itxi eta erdi ilunetan; txandako sermolariek, gurutzea eskuan eta izaten zuten abots garratzaz elizako aulkiak ere dardarka jartzen zituzten.

Aste Santuetan tabernak itxi, kanpaiak eta txilinak mutu eta "mixili maixetan" (miserere mei xetan) Judasi nok karraka handienaz edo aulkien zarataz ileak ateratzeraino amorrarazi izaten zen gure deboziorik benetakoena, eta egunero "aramaitxakoak" (abe mariakoak) jotzean, neskek etxean.

Dozenerdieren bat aitorleku banatuak eta futbolerako takilak bailira, konfesatze-ko txanda hartzeko errenkadak; eta abadiak hantxe epel-epeletan, begiak itxi eta pekatuak entzun, eta entzun, orduetan.

Eta Paskuazkoa eta horreaz betetu den ala betetu ez den agiritxartela. Nortzuk ziren herrian huts eginiko pekatarien izenak, arakatuak.

Eta Aita amapontekoez ez ziren ahazten karapaixuaz Pazkuetan.

Eleizaren, Santuen eta apaizen inguruan zegoen hiritarren bizitza osoa ehundu. Ereite, jorratze, iratze, kimatze eta txertatzeak; bai azokak eta bai erromeriak ere.

San Antonio zela eta Zabalaunditik zehar Urkiolara; San Blasak eta Fullaondoren autobusean abadiñora; Xantixo eta Koruetara, eta San Lorentzo eta Salluentera.

Santurik gabeko erromeria maiatzeko Otalazelaikoa izaten zen. Ez zegoen artean koka-kola eta halakorik eta Elorrixoko Narruk astoz ekarritako ura-azukreak saltzen zuen. Eta inon falta ezinak, erroskilak, adar-zirian sartuak eta igandetan mutikoentzat "Totoloren" barkilo bonboa.

Aldi hartan ez zegoen San Valentín, maiteminduen egunik, ez aitaren, amaren, eta andra langilearenik ere; ezta tabako minbizi eta kukurruku-estularen kontrako egunik.

Errepublikak eguna, maiatzak 1, hasi zen ospatzen eta Eibarren "a lo grande", abade laiko eta guzti.

Gero etorriko ziren, "Dia de la Victoria", "Dia de la Raza" eta gainerako zeremonia egunak.

Bataioak, jaunartze (txiki eta handia 14 urteaz) sendotza, ezkontzak, azken igurtzi eta hiletak.

Mezak, bezperak, errosarioak, bederatziurrenak eta prozesioak; Gu kanpaiak agonikoenak, umeenak eta gizonezkoenak, ezkila mota guztiak bereizten genituen.

"Asenzixo" egunean berrogei kredo errezatu behar izaten genuen, bakoitzak bere kabuz etxean edo kalean, banaka edo taldeka. Ikusia dut behin batez nere burua, espaloiko mailan eserita, teila zati bateaz, pilota partiduetan egiten genuen bezala, bostetik-bosteko marratxoa luzatuz, berrogeira iritsi arte, arnasarik hartu gabe, 40 kredoak kontatzen.

Eta latinkadetan ere nahiko jantziak ginen, batipat monagilloak:

- | | |
|--------------------------------|--|
| – Dominus vobiscum | – Agindu eta ez emon ineuskun |
| – Ora pro nobis, ora pro nobis | – Holan ondo ez gabiltz |
| – Oremus... | – Saca la botella y beberemus |
| – Pater noster | – Hi be zulora baster |
| | – Afaria laster |
| – Kirieleison-kristeleison | – Zaku batean hiru gizon |
| – Sursum corda | – Atzokoa zor da |
| | – Dame una perra gorda |
| – Jesus, Maria ta Jose | – Jan da jan eta beti gose |
| – Ite misa et | – Kandelak itxungi ta gero ezebez eta halakoak |

Eta Malkorre aldetik, Zelaiaundi, Lauxitxa edo Porruko Txara aldean, libre genbiltzala uste izanarren, beti ondoan Aingeru Guardakoa izaten genuen zain-tzaile.

Hala esaten genuen beluanbiko jarrita adibidez, Espuru bidean izaten zen zapa-buruz eta euliz beteriko putzuko ur epela edaterakoan.

- Hau ur hau nork edan dau.
- Aingerutxo batek.
- Zenbat bidar
- Hiru bidar (Egin nahi genituen zurruten araberan)
- Jesus, mila bidar.

Egin hiru zurrutadak eta ez genuen ez isipelarik eta ez kalenturarik izaten. Hor-tik behintzat!

Solfeoa sakristian ikasten zen baita, eta abes-saioak koroan, hasi gregorianoaz, eta Hilarion Eslaba, Goikoetxea, Palestrina, Vitoria eta nola ez Perossiren Pontifi-kala buruz, organista Usandizaga zelarik.

Eskoletatik dotrina kendu zenetik eleizako emakumeen aulki txikietan ikasten zen buruz dena euskeraz.

Dantza lotuak debekatuak zeuden eta Udalaren baimena lortuz gero, Alkur izan zen lehenengo aldiz enparantzan gramola jarri eta "Marcial Lalanda" pasodobleaz estreinatua zuena, dantzari (mutilei) kobratu ahala paparrean txarteltxo bat eran-tsiz. "Hau Mundrauek'o bandia baino hobia dok" genion elkarri, eta "etxok kioskorik pe bihar".

Ameriketan bertan ere ez zen oraindik Telebestarik.

Arkarazoko jaietan, bertako Don Remigio abadeak, ez zuen zerutik beste inspi-raziorik eduki, hartu gurutzea eskuan eta banan-banan plazako dantzari bikoteak bereizten hastea baino. Egunkarietan parregarri jarri zuten.

"Mariaren Alabak" Bazkundeko neskaren bat dantza lotuan ikusi zutela eta egiaztatuz kongregaziotik at gelditzen zen.

"Luistarrak" zen mutil gazteen eleiz-erakundea.

L.– *'Jesus eta Jose monagilo izan ziren batera eta bata bestearen ondotik.*

Eta monagilotza amaituz, Jesus Luistarretan sartu zen.

Jorge Agirre eta XX Eguibar sermolari bikainak izan ziren Luistarren bihotzak sutan jarri eta gazteen artean baita euskal zaletasuna pizten zutenak. Gero Fran-coren garaian biak baita Ertai Ameriketara atzerritatuak.

Ikastetxeak itxiarazi, eleizak erre eta Jesuitak Espainiatik kanporatuak izan zirenetik, bai erlijioa eta bai euskera bata bestearen lagungarri bilakutu ziren, arazoa bat bera bailitz, elkarrekin txertatuak.

Hortik ikusiko dugu esan denez JesUs bera ere Luistarretan buru eta Batzokian ere idazkari edo administrazioaren arduradun.

Erabat zegoen Jesus harrapatua. Herrian, bestela ere, ez zegoen inondik erakartze haundirik: "Zaraiaimendi" futbol taldea, kuartelakin batera eraikitako bolaleku dotorea, "baten parra bi baietz" apostuak, ondoko frontoia, eta tabernak.

Kuartela eraikitzearen aurkako karta zuen Jesussek egunkarian idatzia (1933).

POLITIKA

Gerra aurretik Batzokia ez ezik "Centro Republicano" edo "Casa del Pueblo" ere bazen Elizaren aurre-aurrean. Karlista asko eta gogorrak izanarren, ez zeukaten "Circulo Carlista" egoitzarik. Hauek lehendik zeudela armatuak esaten zen.

Jendez, gutxiengoa sozialistek zuten, kanpotik etorritako gehienak Atxabaltarren batzuen gidaritzapena, eta zegoen langabezia ez galtzekorik ere ez, ezker-eskubi arteko aldarrean, zaila zuten beste ametsik, iraultzarena ezik; eta erlijio eta politikazko nazionalismoaren kidetasunetik bazterreratuak sentitzen zituzten beren buruak.

Viva Rusia! Hau zen orduango langilogoaren paradisia eta hori zen beren mitin, greba eta maiatzaren 1eko egunetan ukabilak jasoz entzuten zitzaizen ohiva.

Bada esan beharrik lehendabiziko etorkinen artean izan zirela batzuren batzuk herriaren izakerara moldatu, bertaratu eta euskaldundu zirenal ere.

Bai autobus eta bai txirrindulazko harat-hunateaz Arrasate eta Atxabaltako langilegoa oso nahaspilatua zen eta han eta Eibarren sozialistek zeukaten indarrak eragin handi zuen ingurunean eta baita Aretxabaletan ere.

Hautezkundeetan ere ikusi ohi ziren auzoetan botorik eman ez zezaten, eibartarren batzuk autobusez etorriak, pistolak eskuan, baserritarrak mehatxatzen. Hala erahil zuten Bergarako plazan bertan karlista bat.

Giroa bizia zen.

Eta 1934ko urrian lehert egin zuen Asturiasko deitzen den iraultza eguna.

Gasteiztik beherantz, Aretxabaleta gaudituz, soldadu tropelak Arrasatera sartzear erahil zituzten "gorriek" Marcelino Oreja, Dagoberto Resuzta industrialariak eta Eugenio Durra langilea, eta Ricardo Azkoagak zauritua ihes egin ahal izan zuen.

Eibarren, Carlos Larrañaga, Aretxabaletako hiru apaizen anaiaren erahilketak ere asko ilunagotu eta zatitu suten herriko egoera politikoa.

Hainbat Atxabaltar izan ziren ondoren espetxeratuak bai, Nafarroan, "San Kristobalen" eta bai Donostiako "Ondarretan".

Igandero dirubatzte bat egiten zen horien alde.

L.– "Gurean, Jesus ezik, besteok ez genuen inolako politikazko nabarmenik. Bizkaitik etortzen ziren batzuk eta herriko Lukas txistulariak Kale Barrengo etxeazpi batean euskal dantzak erakusten zituzten igandetan eta Joxe eta ni hara joaten ginen".

GERRA

Espanian 1936ko hauteskundeak eskubitarrek galdu eta "Frente Popularrak" irabazi

zituztenik are gehiago garraztu zen bizikidetasuna.

Aretxabaletan, alkate E.A.J.ko alderdikidea, Pedro Jauregi, Garagartzarra zen.

Gerra usaia zen nabari bazterrik-bazter.

L.— *"1935-36an Jesusi, soldaduxka egitera, Santanderrera joatea tokatu zitzaion.*

Garai hartan Bergaran egiten ziren instruzioaldi batzuk gero soldatuxka aldia laburtzearren, eta horiek eginez gero alde egin zuen Santanderrera, eskuan Eginogotzaiarenganako gomendio-kutun bat zeramalarik.

Manuel Azañak, Espainiako Presidenteak, militarrek zeukaten boterearen eta matxinadaren baten beldurrez, hau makaldu eta ahuldu nahian, neurri batean kuartelak arindu egin zituen, hainbat eta hainbat soldadu, eperik gabeko baimenez etxera Jesusi ere hala etxera itxultzea tokatu zitzaiolarik. Bitarte horretan egin zuen eztanda hain zuzen ere zoritxarrezko gerrak".

Erahiltzeko botere gehien daukana izaten da beti garrateen irabazle, ahal den eta gehien erahiltzeko hornituen daudenak dute beti arrazoia.

Ez du beste ezerk horrek baino gehiago balio. Gerra gerra da, hilka egiten den politika. Bestelako hitz eta argudio guztiak uzte) eta indarge bilakatzen dira. Gerra ondoren, galtzaile izan direnen artean, ixiltasun eta beldurraren odei beltz astunak hedatu eta nagusitzen dira. Bakoitzak bere malkoak irentziz bakardadeko izkutuan auznartu beharko ditu bere atzekabeak.

Urte askotako ixiltasun luzea, luzeegia eta urteak joan eta urteak etorri, belau-naldi berri baten sortzapenaren aurrean ere gurasoak erreta, bakearen aldeko etsipenean, gorrotoaren iturria hertsituz etxean ere isilik; eta itxiltasunetik ahaztera pasatu bat besterik ez.

Bizi beharraren beharraz, bakoitza berera.

1936 urtea. Udazkena. Haizeak astindu eta erauzitako gaztain orbel orixkak lurreen; uso pasak mendi gailurretan eta tirokadak troketan.

Lau atxabaltar afusilatua, Isidoro Garcia Etxabe, Felix Alberdi Ceberio, Bitoriano Akizu Izurategi, Saturnino Sanguillo Etxebarri, Debagoian 89, izan ziren afusilatua hainbat eta hainbat frontean hilak eta beste zenbait, herrialdean bertan edo bonbaz, bala galduaz; sendiak zatitu eta deseginak; espetxeratuak...

"Ante Dios nunca serás un soldado anónimo" zioten fazistek, beren aldarrikatze-tan. Besteak ziren anonimoak; ez kanpai, ez eskela, ez gurutze, ez hilobi eta ez hiletarik. Eta agian, guzti horien ondoan, ixildu eta anonimoen bat, JesUs Peña.

Latxaga Jaunari esker ezagutu ahal izango dugu atxabaltar gazte batek euskal kultur arloan eskaintzen zuen esperantza oparoa eta bere eskaerari zor zaio gogo oneko ikuspegi zabalago batez, JesUs eta sendiaren aipamen berezia egitearen arrazoia.

Jesusi barkatu ez zizkieten pekatuak bere kristau gizatasuna eta euskerarekiko atxikimena. Azkeneraino jarraituko zioten, zeren, JesUs ez zitzaien konbeni ez bizi eta ez hilik; horrela gelditzen zen izkutatuaren "missing" desagertua.

Aretxabaletan, Jesus Peñak soilik euskal kultura ikuspegitik begiratzuz, horren gazte, Atxabaltako eskola-ikasketak bakarrik soinean, Loramendi kenduz, agian beste inork ez bezala agertu zuen gizatankera eta aurreakoitasunagatik ondo du merezia atxabaltarren aldetik ezagutze bat.

L.– *"Jesus baimenez etxean zegoelarik egin zuen gerrak eztanda eta berehala Udaletxean agertu zuen bere burua edonolako zerbitzu egiteko prest.*

Hemendik, Aretxabaleta eta Araotz bidean dagoen Andarto aitz-tontorrera bidai zuten beste lau lagunekin handik Arabako zabaldiko mugimenduak zaindu eta urritizkin zerbitzuak tresna tu zitzaiz.

Francotarrak herrian sartuz gero (1936-IX-23) herriko jende gehienak bezala alde egin eta "Saseta" batailoan aritu zen gudari.

Bere azkenengo eskutitza Gurutze Gorriaren bidez, Frantziatik zehar jaso genuen, ondo zebilela eta halakoak esanaz.

Reinosako mendietan erori zen zauritua JeCis agian egazkin-eraso batean. Han gelditu ziren zenduak Atxabaltako Felix Urrutia (Dendabarri), Candido Arregi, Fakundo Alzola eta Bonifacio Alberdi.

Santanderko Hospitalera eramana izan zen Jesus, 'Adur onekoa duzu zauria' zioten Hospitalean.

Hor zegoelarik sartu ziren italiarrak Santanderren eta oso ondo zaintzen zuten.

Ehun bat mila euskaldun zeuden bilduak egun haietan Santanderren eta horien artean Maria Urzelai, atxabaltarra. Honek JesUs Hospitalean zegoela jakin zuen bezain laster egin zion ikustaldia. Ondo aurkitu zuen.

Jesusek hambost egunetan, bere barne erropak aldagabe zituela eta ia, mese-dez, aldagarriren bat eramango liezaiokeen erregutu zion.

Biharamonean, joan aldagarriaz eta Jesusen ohea hutsik zegoen. Ez genuen beste berririk jakin, Mariarena baino. Alferrikakoak izan ziren guk zerbait jakitearren eginiko kideaketa guztiak.

Karlista zela eta etxean bizikide genuen osaba Joxerekin joan eta galderek ez zuten inon erantzunik. Ez zen ezer garbirik ateratzen. Denak ziren ezjakin eta mutu. Jesusen desagertzea 1937ko abuztuaren 29an izan zen. Frankotarrak Aretxabale-tako Batzokia harrapatu eta han araketan ari zirela Oinatiko ofizial batek, JesUs Peñaz galde egin omen zuen (Hala entzun omen zion Txomin Aranak).

– JesUs, herritik alde egina da– erantzuna.

– Bada, ez da herrian sekula bere oinez sartuko izan zen mehatsua".

Ulertezin eta sinisgaitz gertatzen dira gerrateetako gizakien ankerkeriak eta areago herritar eta ezagunen artekoak.

Norbaitzuk, Francoren aldeko izanik ere, ikaraturik gelditu ziren handik edo hemendik afusilatuen berri jakin zutenean.

Informe txarren batzuen erruz hutsegiteren batzuk izango ote zirelakoan, agin-tariengana gomendio egitera joan, eta burumakur eta mutu itzuli behar izan zuten beren etxe zuloetara.

Ondo zekitela agintariekin zer egiten ari ziren eta pregoia jo zuten herrian, hurrengo norbaiten alde erreguka zihoaztenak beraiek izango zirela atxilotuak. Pertsonarik zuzunenak bilakatzen zitzaizkien beren asmoetarako okerren eta kaltegarrien.

Ez ziren ustegabeko itxutasunean tirokatuak; aurrez zituzten berean armen ikuspuntuko begian jarriak.

Gerraren legeari jarraituz, ezin Zen gelditu halako txikikeri eta samurtasunetan. Gerrak aurrera ekin behar dio.

L.– "Jesils desagertu eta hogeitalau egunera izan genuen (1937-IX-22) dei ofizial baten bidez, Jose anaiaren eriotzaren berri eta Joxek berak ere, doi-doi, Llansenen, Asturiako frontean zegoelarik bere azken egunetan jakin zuen Jesusen eriotzarena. Gerrak soldaduxka adinean harrapatu zuen baita Joxe eta Iruñean "Regimiento america 23"an izan zen erroldatua 1936 urtearen azkenaldian eta berehala, Francoren aldeko frontera asturiasera bidalia.

Ez zuen beste inolako berririk ematen mezuak; ez gorpua non izan zitekeen obitratua; ezer ez; agian piloan lurperatuak...uztelak etxekoen lehlak zerbait gehiago jakin nahian.

Gure amak gogor egiten ziren apaizei Joxeri elizkizuna egiten baldin bazitzaion Jesusen aldekoa ere egiteko eta bie batera egin beharko zitzaizela gainera eta bestela bati ere ez.

1937ko abenduaren tean izan ziren bion hiletak eta hain zuzen ere, ondoko txartelean agertzen denez, merkeago Francoren aldeko frontean hil zenarenak, Joxerenak, Jesusenak baino.

JHS

Cuenta de las exequias celebradas en esta parroquia de N.S. de la Asuncion los dias del pasado Noviembre y I del corriente mes de Diciembre de 1937, II año Triunfal, en sufragio de los difuntos hermanos Dn. Jes us y Dn. José Peña y Echeverria Q.E.P.D.

FUNERAL de TERCERA clase de Jesus	75,50
NOCTURNO de TERCERA clase de Idn.	40,00
FUNERAL de TERCERA clase de Jose	34,00
NOCTURNO de TERCERA clase Idn	40,00

Total 189,50

Arechavaleta a I, de Diciembre de 1937. II Año Triunfal.

(sinadura)

"Bihar zer egingo duen dakienak asko daki" dio gure esaldi zaharrak. Zaila benetan gerraren ilunpean biharko egunak ekar dezakenari antz ematea.

Egun bakoitzari berea.

Eta ez dagoela bi hirugarrenik gabe eta Lorentxo hurrengo:

L.– "Hamazazpi urte nuen nik gerrak harrapatu ninduenean eta AZBEn nenbilen lanean.

Gorroñobeitia arrasatearra hasi zen gerrarako jende bila eta nik, Luis Arregi, Santi Lonbide eta beste batzuek oldezko eman genuen izena.

Aita eta ama zaintzea beharko zuela izan nere egitekoa. -gero hala gertatu zenez- eta izugarrizko errieta egin zidan Jesusek.

Francotarrak herrian sartu zirenean etxean gelditu nintzen.

Ezin zuten hauek, paisanorik eta areago mutil gazterik eskuak sakelean eta kalean ikusi.

Egun batez, Burgalesen tabernan sartu eta hor ari nintzen solasean. N.L.kin, neurria hartu beharko ziola edateari eta kontseilari, gehienetan bezala erdipurdi bait zegoen orduan ere.

Bat batean bost falangista sartu eta ohi zutenez "Cara al sol" abesten hasi ziren.

Dagoeneko ikasiak zeuden denak zer egin behar zuten halakoetan: zutitu, besoa altxa eta tente egon beharra.

Hamabosten bat lagun izango ginen tabernan.

Abesten amaituz, ofizial batek lepotik heldu eta "berriz ukabila ikusten badizut, nerea sartuko dizut ahotik" esan zidan (Arco tenientea zen).

- Nik ez dut eskurik ukabildu. Ex dut halakorik egin (eta egia zen).

- Ez niri hori ukatu, lau tiro emango dizut eta.

Ni isildu eta etxeruntz. Ohartu nintzen komando falangista, agian non bizi nintzen jakitearren atzean nuela.

Oheratu eta ordibiterdiak aldera, non Joxe anaiaren gela zenekoan zaratak. Ni jeiki eta "Zuek nere bila zatozte, ni bait naiz arratsaldean Arco tenientearekin ezbeharra izan dudana".

Nire gelan sartu ziren. "Hauxe da. Jantxi ezazu arratsaldean soinean zenuen jersey bera eta aide gerukin".

Okerrena pentxatu zuten etxean. Bat atzeratu eta "ez izan beldur" esan zion Kristinari. "Izutu dadin" egiten dute. Hala zioten beti.

A/V Kristina zerbait entzunik edo kanposantura zeramatelakoan gelditu zen. Haruntza gindoazen.

Kanposanturako bidean zen baita "Guardia Civiren kuartela eta Lorentxo, horra erameten zutelakoan.

Kuartelera hurbiltzean, motorista bat gelditu eta Quijosa Plazako Komandantearen aginduz Udaletxera behar izan zuten itzuli. (Udaletxea Komandantziaren egoitza bihurtua zegoen).

"Zer da gertatzen dena?" galde egin zion Quijosak, Oriamendi Terzioko Komandanteak. Arcok nik ukabila jaso nuela.

Nik ez zela egia.

Lekukoari dei egin (hau Quijosaren txoferra zen) eta honek besoa jeisteran ez ote nuen eskua biribuldu...

Ni berriz ezetzean.

Eskerrak Santos Eizaguirre han zogoelarik. Nik uste hura izan nuela arartekorik onena. Lana non egiten nuen galdetu zidan. "AZBEn".

Arcosek irtetzerakoan "kontuz hurrengoan edariaz". Bera zegoen mozkor. Arratsalde hartan nik ez bainuen ezta ardo tanta bat ere edan.

Arco, azken batez, mendeko ofizial bat besterik ez zen eta bere aterabidetzat, herriko behartsuenen alde, Erretorari berrogeita hamar pezeta emateko isuna jarri zidan.

A itarekin joan eta bilete berde-berdea Parrokoak hartu egin zigun.

Ai² Kristina nere arreba lanetik etxera zetorren batean, herriko "Jefe Lokalak" (alkatea) dei egin zion.

Nire ama garai hartan erdi erobiatua zebilen minaren-minez eta agian ez zen isilik egongo.

"Esaiozu amari kontu gehiago izan dezala bere maiseoaz, okerragorik gerta ez dakizuen nahi baduzue behitzat. Badakizu".

Kristinak ez zuen etxean ezer esan.

1937ko maitzaren 31 n hasi zuten frankistek Bizkaia alderako eraso. Etxean nintzen irtezeko beldurrez.

Fronteruntz, lau asto sendakiaz zamaturik zeraman batek ikusi ninduen eta esan zidan: "Nik ezin juat eta jatxi hadi laguntzera"*

Antzera gertatu zitzaion Eugenio Zubizarretari ere.

Hirurehun metro gutxi gora behera mandazaina ustegabez desagertu eta biok bakarrik gelditu ginan astoekin edo eurek geurekin.

Malkorretik gora gindoazela, -gaizki lotua izan beharko- zama guztia lurrera erori, guk dena bertan behera utzi eta etxera etorri ginin.

Handik orduterdira edo, gudarozteko ofizial bat nuen etxean.

"Jantzi eta nerekin behar duk etorri".

Astoak zamatu eta berriz, fronterutz, Krutzeta alderuntz abiatu ginin; bide luzea. "San Ignazio Terzioko" asko ikusi nituen lurlean zaurituak edo erdi-hilak.

Euri zaparrada zen. Ni abarketaz. Soldadu galiziar batzuk botak eman zizkidaten. Larru gogorra, astunak, gaizki eginak; kendu eta ortutsik lau gau eta lau egun egin nituen etxera osteratzean. Krutzetatik Gatzagara. Hemen, "Arrupe" baserriko ganbaran lotarako sartu ginenean, tabaku pakete piloak zeuden belar artean gordeak, milizianoek beren ihesian utziak. Paketeren batzuk hartu eta abiatu nintzen Atxabaltara.

Sorospen laguntzetan aritu nintzen, gero andalari; bestealdi batean baita ere Durangon kanposantu aldetik Montorra aldeko errepidera zauritak ateratzen.

Lantegi guztiak militarizatuak zeuden, eta berriz AZBEn lanean ari nintzelarik izan nintzen ofizialki soldaduxkara deitua, Gasteizera "Flandes Erregimendura".

Legea zen bi anai soldaduxkan (eta hilik areago) hirugarrena libratzearena zela esaten zuena.

Iñazio Aguirregabiriak hitz eginik, Felipe Alberdi, Berriz-Olakuetakoko alkateak hartu zuen esku nere alde.

Honek ere nere aita oso begiko zuen, eta nire arazoa jakin bezain laster, nerekin batera Plazako Komandantearengana, Camilo Alonso Vegarengana zuzendu eta honen bulegoan, ia nire alde zerbait egin zezakeen errugu egin zion.

Legea hirutik bat libratzea zela eta "mutil honek libre behar du; paperak betetzea besterik ez zegoela! Esan zuen lehenengoan Alonso Vegak.

Baina, Jesus 1935ko kintakoa zenez Santanderren izan zela desagertua edo hila eta ezin izango zutela honen eriotzaren egiaztapenik agertu, Alberdik.

- Gorriekin hil zela esan ahal du? Bada hemen ez dago ezer egitekorik.

Jesus ere, azken batez, Ejerzitoak beharturik joana zela, esanarren, dena zen alferrik.

Zortzi egunera Teruelgo frontean nintzan, hango saldadu zaurituak edo galerak ordezkatzan eta Terueletik Levantera. Han ginen mendate zabal batean denok sakabanaturik eta nire bila eta nitaz galdetzen ari zirela esan zidaten.

Teniente Tapiaren laguntzaile bat etorri zitzaidan, galdetuz: "Zu Lorenzo Peña ahal zara? -Bai"

Honek Tapiarengana aurkeztu ninduen. Oso begikor zegoen. Gasteiztarra zen et oso abegi onez hartua izan nintzen.

- Burgosko Komandantziatik zu libre uzteko agindua eman didate. Gaur bertan Villarrealetik Gasteizera doan Kamioi batean joan zaitezke.

Komandantearen laguntzaileak salbokonduktoa eta beste gutun bat eman zizkidan bidean edozer gerta edo beharrik izanik ere laguntza emana ziezaidaten.

1938 irtea zen.

Felipe Alberdiren bitartekotasunari esker izan zen nere libratzearena.

Alonso Vegak Gasteizen uko egin bazion ere, Alberdik tenkor eta ausarti Burgosko Kapitaniara jo zuen, Lopez Pinto Generalengana: "iBerehala batean beharko du izan Lorentxok etxean" honek.

Eskerrak honen zindotasunari, uztailan, berriz etxean nintzen eta nola ez, lanean AZBEn.

Gerra ondoren, etxeko negar malkoak agortuak; gosealdiaren estutasunak nondik nora arindu bakaitza bere lanean; aitak "Etxebarrixeta" inguruko baratza zerraion".

Politikaz lehen gutxi edo ezerrez eta ondorengo urteetan erabat etsimenduak.

"Gorrotok bihotza sumintzen; asetzen ez" da esaldia.

L.- "Izan behar orduan ere eta ez hurruti bekaizkeriz eta gorrotok asetzen ez zirenak. 1947 urtea zen.

Euskalerrri osoan Francoren garaiko lehendabiziko greba. Aretxabaletar bat baino gehiago izan ziren atxilotu eta Ondarretan espetxeratuak: Ramon Antxia, Julio Oteiza, Cefereino Agiriano, Felix Ugalde, e.a. eta baraien artean ondo erreta, bat bederen ezertan busti ez zen Nikolas Peña, gure aita.

Berrogei egun egin zuen espetxean. Hori izan zen bere pairu gorrien saria".

Jesus Peñari zor zitzaion ohorez, barneratu ahal izan dugu bere etxean; eta Atxabaltako beste etxe askotatik egin generzakeen bezala Peñatarren etxeko lehia-tilatik, urrun xamarretik, atera diogu Atxabaltari eta azkena izan nahi genukeen gerraldiari, beltz-zurian, argazki xume eta ilun samarra, Atxabaltak merezi ez zuen bezalakoa.

L. Peña eta J. Atxa

21.2. ARETXABALETA XX MENDE HASIERAN

XX. mende hasierako Aretxabaletak ba du gaur egungoarekin (1999) konparatuz ezberdintasun nabariak, 100 urte igaro baitira.

Lehenengo estruktura berdina mantentzen dute hiru kaleek (gaurko Hirigune Historikoa), baina eraikitako bolumena eta jasotako garapenak, batez ere azken 40 urtetan, herria zeharo itxuraldatu dute, mende hasierako begiek ikus zezaketenarekin konparatzen badugu.

Abiapuntutzat 1900. urtea hartuko dugu eta lehen mende laurdenean gertatuko/emandako ekintza eta gauzei hurbilduko gaitzaizkie.

Denok ezagutu dugun eta ezagutzen ditugun "Hirigune Historikoko" kaleen izenak mende hasieran ipinitakoak dira, 1898an aukeratutako Udalbatzaren eskutik eta Jose Luis Arana Narvaiza alkate zelarik. Garai hartan San Migel Kalea edo Kalebarren, Kale Nagusia, eta San Martin Kalea edo Kalegoien, Otalora, Duran eta Mitarte kaleak bihurtu ziren, herriko seme ospetsuen izenak hartuz. San Martin kalea Urgutxi/Errekaxo zubitik Eskoriatzaruntz doan kalea da.

Herria/kalea, iparraldetik, Porrakua baserrian bukatzen zen eta beherago, Arrasateruntz, eta Erret Bideak erreka gurutzatzen duen ezkerrekaldera, Santutxo ermitaren ondoan Zubikoa baserria zegoen (1994. Urtean botatakoa); 200 metro aurrerago, eskumakaldean, (Bidea egin aurretik ezkerrekaldean zegoen) Arbinzelai baserria (hau ere 1994. urtean botata).

Hegoaldera, Eskoriatzaruntz, ezkerrekaldean San Martin auzunetxea, (jada XV. Mendian aipatzen da), eskumakaldera aurreratxoago Errotabarriko errota, honen atzekaldean Markole/Malkorre baserria, zubitik Apotzaga-Etxebarrira doan bide andoan, eta azkenik, Eskoriatzako muga Landaeta baserria, oraintsu (1865an) irekitako Bainuetxearekin batera (Marianistak).

Kale luze honetan, XIX. mendean Aretxabaletari izena eta ospea emango zioten bi eraikuntza berezi aurki zitzakegun, bata Bainuetxe Zaharra, usaiñeta inguruan, 1843. urtean irekitakoa, eta bestea Otalorako Bainuetxea, hau 1867an martxan jarritakoa. Kanpoko jende ugari biltzen zen Aretxabaletan sasoi haretan, madrileñoak gehiengo osatzen zutelarik; honen ondorioz bere izena/toponimoa gorde duen ingurua ere ba dugu, Portasol.

Erret Bidearen inguruan bildutako biztanle kopuruari baserrietako gizon emakumeak gehitu behar zaizkio, eta horrela, 1867 biztanle kopurura helduko ginateke. (1999an, 6.140 biztanle).

1900. urtean Aretxabaletan Hospitala zegoen. Udalak bertako zaintzaile lanpostua beteteko deialdia egin zuen eta, honekin batera, hurrengo urteko aurrekontua onartu zuen, guztira 16.664 pzta. Garai haretan dirua urri xamar erebiltzen zen, baina ziur asko Gabonetan jendeak gehiago gastatuko zuen, zeren eta Udalak eskuzabaltasunez jokatzuz, taberna ordutegia gaueko 11ak arte luzatu zuen

Behin ilundu eta gero jendea etxeetara erretiratzen zen lehen baitlehen, kaleak inongo argirik gabe, oso atseginak ez bait ziren. 1901. urterarte itxaron behar izan

zuten atxabaltarrek argiteri publikoa ikusi ahal izateko; hamalau lanpara jarri zituzten eta urteko argi kostua 400 pezetatakoa zen.

Hobakuntzekin jarraituz, ba dakigu 1903. Urtean kanposantua zabaldu eta konpondu egin zela. 3000 pzta. aurreikusi ziren lanetarako eta lanak garestitu ez zitezien, bolondres lana derrigortu zen. Zer esanik ez, batzuk protestatu egin zuten.

Urte honetan, 1903an jarraitzen dugu, Arrasatetik igorritako berri bar heldu zen: monjak euren egoitza aldatu eta Aretxabaletara etorriko zirelako. Beste egarri erlijioso bat nabari zen garai haietan, eta jendeak bi meza bakarrik entzun zezakeen jai egunetan. Udalak arazo hori konpundu guran 250 pzta. Jarri zituen eta Gasteizetik beste norbaitek bidalitako limosnarekin batera, atxabaltarrek hirugarren meza entzuteko aukera izan zuten.

1904an Monjak heldu ziren eta udalbatzak kontratua sinatu zuen beraiekin, egoitza eta klaseak San Martin izeneko etxean izan zituzten. Kontratoak zazpi urtetako luzapena izan zuen.

Bixente Garzia-Etxabe, eskoriatzarrak, Durena kalean zuen etxe batetan sagardotegia ireki zuen. Horren aztarnak, oraindik ere, Durana kaleko 15ean ikus daitezke.

Mediku lanpostua ez zen oso erakargarria garai hartan eta berehala alde egiten zuten. Postua betetzerakoan, medikuntza ezagupenak eskatzen ziren, zer esanik ez, baina baita euskeraz jakitea ere.

1905. urteko ekintzen artean kultur arlokoak aipatuko ditugu. Parrokiak, eta bere izenean parrokoak, "Armonium" berri bat erosteko diru laguntza eskatu zion Udalari; gaur egun entzun dezakegun "organua" da.

Andramari jaiak heldu eta Udalak musika estiloa aldetzea erabaki zuen. Gonzalez-Tablas Generalari karta idatzi zioten militar musika eskatuz, eta honek 20 musikari bidali zituen, zuzendari eta ofizial baten agindupean. Gogara dezagun Tablas Generala Aretxabaletara sarri etortzen zela bainuak hartzera eta bertako emaztea zuela.

On Pedro Biteri, filantropo arrasatearrak jada hasita zegoen inguruko herrietan Eskolak irekitzeko laguntzak ematen, eta Aretxabaletari ordua heldu zitzaion. 1905ko abuztuaren 16an, lehen harria jarri zuten eta Gonzalez-Tablas saiora gonbidatu.

Baserri auzoetan erloju faltan aurkitzen ziren, eta Azatza, Larrino, Korueta eta Areantzako baserritarrek karta bat igorri zuten diru laguntza eskatuz. Erlojuak 1.100 pzta. Kostatzen zuen eta Azatzen jarri zen "porque es c trico de todos".

Urte bete lanetan pasa ondoren, 1906an Eskola berria inauguratu zen. Udalbatzak herriko seme ordekotzat izendatu zuen Pedro Biteri eta lehen Iturri Plaza zenari Biteri Plaza izena jarri zion Eskola enparantzaren bukaeran kokatuta zegoelako.

Obra urtea zen eta Koruetako apaiza zen Valentin Maidagenek diru laguntza eskatu zuen dorre berria jaso ahal izateko. Dorrean, bertan, ikus daiteken data garaioko lekuko dugu.

Hainbeste lan ondoren udaletxeari diruak ahitu zituztuz eta zorpean sartu aurretik Andramari jaietako musika kendu zuen.

Udalak ba zekien kanpoan (Probintzian, Euskal herrian) gauzak aldatuz zihoazela, beste kezka batzuk azaltzen ari zirela, eta erabakigunetan egotea komenigarria zenez, Alkate-ordea zen Juan Alberdi, Foru Aldundira bialdu zuten Aretxabaletako Udalaren oneritzia azaltzen, Kontzertu Ekonomikoaren oinarriak egingo zuen Batzordeari.

1907ko aurrekontuak jasoera bat azaltzen du eta nahiz eta 1000 pzta. Gehiago egon, halata guztiz ere, ez zuen zulo guztiak betetzen. Urte hartan ez zen suzko errugerarik botako eta horren diruaz, gehi gazteek jarritako 125 pztekin. Gipuzkoako Infanteriako erregimenduko Banda ekarri zen Bandak 300 pztako kostua zuen. Bainuetxeetako asuntoak ez zihoazen oso zuzen, jende jeitsiera nabaria zen eta baineroek (Aretxabaletan ohizko lanbidea) irabazi murrizak zituzten.

Gogoan hartzekoa da, jadanik 1904an Aretxabaletan "Sociedad Unión Sportiva" bat ba zegoela, eta honek herrian ospatzen ziren txirindulari lasterketa guztiak antolatzen zituela.

Trena ere ba zetorren eta laster Gatzaga-Osintxu zatia bota zuten. Udalak karta bat igorri zion Aldundiari, Aretxabaletan, bertan, geltoki bat jar zezaten. Bestalde, Mateo Azpe botikarioaren ordezkapena egiten Pablo Urtubi etorri zen.

1914an Lehen Gerrate Mundiala piztu zen, eta udalbatza Osoak, Munduko Bakearen alde antolaturiko elizkirunetan parte hartu zuen.

1915. urtean, Gregorio Arregi, Markoleko, alkete zelarik, eta Salustiano Uribe-txebarria harginaren agintepean, Markoleko harrizko zubi berria egin zuten, zahar-raren orde. Normala zenez, Udal diruak urriak ziren eta gastuak betetzeko hainbat zerga ezarri ziren; hala nola sagardo litroko zazpi (7) zentimo, eta bi (2) zentimo gaseosa botilako.

Urtebete beranduago zinea heltzen da Aretxabaletara, José Rocamoraren eskutik; Andramari egunean lehen aldiz ikusi ahal izan zen pelikula bat Aretxabaletan. Ez dakigu sarreraren prezioa, baina ezin oso handi izan, kontuan hartuta langileak eguneko 3,25 pzta. Kobratzen zuela.

Hamar urte lehenago piztutako izpiritua berreskuratu zuen Udalak eta horrela, Foru Aldundiari karta bat igortzea erabakitzen du; bertan Autonomiaren aldeko lanetan sakontzea eskatzen zaio, "la autonomía de las cuatro provincias hermanadas".

Kanpai hotsaren bitartez iragartzen zen hurrengo eguneko eguraldia.

Dirudienez trena heltzeaz dago eta Udalaren geltoki eskaria kontuan hartu denez geltokirainoko bidearen lanak egiten dira.

Hurrengo urtea, 1918. Urtea garrantzitsua izan zen Euskal Herriko kulturarentzat, Oñatin Eusko Ikaskuntzaren Lehen Batzerrea ospatu baitzen, Aretxabaletako alkatea bertan egon zen partaide gisa. Bestalde, Udalak, 1839.eko Foruen deuseztapen Legearen aurkako bere protesta azaldu zuen.

Antxia'tar Aitor

21.3. JESUS PEÑA (1915-1937) IDAZLE GAZTEA SU-IZKILLATUA

Izen aundiko idazleak, len ondo egiñeko lanen gizonak, Jesus Peña'ri buruz mintzo dire, esanez gazte au, errietako korresponzal bat dela; onek esan nai du errietako berrien idazlea edo berri emallea.

Elertietan edo idazmalletan, erriko berri-emallea gai ariñaren egillea da, benetan idazle soilarena. Ikerketa au amaitu ondotik, idazleak diotena Josu Peria"gaz ez dela ain zuzen esana, oartuko gera.

Bai egia da gazte onen idazlanak, gutxinaz aipatutako erriko mailla orretan, erriko berri emaille baten lanak ditugula, baña ikusiko dugunez, iritzi au, ez digu gurea, bakarrik, egiten.

IRITZI ARIÑAREN AURKA

Jesus Peña'ren elertiari buruz, gaur arte esandakoa, nai ta naiez aldatu bearra dago. Mutil gazte onen ikerketak agintzen digute ori egitea.

Emen eta an, al genuen tokian arkitutako idazleen ikerketak beste doñu bat jotzen dute.

Dena dela beste iritzi bat iristera beartzen gaituzte.

Gure idazle au oso gaztea dugularik ogeitabi urte ditu, garai artako egunkari ta aldizkarietan lanean dabil. Bere lan oeik, garai artako aldizkari ezagunenetan agertzen ditu. Adibidez "Gure mutillak", "Euzkadi", "Argia" eta "Eguna" Ez ote da geiegi-txo bere adiñako gazte betantzat?

Naiz erri koxkor baten berri emalle bezala agertu, bere bizitzan lau urrats nagusien giroa ta buruaustak azaltzen ditu, baita ere idazle trebe baten esku ona.

Erabillitako gaiak, gutxi gora bera lau dira, garrantzi paregabekoak egun aieta-rako. Garai artako edestiaren muiña ondo ezagutzen du, oso gazterik asita, indar aundiko idazle baten aurrean gaudela aitortu bear.

Berez etorkizun eder baten idazlea dugu gure eskuartean. Bañan etorkizun aundiko idazlea ikusten dugula, betiko desegina uzten dute, bere gaztaroan. Erraldoia jotzen dute. Erio ori galera aundienetakoa da Euskalerrriarentzat.

Gure erriak, geienetan, erriko berri-emalleak ondo ikusten ditu. Nolako gertakizunak agertzen diren toki askotan, egutegien bidez jakiten digu; nolako egunetan alako ekintzak.

Josu Peñak erriko berrien inguru osoa gordetzen du bañan askozaz urrutiago jotzen alegintzen da. Zerbait eta nunbait gertatzen dela beste gai berexiren bat erabiltzen du, indar eta trebetasunarekin. Antxe dijoa zuzenean, nai duen bidetik barrena, gizon egiña bezala, argitasun osoa emanez. Erriko berriak ikuitzen ditu, bai, baiñan zerbait geiago emanez. Ala ba, zerbait aundiagoa arkitzen dugu Josu Peña'ren idazkietan.

ITURRI SENDOAK

Emen atal onetan sartzten ditugu, guk bildutako lan guztiak:

"Gure Mutillak" delako aldizkarian	bat	1
"Euzkadi" delakoan	zortzi	8
"Argia" delakoan	amaika	11
"Eguna" delakoan	lau	4

24

Danetara 24 idazlan zenbatzen ditugu.

Gure esker beroenak, Mari Karmen Gomez andereari, Gazteiz'ko liburuetxe nagusiaren zuzandariari eman nai dizkiogu, batez ere gai guzti auek biltzen eta billatzen alegindu delako. Ementxen, lan ontatik, ain zuzen, berriz eta berriz esker onenak ematen dizkiogu, erabaki genuen bezala. Oso eskertsu gaude emakume zuzendari langile onekin.

Gure gaiari eusten diogula, esan bearra digu, Josu Peña oso idazle ona dugula eta aberastutzen gaituna, bere garaiko kulturazko gaietan. Guk danok eredu bezala euki dezakegu. Benetan, asko ematen digu.

ETEKIÑA BILDUZ

Lenengo idazlanak Luistarren jaia nola ospatu zuten esaten digu. "Congregatio" ko gazteen ekintza oietaz mintzo da. Egun ura nola ospatu zuten adierazten digu xeetasun ugariekin.

Aita Aguirre'ren zuzendaritzapean lana egiten dute. Baiñan itzik ez erabillitako gaiari buruz. Giroa, asmoak, argibidea nolakoak izan ziren ez ditu ikuitzen ere. Gaztegia izaki ori egiteko. Gaiak, gai bezala ez agertzea, izan leike errespetuz egitea eta izatea.

Gaztedi ura, ain ederra, nundik datorren ere esaten digu. Ala dio: "Donosti'tik, Arrasate, Durango'tik datoz. Buru bezala Aita Aguirre ari da lanean, eta Antonio Murillo egunkariaren zuzendari bezala, ikusten dugu. Talde ederra daukate zuzendarien laguntzalle bezala, eta oien artean, baita ere Josu Peña.

Danen artean eunen bat mutil bildu dute.

"Gure Mutillak" delako aldizkaria 1933 garren urtean sortu zuten, "Congregatioe'kin" lana egiteko. Aldizkari au 1937 garren urtean ixildu zen.

BIGARREN MALLA DELAKOAN

Bigarren malla, "Euzkadi" aldizkarian, an argitaratutako bere idazti guztietan agertzen zaigu.

Zortzi idazlan, "Euzkadi" aldizkarian arkitu ditugu argitaratuak. "Euzkadi" aldizkaria 1913 garren urtean asten da agertzen. Aldizkariak anaiarteko guda arte irauten du.

Bi neurriko gaiak agertzen dira or: alde batetik deituko genukena gogotik aber-zaletasunaren etekiña, eta beste aldetik etsaiaren gorrotoa. Lenengo talde orretan bilduak agertuko ditugu itz eta asmo aipagarriak. **BIGARREN TALDE ORRETAN SARTUAK IZANGO DIRA GUK DEITUKO DITUGUNAK ESKUBITARREN ALDERDI MAKALA JOKABIDE ZIKIÑA.**

Gure idazle onek berri jakingarria emango digu; berak dionez, "karlistak" irabazi dute, azkeneko auteskundeetan baserrietan. Emakumeen bidez alderdiak arrakasta aundia lortu du, auteskunde oietan. Erriko semea dan LoramendUri gazteak omenaldi eder bat ari zaizkiote antolatzen.

Aberzaleen asmoak zabaltzen ari direnak Monzon, Aguirre, Prieto eta abar Konzierto Ekonomikoa ere Aretxabaletan Luistarren jaiekin asten da, aisatua izaten, "Ez dut uste iñoiz aztuko zaiela", dio gure idazleak, Jesus Peña'k.

IRUGARREN JOKABIDEA

Oraingo ataltxo onek salbazioko bideak obeto ezagutzeko aukera ematen digu. "Argia" asteroko aldizkarian agertzen dira euskaraz Donosti'n, 1921'garren urtea ezkeretik, eta 1936'garren urtea arte. Danetara amaika idazlan arkitu ditugu, "Argian" argitaratuak. Jesus Peña'k erabiltzen dun gaia "burla" edo ixeka da.

Nunbait neskak erdaraz egiten dute eta euskaraz egitea lotsa ematen die. Ez dakite oso ondo euskaraz irakurtzen, eta parregarria da nola egiten duten erderaz. "Doña Konstanzia" karlisten aldizkariaren zuzendaria, oso aserre egonen da.

Ixeka antziña garaiko jokabidea da, enda edo erri txikietan asko erabiltzen dena. Giro orretan sortuak dire izengoiti, elezar eta berri zunbait, norbait atsegín ez zenian, ondo ez uzteko besteen aurrean. Gaizki esanak gogoan artzen ditu eta bear ez direnean ateratzen, "oker eta zuzen" itzetan, dena parregarria gelditzen da. Ramiro de Maeztu toki txarretan gogoratzen du.

Itz traketsak sartzen ditu ta bersotan jartzen al dan okerrana. Orrela itzak parregarri erabiltzen ditu, gañera olerkiak, naita al dun txarrenak egiten ditu. Okerraren bidez gauzak ankaz gora deitzen ditu, baita erabiltzen. Orrela okerrak bi bider aundiagoak ikusten dire... Berez etorriko ba lira bezala gauzak esaten ditu; alaxekoak ba lira bezala.

Etsaia zapaltzeko ixeka erabiltzen zan, batez ere burua makur arazteko. Orrekin etsaia parregarria ikusi bear, makur gelditzen da itzak bear bezala neurtzen ez ditula. Frantzez itzak ere trakets erabiltzen ditu: "Vous monsieur, COMMENT LE PORTE VOUS".

Garbi ta ongi ikusi dezakeguna da ixeka egiten oso ondo dakila gure idazle gazte onek, etsaiarentzat ere beldurgarria zen ta kaltegarria, nornaikin sartzen zen Jesus baita ere Ramiro de Maeztu erdal idazlearekin. Irain egiten alegintzen da. Alde batetik bear diran itzak ezagutzen ditu, baita berri txarretan sartzen. Bi aldiz mintzo da. Berez sortzen zaio. Etsaiak zanpatzen ditu. Euskaraz itzak naiko

gordñak ez ditunian arkitzen erdal izkuntzatik artzen ditu, bear ditunak. Ikus eredu maiz gordña:

"Menos pasión Patxikote
que te veo el cogote"

Bestealdetik egia da, egunkarian, idazlanak bat bestearen ondoan datoz-tela ixeka egiten, uzten diotela argitaratzen gure idazle gazteari. Garai illun ta naiko beltzak datoztela, ez da arritzekoa orrelako etsai beldu rgarriak iltze-ko zerrendan sartzea ta eukitzea, gure idazle gaztearen garbiketa era bat lortzeko.

LAUGARREN MALLA

Bere bizitzaren azkeneko malla arkitzen dugu oraingo onetan; "EGUNA" egunkarian euskeraz lau idazlan argitaratzen ditu. "EGUNA" egunkaria, euskaraz idatzia Bilbo'n ateratzen dute, 1937'garren urtean bakarrik. Guda garaian gaude. Idazki oietan gudaren giroa nabaritzen dugu.

Idazlea eragozpen aundi oietan gizon arkitzen dugu. Betebearraren aurrean, bakarrik, ixilik dago. Alaxen giro txarraren usaia artzen du.

Barrena miñak erretzen erreztasunaren besoetan ez da erortzen. Gizon jokatzten du. Alduna aberriaren alde eta obekiena jokatzten alegintzen da. Parregarria dena baztertzen du. Azkeneraño osorik irautea da bere asmoa. Naiz barrena lertzen euki bera beti gizon, eta itzari eutsi azkeneraño.

Berri gutxi ematen ditu, barrenak nabari. Gabonetan len, sendi osoa bilduta. Eguberriak ospatzen zituzten. Idazle-izena ere aldatu diote. Emendik aurrera "Bel-tza" deituko dute. Azken gaia idazlanaren VI'garren Eibarren ostiko partidua izanen dute, jaialdi bakarra ospatuko dute. Irabazleak Aretxabaletatarrak izanen dira. Aberri eguna Eibarren, jaialdi bikotin ospatu zen. Azken idazlanak ala dio: "VI'garren Aberri eguna nolakoa izan zan agertzen dugu.

Eibarren jaialdi ederra ospatu zen: lasterketa, arrijasotzalleak, bazkaria, pelota jokaldia... illunabarrean eusko dantzak. Zaragoitia lagundiak antolatutako jaiak, zorigaitza aundiakin ospatuak izan ziran. Gazte aiek ala diote: "ORI umorea. Ementxen azken atsa..."

Urrengo urtean, Euskadi'n euskaldunak eskuak lotuta. Azkeneko izkiekin esaten zigunak agertzen du nola uste ez zuena gertatuko zan: "Guretatik ez dute iñor irail edo afusilatu..."

Bi anaiak eberdintzen ditun arazo nagusiak, karlistak alde batetik eta abereleak bestetik, auxe da: Jose Peñak bere iritzi karlistak españolistak dira besteak ez.

Orren aurretik auxe esaten zuen: "Gure anaiak ba datoz gurekin euskotarrekin". "Paxistak eta karlistak", anaiak deitzen ditu..." Nik uste det pasatuko dirala geiago alderdi ontara..." influentzi puxka bat ba degu "paxista" artean, ba asko gure anaiak dira..."

Ementxen ikusten ditugu amets-legor (utCpico) Josu Peña'ren gogoetak; aurren, karlistak anaiak bezala artzen ditu; aberzaleen alde irristatuko dirala uste du; irai-

llak betiko legor izanen diren, egitazko giz-jokabideetatik oso urruti bizi da. Tamalgarria. Goizean goizeko otzarekin, etxetik ixillik aterata, erbia bezala garbituko dute ogeitabi urteko mutilla, gure idazlea JOSU PENA.

AZKEN XEETASUNAK: IDAZLEEN ARTEKO IKUTUA

Obeto ezagutzeakin gure idazlea, xeetasun garrantzi aundikoak aztertu bearko ditugu.

21.4. EUSKERA

Danez gain esan dezakeguna auxe da: erabiltzen duen euskara guipuzkoarra dala. Bai lexikoaren aldetik bai izkuntzaren itxuragatik, arpegiari begiratzuz.

Gañera aditzak ere ba du berexitasun aundi bat.

"Aitza" itzarekin bere idazlan guztiak izenpetzen ditu.

"Peña" itzak erderaz orixe bera esan nai du.

Euskera oso garbia erabiltzen alegintzen da.

Ba dauka egokitasuna ta txinparta. Bereixten du oso ongi bere izkuntza, Joskerari asko begiratzen dio.

Ementxen, orian aurreratzen ditugu eredu eder batzuek esateko ematen diskiguten ikusiak.

"Ederki bete dezute zuen egin bearra"

("GURE MUTILLAK – AZILA Aretxabaleta-Luistarren jaiaz)

"Alaitasun aundiagaz igaro genduan

bazkariko denbora... gazteari

dagokion era" (GURE MUTILLA – Azila 1933, 59 zenbak)

Oso gazterik asi zitzaigun idatz lanetan; emezortzi urtekin.

Emezortzi urteekin aitari eskuratzen dizkio eredu asko.

Emezortzi urteekin asten da lanean egunkari onenetakoetan.

Bere idazkietan noizbeinka erabiltzen ditu itz zallak edo gogorrak.

Ezin dugu aztu itz guzti oien eragille bezala Sabino berbera dabilkigula lanean eta ikasle onak, gai oiek eusten dabiltzala... Euskal idazleak erdararekin kutsatu gabe egia mendearekin azia ematen asi ziran. Orrelaxe arkitzen zituzten lenengo jokabideak.

Ara emen eredu batzuek:

Gureneraño,

Aneurkin,

Eritxadon,

Oturuntza (almuerzo)

Otodontza

AUTARKIA (EUKADI, 1935, BAGILLA 2)

IZPER (Noticia)

USKURTZA (ReligiPn) (EUZKADI, 1934, VIII-16)1

JAURA NAGUSIA (Misa Mayor)

GURENDA (1935 EUZKADI, BAGILLA 2)

"TXINDIRIK (EUZKADI, 1935, VIII-16)

Aldunak edo Diputadoak...eta abar.

Josu Peña euskal idazle deitu dezakegu, berak egindako idazlanak ogeitalau dira. Oietatik bat bakarrik dago erdaraz.

Erdaraz egiña auxe da "Euzkadi – 24 Idazlearen zenbakia).

21.5. IZENEN ZERRENDA

Jesus Peñak ematen dizkigun errien berriakin izenen zerrenda ugari dezaun... Izen oiek zerbait esaten digute. Gai batzuek agertuaz nolako garrantzia daukaten gure idazle gaztearentzat ta ori dena gure idazlearen ingurua agertzen digutelako. Iru gai nagusi ditugu aidean: erlijioak, jolasak eta aberzaletasuna... Josuk aurpegi guzti oiek ezagutzen zituen. Giro baten ezaugarri dira

Izenen giltzarri Lorentxo Peña, Josu'ren anaia dugu. Bat, emango dizkigu balio aundiko berri batzuek eta orrekin mesede ederra egiten digu... Lorentxo Peñak oso ondo ezagutzen du bere erria.

IZEN – ZERRENDEN AZTERKETA

Lenengo izena argitaratzen dun egunkaria GURE MUTILLAK delakoa da.

EGUNKARIAN AGERTZEN ZAIGU ARGITARATUA (GURE MUTILLAK, 1933-Azila) aipatzen ditu eta batez ere garai artako ari diranetaz... Orduko arduraduna gizon aundia daukagu benetan. Langille amorratua da. Aberzaleak anai-arteke guda galtzen dutela, beste jesuita aberzaleen antzera erbestera dijoa. Eunka daude erligio-gizonak erbesterratuak eta atzerrien lan egiten dutenak, eta aberritik urruti biziko direnak. Konbentu bakoitzean daukagu "makis" antzeko guda. Eskubitarrak ikaragarritzko garbiketak egiten dituzte. Atal ori idatzi gabe dago gaur oraindik. Egiña izan ezkerro asko ikasiko genuke...

Aita Jorge Aguirre'ren berriak Aita Olariagak, Loiolako artxiboen arduradunak ematen dizkigu. Esker beroenak emendik bidaltzen dizkiogu.

Lenengo izenen zerrenda lenengo idazlanetan arkitzen dugu; idazlan ori ederretakoa daukagu. Leenengo idazlan onetan orrelako zugaitz ondoak datza. Emen-txen bertan iltzen zaigu bizi du onetakoz.

Lenengo izen zerrenda onetan, danez gain izen aundi bat. Congregationen arduradunaren argazkia agertzen zaigu; gazteen arduraduna aita Jorge Aguirre. Gizon oneri dagozkion berriak aita Olariagak, Loiola'ko paper-zarren zaindariak eman dizkigu. Emendik eskerrik beroenak bidaltzen dizkiot... Zegaman jaio zen Aita

Jorge Aguirre, 1885'garren urtean eta New Yorken iI zen 1947'garren urtean...Jesus'en lagunarka delako elkartean 1905'garren urtean egiten du sarrera. Oña'n ikasten du filosofia, 1909'garren urtean... 1912'garren urtean Orduña'n asten ditu irakaskintzazko ikasketan. 1916'garren urtean Oha'ra doa teologia ikastera... Ikerpide garaia Deusto'ko ikasbide nagusian asten du. 1928'garren urtean Donostia'n jartzen dute lanean Congregatio'ko gazteekin; anai arteko borroka asi arte or dago (1936)...

Militarrak Euskalerrria eskuratzen dutela Centro-amerikara bialtzen dute. Esan bezala New York'en iltzen da. Euskalerrriko ekaitza andia ortan, Aita J. Aguirrek' lana erruz egin zuen gazteekin. Oso langillea genuen eta buruz argia.

Ortxen agertzen zaizkigu izenen lenengo talde aundi orren inguruan. Beste izen batzuek Gure Mutillak, 1933.

– Aita Aguirre'ren langutzalle aundiak ditugu:

Eljalde'tar Blas: Luis'tarren lendakaria.

– Zumalabe Agustin: izlaria ta luistarra euskaldunen lege gizonen elkartea.

– Jose Peñak itzaldi bat ere eman zien.

Aipatu bearra ere Aretxabaletako LUISTARREN Meza emallea.

Meza emallea Arrasateko Arzipreste Juan Jose Arin, gero fusilatu zutena. (Gure Mutilla, 1933, azil).

Meza ondolik lasterketa izan zan, Lojendio Jose Maria, lege gizona. Talde orretan sartzen du bere izena.

Irabazle, Gatzaga"ko Arana tar urrengo izenen taldea Euzkadi aldizkarian daukagu, pelota jokua izan zan.

Errenkan urrengo ekintza bataioa dugu; bi datoz. Lekukoak agertzen dire; Aita Julen Garro ta ama Erretolaza'tar Serape. Joseba Iñaki euskel izen polita ezarri diote. Aita ta ama aberzaleak dira.

Beste bataioa Jose-Marina daukagu. Aita Urzelai'tar Simon dugu ta ama Madi-nabeitia'tar Julene (Euzkadi, 1934-V-4), kalean zuten baserria Sendi ona. Urrango izenen zerrendak izlari batzuek aipatzen ditu (Euzkadi 1934-6-8). Izlari ospetsu oiek auek dira:

– Alberdi'tar Maximo. Solidarietako eusko langillen idazkari dugu.

– Goikoetxea'tar Erroman ta Linazasoro'tar Karla.

– (Altzeta) Euskalerrri osoan ezagutzen dituzte, izlari aberzaleak oso onak bezala.

– Ugartetxea'tar Donata maiz lanean entzuten zana. Erbestetik etorritako izlaria.

Beste izenen zerrenda GALDERETAN dago (Euzkadi 1935-IV-24). Iru izar aundien izenak daude, erraldioen ereduak (Euzkadi-1935-4-24):

– Montzon, orduan gizon undia ta gaztea, Ganuza'tar batekin ezkondua, Esko-riaza'n.

– Aguirre Jose Antonio, goimallako izlaria, andik gutxira Lendakari izango dana.

– Prieto, goimallako izlaria.

Bedoña'n Loramendi'n omenaldia dala ta, ekintza au geroko gertakizuna bezala gelditzen da. (Euzkadi-1935-Bagilla). Onen ondolik ezkontza dator (Euzkadi 1935-urrilla).

An aipatuak daudenak:

– Aguirre'tar Boni.

Gaztañaga'tar Errupin.

BESTE EZKONTZA:

– Aguirre Gabiria Eibar'ko Unzeta'ren alabarekin. Oso gizon ona Lorentxo Peña'ren nagusia izanen, gazterik illa.

Azken zerrenda gudaritza delako taldea (Euzkadi 1935-X-29):

Urte artako kintoak ziran:

– Sasiain dar Zezili, anaiarteko gudan il zan.

– Urrutia'tar Felix, Saseta gudari taldean il zan.

– Del Teso'tar Kelmen, etorkiña zan. Larogei urtekin il zan.

– Zubizarreta'tar Keperin, gizon on bat zan.

– Olabe beserrian jaioa, Franko'ren aldean il zen.

– Zubizarreta'tar Lander Bolina baserrikoa.

– Unzueta'tar J. Mirena.

– Josu Peña'ren kinto lagunak ziren.

Argia delako egunkarian, Iñaki Deunaren egunean egindako bersolarien saioak agertu ziren... Baserri ta Txapel ari dira elkar zirikatzen eta Baserrik berso guztiz ederra gure Jose Peña'ri opa dio, (ARGIA, 1935-IX-29)... Berso ori orrela asten da:

"Arrasatera etorri naiz

andregai baten billa...

Orduko bersolari onenetakoak dira:

Txapel-Azpeitiko bersolari bat.

Basarri joan dan urtean il da, 1999 garrenean (ARGIA, 1935-Dagoniltik 11)

Erriko jaiak direla ta beste izenen zerrenda ematen digu.

Oraingo onetan txirrindulariak dira:

Montero anaiak-Irundarrak.

Trueba-Santander'tarra.

Eskerra-Bizkaitarra.

Eskurriet-Balenziarra.

Jaoitza batekin lotuak izen batzuek agertzen dira. Urzelai'ta Kosme'ren emazteak neskatil bat izan du. Miren Josune jarri diote izena. Oso gizon jatorra dugu Kosme. Lenengo emaztea iltzen zaio ta berriz ezkontzen da. Dagoneko il ziren biyek.

Illeta baten berriakin, bizpairu izen ematen zaizkigu:

Altube'tar Peli il da. Bere semea Jon ere il da..., Orren ondotik bizpairu ezkontza berriak ditugu:

– Senarra, Arenaza'tar Eladio, baserritarra dugu.

– Emaztea berriz Aguriano'tar Justina. Oso emakume ederra dela esaten zaigu.


Besten ezkontzan dauzkagu:

Madina Jauna, Orueta'tar Meltxorarekin. **MEDINA BANKUKO LANGILLEA DUGU.** Gero fusilatua izan zan

1935'kintako mutillak izan zuten soldadu kintatik joan bearra:

Azuatar Bitorino, Madrid'era (Argia).
Arrasaten lana egiten jarraitu zaien.
Urrutia'tar Peli gudari spilari eskeni.
Zubizarreta'tar Leandro ta
Zubizarreta'tar Seberiano, Logroño'ra.
Unzueta'tar Santi,
Urliamendi'tar Juanito,
Del Teso'tar Klemente
Uribeetxeberria Kepa, Burgos'era,
Sasiain'dar Zezilio ta Peña'tar josu, Santander'era.
Apaiz berria ere agertzen da, Jauregi Justo, Alkatearen anai gaztea.
Pelota partidua dalata izen pila aipatuak daude:
Etxaniz anaiak Sustarra ta Uribe'rekin neurtzen.
OSO PELOTARI ONA Sustarra agertzen da.
Bigarren partidua:Gabilondo ta Alberdi Aretxabaletarrak
Arrasateko Etxeberria eta Sara'ren aurka.
Etxeberria ori da "Zurdo de Mondragón" geroago deitua.
Alberdi ta Etxeberria oso egoki jokatu ziran.
Aberri eguna ospatzen dala Laisterketa egin zan. Besten geñatik agertu ziranak
Goxenola, Bengoetxea ta uriarte izan ziran. (Eguna, 1937-Epaillak 31).
Arri jasotzallea ere izan zuten TXATO izenekoa.
Txato ta Alberdi txistua jotzen oso yayoak agertu ziren.
Pelotarien izenak azkenak. Alberdi ta Larrañagak, Lekume ta Elustondo'ri.
(Eguna-1937 Epaillak 31).
Zorrotz aztertuz izenen zerrenda luze oietan agertzen dena auxe ikusten dugu:
Izen oiekin ematen zaizkigun berriekin esaten zaigu, berri oiek oso berexiak direla
ta nolabait Jesus Peñaren biziak ikusi bear duenak. Izen oiek naiko lotuak daude
Jesus Peñaren bizitzarekin. Or agertzen diren jakabideekin naikoa maite ditu eta
oso atsegiñak zaizkio. Berri oiek etez besteek dute garrantzia gure idazlearentzak.
Edozein berriak ez dute balio, baizik beretzat zerbait esan nai dutenak. Berri oiek
bere nortasunariken nolabait lotuak daude.

Latxaga



Josu Peña Etxebarria (1935). Santanderren guda mutil
(21 años)



Saseta'ko gudariak Eibar'ko frentean (1936-37). Negua Eibarren. Ezker-eskubi: Fakundo Alzola, Jesus Peña, Lorenzo Etxeberria, Antonio Otxoa eta Diego Urzelai.



1933'garren urtekoa "Luistarren Ikurrinaren Bedeinkapena". Josu Peña (ezkerretik seigarrena); Lojendio Lege Gizon (eskuinetik zazpigarrena); Blas Elejalde; Luistarren (ikurriñarekin) Leliendakana; Agustín Zumalabe; Inguruetako auzoko apaiz jaunak.

Ezkerretik: Jesus
Peña, Krispina
Ugarte (ume-
zaina), M^o
Kristina Peña,
Jose Peña eta
Lontzo Pena.



Nikolas Peña ta Luisa Etxebarria (Josu eta
anai-arreben gurasoak)



Jose Peña, Josu su-izkillatu eta 20 egun-barru frentean zana.



Luistarren ikurriña bedeinkatu zanean Josok Iturbe'tar Kandido'ri Santander'etik baldue eutsen argazkia (26-03-36) (21 urte).

21.7. NOR DOGU IDAZLE GAZTE-AU?

Jesus Peña izenarekin bataiotu zuten, nolako nortasunaren jabe dan ikusi bear genuke; onena bere argazkia agertzea; eta errian Josu Peña gizon langille bezela artua daukate. Astegunetan fabrikan lan egiten du, langille-erri batean jaio ta bizi da Artexabaletan, gurasoak ere langilleak ditu.

Ortik alde, aste-bukaeran beste gai batzuk dabizki eskuetan; beste zerbaiten aurkezle bezela, batez ere San Antonio irin-fabrikan ere ordezkari bezela.

Danera "Congregation-i laguntzen dio, batez ere bideak antolatzen eta ekintzak aurrera eramaten. Congregati6 ko idazkaritza berak dauka, garai bardiñean batzoki' ko ordezkari'tza berak darama.

Gizon garbia da, zuzen bizi da, zuzentasuna maite ditu, bere arduradunak maite ditu ere.

Irudi bat bere buruakin egiña du. Alderdi guztietan argia ta maitasuna dario.

Bere lanetan, batez ere idazten, zorrotz eta garbi lan egiten du. Erriko eskola bukatzen danean, beste gazteekin batera billatzen da, ekintza jatorrak egiteko argitasun berezi bat lortu du. Ziur nago, lider bat izango zala, orrela, batzokien ere idatziko zuen.

Gazte langille ta jatorrakin bat egingo zuan, ala guztiz ere karlista batzuek begitartean izango zuten. Ala dio batek: "Ez dezala bere anka emen sartu, laster bere bizia bakatuko da». Andik gutxiara jakin zuten garbitu zutela, erietxetik atera eta garbitu zuten.

Andik denbora batera, meza bat atera zuten denentzat. Orrela gelditu ziran gauzak.

Oraingo lan onetan, mutil gazte au, eredu bat bezala gelditzen da.

Latxaga

21.8. JOSU PEÑA TA BASARRI

Gauza bat dakigu garbi asko, alkarren berriak, gertakizun onenak, Josu Peña'k ematen dizkigula. (Argia 1935-12-4).

Lenengo urratxa: Josu Peñ'ia'ren idazlana dago gai oni buruz argitaratua. Josu Peña'k Aretxabaletako jaien berriak ematen ditu, bersolari bi ekarten ditula: bat "Txato" eta bestea "Basarri".

Peña'k esaten digu aspaldi, Baserri'ri entzuteko zeletasuna zeukala. Ezin ditu gogoratu emen botatako bertsoak, bakar bat ezik; ezaguna, ala asten da:

Arrasatera etorri naiz
andra gaia baten billa
ogeta bi urteko mutilla

Geroxeago: 1-bezelako bersolari gutxi izaten dira, paraiso bezelakoak, asko bear genituzke.

Baserri'k auxe dio: mutil egokia dala andre gaien billa dabilzantentzat, baino ez du iritzirik agertzen Jose Peña'ri buruz idazle bezela. Ez alda naikoa esaten orrek-in. Naiko mingarria da Josu Peña'rentzat.

Josu Peña il zuten urte berean, Basarri'k eskeintzen dizkio iru berso, eta berso oietan garrantzitsu aipatzen duena: "mando bat nola ingurutu zaien patataz betea. Jan dituzte patatak eta mandoa' ri zigorra eman diote". Basarri'k esaten duana: "mando ori, gizonak baiño argiagoa dala".

Berriz agertzen zaigu, nola Basarri'ri etzaiola ajolik Josu Perla^s ren idaztien edertasuna.

Naiko gogorra ori jakitea Josu Peña'rentzat.

Latxaga

21.9. "AITZA" IDAZLE LAGUNARI...

Gure "Aitza" jatorrak
Zer berri dakazki?
lengoa irakurriko
zenioten noski;
mando bat ingura zaie
patata ta guzti,
azitarako asko
ez dezute utzi,
arrane pikaruak
etzaudete gaizki.

Zeuen mando beltz ori
portatu zaizute,
gixadu jana ederki
gozatu dizute;
deklarazioak ere
egin dizkizute,
mail orde z pentsua
eman zaiozute,
etzerate gizonak
iltzen badezute.

Zintzo inguratu da
zeuen sallerano,
janariz kargatuta
lepo azurrerano;
politikarik ez dula
berak emen diño,
paxiotar, reketek,
milla demoniño,
mando ori argiago
oiek denak baiño.

(Eguna, 1937-III-6)

"BASARRI", (nazio Eizmendi Manterola

21.10. GAURKO OLERKARI BATEN

Josu Peñaren idaztiak irakurtzen zoazela erri maillako bertsolari gazteari gaur eman diogu aztertzeko. Garbi ikusi nai genun bertsolari berri batek zer esango zigun atzoko gazte baten azterketari buruz lasterka batean. Joxe Iñaxio Salaberria gaurko gazte bat degu euskaldun berri bat. Gazte au oso euskalduna degu naiz ta iri aundi batean sortu izana, gaiñetik baserriko lanak oso ondo ezagutzen ditu.

Emen Donostin jaiotako mutil onek zortzi bertso lau errenketan argitzen dizkigu ain ongi bertso paperak ulertzen dituna. Jarraitu zure bertso orrekin. Emen dauka-gun bertso luzea irurogeitalau (64) errenkakoa da eta erri-kutsu egitazkoa dauka baita bertsolariena.

Danez gaiñ xamurtasuna agertzen digu errikoi baten biotza bere adiskideari irikitzen zaiona benetan gauza aundiak esateko.

Asieratik euskeraren jatortasuna nabaritzen du. Erriko izkuntza ederra bere baitan sentitzen du eta naiko luke benetan aberatsa garbia eta soilla erriarentzat.

Erria benetakoa berealaxen nabaritu du danez gaiñ argitasun aundiz indarra ematen badaki eta orrela gure artean gelditzen da adiskide, lagun eta langille on bat bezela.

Gure artean errexa ikusten orrelako gizon baten dizdira barnean egozten zaio asmo zoragarria eta orri begiratzuz sortzen zaio usai goxoa loreari.

Naiz goi maillako gaiak erabilli eztabil baztarrak lertzen, nundik nora gaurkotatunari begiratzen dio naiko diru izango balu bezela ordaiñak zuzentzeko.

Latxaga

21.11. "AITZA" KAZETARI ARGITSU BEZAIN KEMENTSU

–1–

Jesus Peña zun izena,
eta "Aitza" goitizena,
gera aurreko egunkaritza
nabarmendu zena;
barruan zun euskal sena,
gutziz sendo ta ozena,
garbi dagona idazle aldetik
zala txukun ta txuxena.

–2–

Euskal Pizkunde aroa,
Arrapatu zun oroa,
Euskal gaietan lana egin zun
Umilki ez arroa;
Emaitzetan oparoa,
Euskeraren esklaboa,
"Aitza" ren lanan funtsa guziak
iturri onetik daroa.

3-

Konturatutzen ezkera,
txotxolo batzun tankera,
"Aitza" k idazten lau aldetatik
bazula egokiera;
mutil onen idazkera,
beñetzan izan okerra,
bi arlo ziñez landu zituben
kazetaritza ta euskera.

4-

"Gure Mutillak" aurretik,
"Argia" ere gertutik,
"Euzkadi" n bertan miatu ezker
badu bere aztarnik;
guda asi ezkeroztik,
ark edan zun "Eguna" tik,
Euskalerriko kazetaritzan
alegindu zan gogotik.

5-

Eskolatik ia etzen pasa,
alaxe ezkenun eskaxa,
bera irakurtzen ilustratu zan
ziaro bere kaxa;
iskribitzen zun erraxa,
izkitan piper ta gatza,
omenaldi bat biarko luke
guregandik oraiñ jasa.

6-

Atxabaltarra gaztia,
etzan ibilli tristia,
aldizkaritan ederki emana zun
tokatzen zan albistia;
goxua eta ezta,
zegon doaiez betia,
bera galdu zan baiña arren itzak
sekulan galduko ezta.

7-

Gaztetasuna aldeik-alde
eta sasoia ezin obe,
orduan gerra aillegatu zan
eskatu gabe debalde;
Aitzak etzun egin alde,
barrukan parte artu gabe,
zeukan guztia dudatu ezean
eman zun errian alde.

-8-

Berriemaille abilla,
idaztiak zitun pilla,
danak batera bildu ezker
oi lan borobilla!!;
euskeraz etzan debilla,
ez nolanaiko mutilla,
buru argia zudukalako
Izandu zan erailla.

Joxe Iñaxio Salaberria

21.12. JESUS PE NA'REN IDAZ-LANAK

ZENB. IRIA	EGUNA	IZENA
GURE MUTILLAK (1933 — 1937)		
59 DONOSTIA	933-AZILA	ARETXABALETA LUISTARREN JAIA
EUZKADI (1933 — 1937)		
-- BILBAO	1933-IX-27	ARETXABALETA
--	1933-XI-25	ARETXABALETA
6.677	1934-V-4	ARETXABALETA
6.707 "	1937-VI-8	ARETXABALETA
		KORUETA
6.766	1934 DAGON I LLA 16	NUN DIRA
6.967 "	1935 JORRAILLA 24	ARETXABALETA
7.000	1935 BAGILLA 2	ARETXABALETA
7.127	1935 URRILLA 29	ARETXABALETA
ARGIA (1934 — 1936)		
723	1935 — Otsailla — 17	ARETXABALETA
724	1935 — Otsailla — 24	ARETXABALETA
725	1935 — Epailla — 3	ARETXABALETA
726	1935 — Epailla — 10	ARETXABALETA
728 "	1935 — Epailla — 24	ARETXABALETA
732	1935 — Jorrailla — 21	ARETXABALETA
748	1935 — Dagonilla — 11	ARETXABALETA
755	1935 — Irailla — 29	ARETXABALETA
761 "	1935 — Azilla — 10	ARETXABALETA
774	1935 — Otsailla — 9	ARETXABALETA
797 "	1936 — Uztaila — 19	ARETXABALETA
EGUNA (1933-1937)		
2 BILBAO	1937 — Urtarrilla — 2	AURTENGO GABON EGUNAK
53	1937 — Epailla — 3	ARETXABALETA'RA GUDA
64	1937 — Epailla — 19	ARETXABALETKRA GUDA
76	1937 — Epailla — 31	ABERRI EGUNA EIBAR'EN

GURE MUTILLAK

ALDIZKARIAREN IZENA: GURE MUTILLAK – 59.ZENB.

ARGITARATUA DAGOEN IRIAREN IZENA: DONOSTIA

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1933 AZILA

IDAZLANAREN IZENBURUA: ARETXABALETA – LUISTARREN JAIA

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 1

ARETXABALETA

LUISTARREN JAIA

Nere luma txiro onek jun dan igandean emengo Luistarrak egin duten jaialdi bikaiñ ta alaiari bear bezelako garrantzia emateko kemenik ez ote duan izango bildur naiz.

Bai, irakurle, alai zan benetan, igandeko eguna, Luistarrak garbitasunezko biotza azaldu zuten egun ori. iEz det uste iñoiz aztuko zaiela egun ori, emen bildu ziran Luistar gazteai. Ez orixe.

Goizeko seitaerdietan, gure eliza gazte talde bikaiñez beteta zegon. iUra edertasuna!

Aita Agirre'k ederki berotu zizkigun biotzak bear dan bezela Jauna artzeko. Eunen bat Luistar izango giñan jauna artzen. Ikusten genuan zein alai zegoan gure gaztedia, eta nere buruari nion: Gaur egun ederren bat badiau: Eta alaxen gertatu ere, Jaungoikoak ala nairik.

Bederatzi ta erdietarako, erbesteko luistarrai gure bostekoa eskeintzen asi giñan:Urrestirgoak ziran lenbizi azaldu ziranak, bere ikurriñ ederrarekin. Gaizki esan det, lenbizi Gatzaga"koa zan, eta ondoren, len esana, Urrestilgoa.

Gero, berriz, bereala Durangoko luistar gazte talde ederra ikusi genuan; 26 etorri ziran: iEderki! Eta orrela, gu batere konturatu gabe, erbesteko luistarrez beteta ikusi gendun eliza. Ura gurepoza!!!

Meza nagusia asi da... eliza beteta... Arrasateko Arzipreste, Joan Jose jaunak, eman zuan meza. Itzaldia berriz Aita Agirre'k inolako itzaldia! "makiña bat" luistar euki zuan berari begira ao zabalik... Amaitu da meza nagusia... orain laisterketa. Batzuk zioten, tamalgarria zala... zazpi bakarrik etortzea laisterketa onetara, baña nik ez det uste...

Nik naiago ditut "dozena" erdi perretxiku onak, bi "dozena" nola naikoak baño... Ez dute on egiten on ez diran perretxikuak!! Eta gu, ziur geunden, igandean laisterketara etorri ziranak, luistarrak zirala... au da... "perretxikuk onak zirala" eta orregatik, gu... oso pozik...

Bukatu da, laisterketa... Gatzaga"ko Aranatar Ilari lenbizi sartu zan... Bigarren bere anaia... Ondo irabazia omen zuten...

Ondoren... ijakiña! Ordubatak izanik... bazkaria... 60 giñan guziak eta bazkaria, nolakoa ordea? Guztiok, ao batez esaten genun, bazkariagatik ederki guziz ederki ipiñita, ta emana zegoala.

Alaitasun aundiagaz igaro genduan, bazkariko denpora... gazteari dagokion eran... eta Aita Agirrek zion bezela, arrigarria zan, ainbeste gazte artean itz bat ere ez entzutea, bear ez dan bezelakorik... Orregatik bada, kristau alaiari dagokion eran igaro genduan gure bazkari bitartea.

Ondoren, berriz... itzaldia...

"Oremus por Pontifice", abestu ondoren, asiera eman zion, Elejalde'tar Blas'ek emengo luistarren lendakariak: oso egoki mintzatu zun, eta oso txalotua izan zan.

Zumalabe, zan gero, itz egin zuana, au ere ederki mintzatu zan, eta ondo irabaziak zituan, egin zizkioten, maitetasunezko txaloketak.

Ondoren Peña'tar Josu'k, au ere besteak bezela txalotua izan zan, poliki mintzatu zan.'

Gero Lojendio J.M. jauna, Legegizon azkarra. Guztiz arrituta utzi zuan emengo "jendea" izlari trebe ta yayo onek. Uskuztza ta Euskalerrria goratu eta altxatu zituan guren gereneraño; eta onek esan zuna gogoan artu eta egiten badegu, benetan atseguñez beteta biziko geraldokan gera. Amaitzeko, Aita Agirrek berriz ere itz egin zuan, eta au ere txalotu zuten, goizeko itzaldia oroitzea naikoa zan...

Itzaldi bitartean an ikusi genuan, Gatzaga'ko ikurriña, Urrestirgoa, Azkoiti, Donosti, Arrasate, Durango...

Guziai eskerrak ematen dizuet, gure jai aldi au edertzera etorri zeratelako. Ederki bete dezute zuen egin bearra.

Ondoren, guzion argazkia atera genduan, baita ere ikurriñ eta izlariena; eta gero, berriz Aretxabaletako luistarrena.

Bereala, pelota jokoa eta onela bukatu zan, ainbeste poz gure biotzetan sortu digun eguna... Ez naiz aspertuko esaten, ez dela egun alaiagorik sortu gure biotzetan egun ori baño...

Orrelako egunak, jakiña, guzientzako ez dira izaten pozgarriak, eta emen ere baziran begi okerrez ikusi zutenak... Orrelako bat zan, esaten ari zana, gu, gazteok, "pelotilla" egiten ari giñaka, Apaizai, eta beste milla kertenkeri esaten ari zan, eta orrelakoren batean, ausartu zan, esaten ere, gu "insientsoa" jan bear gendukela. Ori entzun nuenian, ezin nun jasan (sufritu) gayago, eta esan nion. Iri beintzat ez dik on egingo, garagar asko jaten dek eta. Badakit gaizki esana dala, baña baita ere badakit ondo "merezia" zuala.

Dana dala, esker berezi bat ematen beartua gaudela esan bearrik ez dago, Aita Agirre'ri eta orrela izanik, emendik bertatik eskeintzen dio, ainbeste lan egin dualako aste osoan, Luistarrok, alik eta ondoen gertatzeko, jai aldi bikain orretarako.

AITZA

¹ Oso itzaldi egokia egin bait zuan.

EUZKADI

ALDIZKARIAREN IZENA: EUZKADI

ARGITARATUA DAGOEN IRIAREN IZENA: BILBAO

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1933 – IX – 27

IDAZLANAREN IZENBURUA: ARETXABALETA

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 2

ARETXABALETA

Aginduta bezela, gaur atsegingari zait, jakin arazitza emengo Luistarrak antolatu dituen jayaldiaren beri.

EGINKIZUNAK

Andra Maria'ren alkartasuneko ikuriña onetsi bear dau egunerako alik ardurasuena gertutzeko, il onen 25'ean aratsaldeko 7'tan asiko da, astebeteko Gogo jardunaren txanda, eriko mutil gasteentzat. Josu langundiko Agire'tar Abak zuzenduaz.

URILAREN LENENGOAN:

Goizeko 6 ta erdietan: Gure Jauna artzeko Meza (itzaldi eta abestiakin).

Goizeko 10'an: Alkartasuneko ikuriñaren onespena. Meza Nagusia bere itzaldia-kin. Perosi'ren 2'garen "Pontifikala" abestuko da. Itzaldia egingo du Josu lagundiko Aita batek.

Goizeko 11 ta erdietan: Txirindularien laisterketa:

BIDEA

Aretxabaletatik irten, Arasate, Agate Deuna, Arasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Aretxabaleta'n bukaera. Gustiz 20 aneurkin.

1'g.	25 laurleko
2'g.	15
3'g.	10
4'g.	5
5'g.	3
6'g.	2

Laisterketa onetara jua nai duanak, bere izena Barutia'tar Eromalda'ri eman bear dio, eta bear beare7koa zayo luistara izatea.

Luistara dan edo ez jakiteko, berak ordaindu duan azkenengo txartela ekari bearko du, bestela ez da artakotza artuko bere izena.

1'an Otoruntza edo bazkaria.

Nai duanak onera etori, eman bezayo bere izena, Barutia'tar Eromalda'ri.

3'an Ama zortzez garbiaren Alkartasunen Batzar Nagusia.

AGERKAYA

"Oremus pro Pontifice" Baldeztar J.

Izlariak: Logendio'tar Joseba Mirena (Lege-gizona).

Zumalabe'tar Augustin (Gipuzkoa'ko Ikasle Euzkaldunen Alkartasuneko lendarakaria).

Elejalde'tar Balasi (Aretxabaleta'ko luistaren lendakaria)

Paha'tar Josu (aretxabaleta'ko Luistaren Idazkaria).

Agire'tar Jorge (Josulaguna) "Ikuriña'ren ereserkia" Kamatari Abarona (Josulagundikoa).

Ondoren pelota jokoa.

Ora or ba, Aretxabaleta'ko Luistarak zein jai-aldi ederak antolatu dituzten. Au orela izanik ez degu, uste, benetako luistara danik etori gabe, geldituko danik.

Guk besoak zabalik artuko ditugu, gustiok.

AITZA

ALDIZKARIAREN IZENA: EUZKADI

ARGITARATU DAGOEN IRIAREN IZENA: BILBAO

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1933 – XI – 25

IDAZLANAREN IZENBURUA: ARETXABALETA

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 3

ARETXABALETA

ELECCIONES.– Dentro de la mayor normalidad se celebraron en esta villa las elecciones para diputados a Cortes.

Aunque la mayoría del sector opinaba y atribuía el triunfo a la candidatura nacionalista, había, también quienes tenían idea de que triunfarian los de Unión de dere-

chas, o, por lo menos, habria una lucha fuerte, pues éstos han llebado a cabo en esta villa, y principalmente en los casenos, como en Gipuzkoa en general, una labor de propaganda, que se puede tildar de canallesca, tachando a los nacionalistas como masones y otras cosas más graves, que, como cat⁹licos, tenemos el derecho de ocultar...

Pues bien, a pesar de todas estas maniobras, la candidatura nacionalista ha tenido un gran triunfo, como nunca soñado por nuestro pueblo, siendo muy evidente que la semilla sabiniana va inculcando en los corazones de los aretxabaltarras.

Pero faltariamos por ingratos si por medio de estas columnas no demostrariamos a las emakumes, que con tanto ardor han luchado por nuestra causa de Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra, una gran parte de nuestro triunfo que a ellas se debe.

¡Gracias emakumes, y adelante por la causa nacionalista!

Y ahora, a prepararse para las próximas luchas que se avecinan. ¡Adelante!

AITZA

ALDIZKARIAREN IZENA: EUZKADI – 6.677.ZENB.

ARGITARATUA DAGOEN IRIAREN IZENA: BILBAO

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1934-V-4

IDAZLANAREN IZENBURUA: ARETXABALETA

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 4

ARETXABALETA

JAYOTZA.– Gure lagun dan Garo'tar Julen ta Eretolaza'tar Serape, bere emazteak, mutil koskor mardul bat izan dute, ta Joseba Iñaki euzkel-izen polita ezari diote. Nere zorionik agurgarienak bere gurazoai, ta abertzale zintzo bat egingo dutelakoan naiz mutiltxo onekin, bere aita ta ama bezela.

Baita Urzelai'tar Simon ta bere emazte Madinabeitia'tar Julene'k, beste aurtxo bat izan dute, "Joxe-Mari", izena ezaririk. Zorionak.

MAYATZEKO LORAK.– Mayatzeko ilean sartu geranez elizkizun ederak eskeintzeko garaya eldu zaikigu gure Ama eta oretarako asiera emana zayo gure parokian, aratsaldeko zazpi ta erdietan oso elizkizun alayak beste urtetan bezela. Iñoiz baño gende geyago jungo generala uste det, gaurko goraberak orela eskatzen digulako.

AMNISTIA.– "Aministia" dala ta, onera itxuli dira emengo lau Ondaretako espetxetik, eta etoreran "kalejira" bat izan zuten emengo goriak, "Viva los hombres honrados" oyu egiñaz. Gai onetaz ez noa geyago jaraitzea...

IGANDEA.– Igaro dan igande ta aurekoa berdin berdiñak, euría, euría eta euría...

AITZA

ALDIZKARIAREN IZENA: EUZKADI – 6.707.ZENB.

ARGITARATUA DAGOEN IRIAREN IZENA: BILBAO

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1934-VI-8

IDAZLANAREN IZENBURUA: ARETXABALETA; KORUETA

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 5

KORUETA (ARETXABALETA)

Iñoiz atsegiñez inguraturik agertu izan bagara, oraingo ontan lengo guziak aldentuzeko zorian gaude. Nola ez ba? Bide zabal eder bat ia bukaturik agertzen da, datoren igandean 10'an itzaldi ta jai aldi euskaltzale bikañak ditugu, eta il onen 25'an emengo jayak. ¡Zorionekoak gaituk Koruetarok!

Jai-aldi bi izango ditugu, bat kaleko U.-B.-B. Antolatua, itzaldi bikañakin apaindua, bestea Santiago Deunaren, egunekoa, aspaldi ontan urtero ospatzen degun egun alaya guretzat.

Bietara, "gende" asko etoriko dalakon gaude, ta guk lero auen bidez, aren ta aren egiten diogu, Aretxabaleta'ko, Arasate, Eskoriatza ta inguruko anai guziaz, etori ditezela, zergatik atsegin aundiagaz, besarkutako ditugu guziak. Batez ere emengo kaletarai dei berezi bat egiten diotet, eta da, naiz eta Santiago egunean etori ez, gutxienez beintzat igandean etori ditezela, zergatik nai degu egun gogoangari bat egitea, abertzaletasuna geyago sendotu dadin gure Korueta kutun ontan.

Izlari ta geñetiko jai aldiaren beri, jakiñean zaudete, gure kaleko idaztien bidez.

Aspaldi onetan gure gogokoa zan gure auzo maite Koruetan, jai aberkoi batez azalpen bat egitea, ta azkenik gure Uri-Buru-Batzar antolatu du jai eder bat, datoren igandea aukeraturik oretarako.

AGERKARIA

Goizeko 9'etan.– Txistulariak goizeresi alai ta pozgari bat joko dute.

10'etan: Iru abotseko Perosi'ren jaupa nagusia abestuko da, eritxadon eleizan, abesturik uri ontako Euzko – Etxeko abeslariak. Bukatuko da, eleizkizun au, Iñaki Donea'ren ereserkia abestuaz.

Eleizkizunen bukaeran, Euzko – Etxeko, ezpatadantzarien sayoaldiz.

Bereala izango da, txistularien erkidetasun bikaña.

Tetan: otoruntza nagusia.

Aratsaldeko 3 ta'erdietan.– Uri Buru Batzar E.A.B.'ko gorularien dantza alai-alai ta bikañik egingo dizkigute. Dantza au amaituaz, bereala; Korueta'ko enparantzan, itzaldi aberkoyak izango dira, eletari aotxeak itxegiñik:

Alberdi'tar Maxima.

Goikoetxea'tar Eroman.

Linazasoro'tar Karla "Altzata"

Ugartetxea'tar Donata

Jayaldi bikain ori ikusi ta? Nor gelditu Korueta'ra jun bage? Ondo dakigu, guk, kaletarik zenbait zor diogun Korueta'ko auzoai abertzaletasunean. Agian baliteke Euskadi'ko auzo abertzaleena izatea gure Korueta zintzoa. Ez alzerate oriotzen igaro diran auteskundietan, Korueta'tik eun bat bezela etori ziranakin beren autarkia abertzaletasunarentzat ekaririk.

Beartuak gaude ba, datoren igandean 10'an Koruetako anayakin bat eginda egotea.

iAupamutilak! ez aztu korueta'rekin.

AITZA

ALDIZKARIAREN IZENA: EUZKADI – 6.766.ZENB.

ARGITARATUA DAGOEN IRIAREN IZENA: BILBAO

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1934 DAGONILLA 16

IDAZLANAREN IZENBURUA: , NUN DIRA?

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 6

4NUN DIRA?

Euzkadin araudi – eske dagoala badakite, ta nola karlista edo erege-zaleak, esaten duten, beren aurka dagozela ere bai, "Concierto economico" zainduko dutela, ta oretarako bear dan tokiraño iritxiko dirala...

Ora orain ordua etor, bizi zerate...?

Eregea ta fueroak bakarrik nai omen dituzte... Onela esan dit karlista batek...

Fueroak, oraingo karlisten amaika mingañetan itza, baña bakarrik mingañetan... biotzean gutxi bear bada iñork ere ez...

Fueroak ekartzeko edo zerbait egiteko asmoak izan balira, oraingoz zerbait igariko genduan, nik uste det tabernatik kanpora ez dutela aitatu ere egiten, baseritar asko atxipetu edo engañatzeko ez izanik...

Araudia bear danean, gure aurka egon dira, "concierto economico" bear dutela esanaz, au zaintzeko ordua iritxi danean ere aurka..., eregea nai dutela ta "fue-roak"... Esan bearik ere ez, fueroak ekartzen joango **orduan ere gure aurka...**

iUskurtza edo erlijioa zaintzea jungo bagiña ere...! Begira gero e... ;Gure aurka jungo lirake...

Baña dana dala ere, tamalagari xamara izan aren gure aurka ta batez ere Euzkal – erriaren ain amoru biziz jardutea..ondo da jakitea.

Gaurtik aurera, lotsa piskabat ezagutzen badute, ez daukate eskubiderik Euzkal – Eriaren alde jokatzeko dutela esateko. Garbi ta beren barenak agintzen dioten bezela itz egitea nai badute esan dezatela: "España-zaleak gera"

Bazkide asko galduko dezute, baña egiz jokatu dezute ta lotsik iñun ez dezute izango.

ALDIZKARIAREN IZENA: EUZKADI – 6.967.ZENB.

ARGITARATUA DAGOEN IRIAREN IZENA: BILBAO

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1935 JORRAILLA 24

IDAZLANAREN IZENBURUA: ARETXABALETA

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 7

ARETXABALETA

Egun asko ez dira oraindik niola, ez nuala idatziko geyago "Zintzo'k zerabilkan gaiari erantzunaz. Baña gaur, besterik dira nere asmoak nere lan edo egin bearak, uste baño lenago bukatu ditudalako, ta asti pixkabat nereganatu dedalako, zertxobait idaztia erabiki det. Aspaldiko "Kostantzi" bat nereganatu det, ta irakurtzean zer dion, gure "Zintzo" k neri galdetuaz:

"Eta zer diozu, zuen aldunak, Montzon, Agire eta abar. Prieto, Ezkera katalandar eta abar, ibili dituzten izketaldiagaz? "Zintzo" k galdera onekin, azaldu nai du, gu ezkerakin bat egiñak ibili gerala, eta ez gerala catolikoak, ta badakit, gogor zabaltzen ari dala berak dakian tokian. Eta orixe erantzun nai nioke gaur eta azalduko diot, zein eru aundiakin dabilen "Zintzo" gixagaixoa.

Zer ikusi ete dauka Zamaraga'ko batzarak, an izan giñala ta, gu ezker bezela izentatzeko. Agian, an, erlijioko gairen bat, erabili ote zan...? Ez noski,

Kontu egin zazu, Aretxabaleta'ko, eria "peligro" aundi baten arkitzen dala. Eskoriatza'ko edo Arasate'ko, eriak, guda baten bitartez, puskatu nai gaituztela. Begiratu al ziñuke, gure eri onen alde irtengo lutekenak "Ezkerak" edo "Eskubiak" diran? Noski eskubikoai begi obegoaz begiratu zenioko, **ezkubiak lagundu**ko ez baluteke? Ondo dakizu ba zuk orixe bera gertatu dala, Zumaraga eta gañe-

tiko batzaretan, gu beti gertu eri baten eskubideak zaintzeko, aldegunean eskubia-kin, baño... laguntzen ez badute... ezkerakin ere bai...

Ez dauka ba zer ikusirik, batzar auek, naiz ta ezkerakin izan, kristautasuna gutxi-zteke. Bestela neronek ere esango nuke, karlistak ez dirala katolikoak, ezkerakin bat egiten dutela. Ora arazoi bat, neroni gertatua. Ari giñan egun batean, iru lagun, bat sozialista, karlista bestea eta ni dakizun bezela abertzalea.

Umore onean ari giñan, baña bat batean, sartu giñan politikara, eta zer uste dezu? Biak nere aurka asi ziran. Nik orduan esan alneikan biak bat egiñak egon zirala, ta karlista ura ez zala katolikoa...? Ez nun esan, eta ez det esango ere. Badakit, ordian erli-jioko gai bat atera bagendun, nere alde aterako zala karlista orek eta. Era berean zuk ere, lotsa izan bear zenduke, guregatik esan eta esaten zabilzanak esateko, batez ere "zerana zeralako" jakiñen gañean abertzaleen izen ona, ostipekotzen zabiltz, eta "dotri-ha" edo kristau ikasbideak dionez. "Iñori izen ona kendu eskero, beartua dago beriz izen on ori biurtzera". Kristau zintzoa zeranez, uste oso nago, beteko dezula egin bear garantzizko ori. Beste egun batean, beste gai bat aztertuko degu, J.L..

AITZA

ALDIZKARIAREN IZENA: EUZKADI – 7.000.ZENB.

ARGITARATUA DAGOEN IRIAREN IZENA: BILBAO

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1935 BAGILLA 2

IDAZLANAREN IZENBURUA: ARETXABAETA

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 8

ARETXABAETA

BEDONA'RA.– Azkenik ere eldu da, guk ainbeste itxaropen euki degun egun zora-garia, VI'garen olerti eguna, "Loramendi", euskaltzale zintzo eta olerkari ospetsua, gure eritar maite onen, izenean egingo dan omenaldi bikaiña. Ez det uste eta esan bearik ez dago, iñor geldituko danik, Aretxabaletarik beintzat, gaur Bedofia'ra jun gabe. Beste eri askotan izan dira olerti egunak, eta guzi – guzitan gurenda (triumfo) ikaragariak izan dituzte. Ez genduke nai ba, emen beste tokitan baño berago geldi-tzea, eta zuek ere ez det uste. Aren bada guziok bat egiñik, jun gaitezen Bedoña'ra.

¡Gaur zure aurpegia Bedoña'n ikusi nai nuke!

ABERI – EGUNA.– Asko dira beren izenak eman dutenak Iruña'rako, bañan, badakit oraindik gelditzen dirala jun nai dutenak eta bere izena eman ez dutenak, eman iezazute bada bereala, berezibilak (autos) antolatzeko bear bearezkoa da zenbat dijoazen jaketea eta. Badakizu bada, zure izena eman.

AITZA

ALDIZKARIAREN IZENA: EUZKADI – 7.127.ZENB.

ARGITARATUA DAGOEN IRIAREN IZENA: BILBAO

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1 935 URRILLA 29

IDAZLANAREN IZENBURUA: ARETXABALETA

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 9

ARETXABALETA

EZKONTZA.– Igaro dan astean'Agire'tar Boni, gure lagun zintzoa, Gastañaga'tar Erupiñakin, Ametzako neskatil ederakin ezkondu da.

Baita egun auetan ezkonduko da Agiregabiria'tar iñaki Eibar'ko Untzeta'ren alabarekin, Urte askotan, zoriontzu izatea opa diet danai.

GUDARITZA.– Españi'ko agintariak beartuta, datoren astean jungo dira, gudaritza emengo gazte talde au:

Sasiain'dar Zezili.

Urutia'tar Petz.

Del Teso'tar Kelmen.

Zubizareta'tar Keperin.

Zubizareta'tar Lander

Unzueta'tar J. Mirena.

Perla'tar Josu.

Guziak gudaritza on bat igaro dezatela ta len – bailen onera itxultzea opa diegu.

"I"-REN OARA.– Batzoki'ko batzordea ez dezu oso adizbide utzi "I". Idazteko tramankulu edo tresnako idazkortzak loituta daudela esan omen diozu, eta karlistak ere jakiñean jari omen dira, ta gañera karlista oyetako bat Batzordeko bateri izugariak esan omen dio, zikin batzuek dirala ta abar. Nik esan diot, bear bada, karlista orek belariko zuloa zikiñago izango duala eta jaramunik ez egiteko eta oregatik ez azaratzeko. Tramankulu ori zara omen daukate, eta berirrik erosteko txindirik ez. Zuek beri bat zuzenduko bazenduteke, estimatuko omen luteke. Garbitzeko asmotan agiñak garbitzeko "zepillu" bat artuta eta jun naiz batzokira, baña, alperik ezin lezake garbitu bear dan bezela. Oso zara dala ezin ukatu! ia beriren bat bialtzen dezuten. Esan dezuenez, idatzia ilundu ta eldu zitzaizute, **ala ta guztiz ere**, zuek dana ulertu... Zuek bai mutilak!

AITZA

ARGIA

ALDIZKARIAREN IZENA: ARGIA – 723. ZENB.

ARGITARATUA DAGOEN IRIAREN IZENA: DONOSTIA

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1935'KO OTSAILLAK 17

IDAZLANAREN IZENBURUA: ARETXABALETA

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 10

ARETXABALETA

«KONZTANZIA»KO«ZINTZO»RI

LENBIZI: Otzi aolku bat; euskeraz idatzi egizu gixaxo orrek, ERDERAZ EZTAKIZU TA. Bestela baserritik txaidera nekame etorrita dauden «Hijas de Maria» guziak, parrez lertu bearrean dituzu. Gaur goizean ola zion neskame oitako batek. «6Ya te has leiro eso? ¡iSemejante castellano!! ¡iEscribir también te hago yo mejor que ése!!

BIGARREN: Egia egi esatekotan osorik esan bear da. Egia osoa ezpada, ba, ez da egia ta. Itz auek norenak diran nik baño obeto dakizu zeuk, motiboak badituzu bientzat.

Ez datik zure idazki orretan gizon baten aunditasuna agertzeko azaldu zeran edo... beste batzuek txiki usteko asmotan... Ez dago oso aisa igartzen zer nai dezun esan... baño... nere ustez, gutxi gora bera, zuk esan nai dezuna da, aber-tzaleak gaiztakeri asko egin dutela udal etxean, arduragabeko batzuek dirala, eze-rren asmo onik ez dutela eta abar... ta karlistak dirala bear dan bezelako gizonak, «espíritu fuerte» (arpegi gogor ez) «defensores del obrero», ta nik dakit geyago. Baño ori esateko ez zendukean «Konstantziko» orri bat bete bearrik. Bi itz naikoak ziran. Ikusten danez <<Doña Konstantzik» ere ez dauka izpar asko-asko, bere orrialdetarako. Ta zuk beriz, arotza baziña, egur talde ederra alperrik galduko zen-duke!!

«Vivir para «se presentan ante nuestros ojos que nos asombran» ta gero dio «no importa que para ello nos tengamos que remontar un poco a tiempos lejanos».

Ori irakurri ta arrazoi puskabat ematen dizut, «Zintzo». Ederki diozu: <<vivir para ver». Zeñek esango ote zuan oraiñ 20-30 urte Aretxabaleta'n abertzaleak nagusi izan bar zutenik? Noski poztu egiten zera antxiñako denporak oroituta, ez da ala? Badakizu ba: gaur, abertzaleak; zuek, lenago...

Tamalgarría da benetan karlistak bazterra botatzea, zergatik karlistak besterik ez dute egin, langilleagatik <<sacrificio» asko, ta erriaren ondasunak goi-goyan jar-tzen sayatu... ta orain ostikada?

Erri guzia abertzale aitortzen da, baita ere «allagados ta amor ta beste guztiak ere. Eskergabeak zarate benetan: karlista biurtu zaitezte ta dana azketsiko dizute, ta «absoluzioa» berriz, «Zintzo» k onela:

Etorri, etorri bildur gabe
mis queridos pocholos»
Dana barkatzen dizuet
Viva Don Karlos!!

Aizu, «Zintzo», auteskunde edo «botaziotako» zabalkunde edo «propaganda» egiten ez ote zabiltz, baserritarrai ziriak sartzen alegintzen? Katolikoak ez gerala esanda bakarrik ez aldizue sinisten?

«Gixaxoek», errukia bear litzake zuentzako!!! Azkenego auteskundetako lotsaria oroitu ta ere ... !! Ainbeste itxaropen ta. «Copo» egiteko asmoak ere ba-ziran da!!

«Claroqueharemoscopo»
bahaeginzenduten“poco»
asmo guziak ziran ito
ta oraiñ kito.

Zure idazkari baten batek erantzugo dio, gauzak bear dan bezela esan bear dira ta. Zuk badakizu lenagoko udalai ere eskaera ori berdiña egin ziola zuk diozun gizon orrek. Baita ere uste det badakizula zer erantzun zion, ezezkoa noski. Baño ikusten danez, udal ura karlistea zalako ixildu egiten dezu. ⁱⁱ Ederki, «Zintzo»!!

«Zintzo»deitzenzayo
garbi dabillenari,
ez <<komeni» ez zayona
ixiltzen duanari.
Egia egi izateko
osorik esan bear da
bestela ixilik egotea
obe...baño ez da.
Agur, «Zintzo», ta izan oraiñ baño zintzoagoa.

AITZA

ALDIZKARIAREN IZENA: ARGIA – 724. ZENB.

ARGITARATUA DAGOEN IRIAREN IZENA: DONOSTIA

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1935'KO OTSAILLAK 24

IDAZLANAREN IZENBURUA: ARETXABALETA

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 11

ARETXABALETA

Jun da egun batean, peri eguna alegia, sartu nitzan ardantegi batera baxo erdi bat erateko asmoakin, ta ikusi nituan baserritar mordoxka bat. Belarriak soil jarri ta... «disimulo» guziakin bazter batetik berabilkiten izketaldia entzuten egon nitzan luzaroan...

Batek onela zion:-Bai, «nazionalista» orregaitik zer esana badek karlista artean. Niretzako biak dituk onak, baño eusko – gogo geyago ikusten diat abertzale artean, ta gu eziñ ba aztu euskalduna gerala.

Beste batek dio:-Bai egia diok, ta... niretzako «nazionalistak» edo dana dalako oyek, zertxobat geyago egin dutela baserritarragatik esateko ez diat aoan gorapi-llorik. Ikusi diagu ainbeste urtean nagusi izan arren gure udal – etxean karlistak, zer egin duten. Elezio denporetan lagun leyalak izaten dituk oek, esanaz, iibai!! iibai!!, ondo izango zerate, ta... txuleta edo amarretakoren bat eman ere bai botoagatik eta gero... beste nunbaitetik ondo <<kobratu» saritxo ori. Nik ez diat beñere txuletarik artu abertzaleagandik, bai mesede asko, ta ori botoa karlistai eman niola. Aurreruntz nere bota abertzaleak eramango dik. Esaerak zarrak badakik zer esaten duan: obe dala berandu esnatzea... beti lo egotea baño...

- Ba ni ere, dio beste batek, zuen iritxi berdiñekoa nazute, ez da alderdirik sortu oraindik Euskal-erriaren alde ainbeste lan egin duanik, ta, ilotsa gutxikin!, abertzaleak au ta bestea jarduna dariotela ibiltzen diranak azaltzen. Intentzio txarreko gizona izan bear du; dana dala igeltzero baten aunditasuna azaltzeko, sendietako izenak aotan artzen ausartzen dana ... !!
- Bai egia diok, nik ere karlistai eman nioan azkeneko eleziotan nere botoa, baño uste diat... azkenegoa zala. Neregaz dana bukatu ditek. Zergatik, zer arraio: „Nun dek ba guk ateratako Don Ramiro? Berriketa bazebilkan ba, diputado irten artean. Arrezkero etxekiat arren berririk. Nik uste nikan diputadua izaten dala guretzako, ta onek berriz gu nai gai-turik beretzako.

Len zebillen oso estu
aldun egin zanian poztu
arrezkero oso zaigu aztu
orixe da Ramiro de Maeztu.

Orrela itzegiten ari zirala, ondotik pasa nitzan, ta batek baso baten ardoa eske-
ñi ta itz eman nion esanaz:

„Donostian ere komeri ederra gertatu da ba!!

- Zer, zer?, galdetu ziraten guziok.
- – Zapatero bat oñetakoak egiten asi omenda!! Eta arrituta galdetu ziran baserritar betek: -Baño erotu egin alaiz? Zer egingo dik ba zapatero batek, zapatak baño?

Ta orduan erantzun nion: – Baia, egia diozu, baño, «Zintzo»k, mirari bat bezela azaltzen du Konstantzian, emengo igeltzero «famau» batek etxeak egiten dituala!!
iJa, ja!

«Zintzo»kin aztu nintza ia,ia. Ez da arritzekoa izango, baño, etxerik egin bearrik ez det eta...; baña egunen batean «pentsatzen» badet, «arkiteto» orrexengana juteko asmoa det. Etxeak merke ta asko egiten dituala esan baidigu «Zintzok» ... !!

«Zintzok» esaten du
con todo malizi
etxeak egiten
erak dirala nagusi.
«Zintzok» arrazoiadu
conforme; eso si,
baña kontuak atera
an nai dunak bizi
Egun batean egin zuan
viento o Iluvia o asi,
«jente» guzia asi zan
andik, laisterka igesi...

AITZA

ALDIZKARIAREN IZENA: ARGIA – 725. ZENB.

ARGITARATUA DAGOEN IRIAREN IZENA: DONOSTIA

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1935'KO EPAILLAK 3

IDAZLANAREN IZENBURUA: ARETXABAETA

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 12

ARETXABAETA

- Kaixo «Aitza».
- Zer dabillek, Martiñ?
- Emen nebillek denpora pasa.
- Denpora pasa? Denpora pasa egon gabe lan aberkoi asko arkitu lazakek pa, arranook ezpaituk!
- Bai bazekiat zer esan nai dekan. Ik izparringietako zertxobait idaztia esan naiko dek, ez dek ala? Baño nik orretarako balio ez diat.
- Aizak, euk nai ez dekalako, nai duanak aisa idatzi lezakek, naiz ta egia izan dan – danak orretarako balio ez dutela.
- (reak beintzat, irakurri zituagu ta... bapo zio.
- Bapo edo zapo, arpegiak illuntzen asi dituk. Orreindako ez dek bapo egon...
- Izan ere! Ik pe, aundiak ipintzen dizkiotek eta...! Ori etzeok ondo egiña, gaizki baño.
- Bai Martiñ, ori gaizki egiña egongo dek, baño jibosoa ere ezuan ondo egiña, baño... or ibiltzen zan bere konkora da guzi!
- Ja, ja, ja! iAsi alaiz, asi!
- Lau urte ontan, asko-asko ez.
- Umereko ago!
- Ala esaten dik «Zintzo'k», umereko nagola, bertso batzuek bota diotelako tako umorea bear dala? Orretarako »ar berari.Orrek zer uste dik, bertsoetia» bear dik, eta «Zintzo'k» ez dik iñoiz ezagutu.
- «Zintzo» aitatu dekan ezkerero, zerbait galdetu bear diat. Nola dek baño, orain igeltzero orrek, bi metro ta erdi naikoa dirala etxe batetik bestera eskatzea, len beorrek zazpi eskatuta?...
- Baño oraindik orrela ago? Entzun: Bi mozkortzen diranean eta balantzazka asten diranean, bata bestea urreratu ezkerero edo bat egiten baditek, ezdek aiñ errez lurrera erortzen. Ba Martiñ, beste ainbeste gertzatzen dek etxe orrekin ere: Zenbait eta bide gutxigo etxe batetik... bestera, orduan da zallago lurrera erortzen, ta orretarako obe likek « metro» bat bakarra eskatu. (Com p rend ido?).
- Ederki zio, eta beradutu gabe, bania. Agur, Aitza, gero arte.
- Agur Martiñ.

Banoa etxera, ta bide ertz batetik onela dio batek (ez nuan ezagutu).

«Kostantzik» emango dik
ez- paiz mudatzen;
gaur ere ez dizkik
makalak botatzen,
«Kostantzik» ala?
(esan ere egin nion)
«Zintzo» izango zala ta
ixillik utzi nion.
Bereala irakurtzen
egin nitzan asi,
parrez lertu nitzan
irakurtzean kasi,
Euskeraz baomendaki
erderaz ere du ikasi,
«Soltsua»ta «gizurti»
nun dituzue ikusi?
Umekerik idazten
omen ditut nik;
uste al dezu zurekiñ
egin leikela gauz onik?
Egin dit euskera,
erderaz eta latiñ,
itxura danez danetik
puxka bat du jakiñ,
Guk ere zerbait
«prantsez» badakigu,
«Oh moxiu le«karka»
coman liporte-bu?
Gauzak garbi esaten
or agertu da «Errena»
gogoan euki «Zintzo»
estutuko dizu barrena.

Agur irakurleak, eta datorren astean ez utzi ARGIA artu gabe, ordurako zerbait geyago «moldatu»ko det...

AITZA

ALDIZKARIAREN IZENA: ARGIA – 726. ZENB.

ARGITARATUA DAGOEN IRIAREN IZENA: DONOSTIA

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1935'KO EPAILLAK 10

IDAZLANAREN IZENBURUA: ARETXABALETA

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 13

ARETXABALETA

Oraingoan ere ba, «Zintzo», ardandegian zan, beste baxo erdi bat erateko asmotan sartua. Ez laritu «Zintzo», ba, guk «taberna» zuloan ibiltzen badakigu, eta noizean noiz zurrut bat edo beste egiten ere bai. Naiz ta zure idazkian ni erdimoskor bota, uste det zuk ere edango dezula zertxobait; ez det esan nai moskortzeko tankera, ez “barau austeko aña baizik... Dana dala, sartu nitzan ba ardandegian eta nere lagun «Martir5» nere zai egon bear zuan alegia, urreratu nitzanian «Kostantzia» eskuratu ziran, oraingoan bertso ta guzi zetorrek, esanaz zer zion lenbizi:

«Aitza»edo«Altza»
edo gurdi ardatza;
eztarria dek latza
eta barrenean miñ garratza

Jarraitu nuan irakurtzen eta... iiene Jainko maitea!! Orri bat esan leikela «zozuak beleari ipur beltza» esan ziola. Edo en «castillano»...

«La sarten le dijo al cazo
quitate de hay negrazo...»

Nere «Zintzo» maite, garbi esatea erabaki det. Zuri «adarra» jotzen asi nitzan, eta orrela jarraitzeko asmoa det. Orretxegatik, ez noa erantzuten zure idazkiari, alegia oso ganerebakoa. Guztiz arrituta nago «Errenak» eta «Egibillak» nola artakotzat artzen dituzten zure idazki nano auek. Poztu zaitez, «Zintzo», baño nere ustez, «umeren» batzuk dira orreik, eta ez dezu gauz onik egingo. Eta banoa arira, au da, zuri adarra jotzera; jakiñean jarri zaitut baño ez dio ajolik, alaz guztiz ere ikusiko dezu zeñen ederki «illea» artuko dizudan. iiAu dek arto bero usaia!!; baño... ni orrelakoxea naiz eta kito.

Buru auste aundia ipiñi didazu, lenbizi zure bertsoagaz, eta nik ezin erantzun izango nun, baldin nere lagun «Martín»ek lagundu ez baziran, orrela botatzeko esan baidit.

«Zintzo»eta«Kaiku»
da gizon irtena;
iatxur batentzako
egokia kirtena!

Ikusten detanez, «politika» gaietan geyago idatzi nai dezu, asi ziñan lanean baño. Esan nun nik bear zan garayan, zuri gutxi ardura zizula igeltzero ta bere etxe guziagatik. Aitzakitatzat bai artu, gai ori. Aizazu, «Zintzo» ez alda egia, ‘<zerana zera-

lako», baño, bestela pozik «diskutituko» zendukela ardandegi baten «baxo erdia edanaz»?... Bai; alperrik esango dezu gezurra dala, ez dizut sinistuko eta... Baña zerana zeralako!!...

Gaur ere «un poco de razon» arkitzen dizut; zuk esaten dezu eta ondo esan ere: «no más escuelas sin Cristo» esaten genduela guk abertzaleok. Eta galdetzen dezu: «¿Zer uste dute abertzaleak gai ori zaintzeko?» Nik esaten dizut: EZER ERE EZ!! Emen bertan, ARETXABALETAN, iñora jun gabe, karlistak iru edo lau ikastola «katoliko» iriki dituzte, eta guk abertzaleok, bat ere ez, baño... «o sea viceversa»... Eta fueroak ez ditugula oraindik ezagutzen diozu. Or ere arrazoi aundia zurekin dezu. iAinbeste aldiz garbi asko azaldu dezute, bai Madrid'ko ganbaraz, eta bai Euzkadi guzian, Fueroak zer diran, eta alaz guztiz ere azdakigu guk zer diran.

Gure asteroko ARGIA ere ez omen da argia, illuna baizik. Obe luke «Zintzo»-k beste aldizkingi bat sortuko baluka Gipuzkoa'n, Jaungoikoa'ren eta Euskal-erriaren alde ainbeste lan egingo lukena eta egin duana. Gezurra dirudi «Zintzo» zuk ori ARGIA – gatik esatea, «zeranazeralako»...«Politika»geyegidarabiltzu «Zintzo»...

«Menos pasion«Patxikote»

que te veo el cogote»

Eta zertan gelditu zerate, etxe ta igeltzero kontuakiñ? Erria zai dago ba «juzgatzeko» edo epaitzeko. la urrengoan zerbait esaten didazun!! Eskerrikasko.

Eta urrengoan idatzi bear dezunean, arren eta arren eskatzen dizut, garbiago idatzi dezazula, orri bat betetzen dezu, eta naspilla bat egin ere bai, iñola ulertu ezin ditekena.

«Orrek zer esan nai duan
nork ematen dio antzik?
Izan ere! Idazteko
bai aldu gaitzik?
Itxura dagonez onek
kendu nai dit itza
ba... alperrik zabiltz
ez da ixilduko «Aitza»
Aspaldian esan dezu
esan dezu astakeri pranku;
«botaundiagoak»
badago naiko leku.
Alper itzez bete dituzu
makiñabat «Kostantzi» orri
baña ala ta guztiz ere
gelditu bear dezu oso gorri.

«Errena»-k bialdi dizkit zuk emandako eskumiñak; milla esker «Zintzo», baño..., obe zenduke parean alkar pasatzen geranean, «Egun on» esaten dizudanean jaramon geyago egingo bazenduke...«zerana zeralako» ... !!

Datorren aste arte, irakurleak, ta ez aztu ARGIA artzea.

AITZA

ALDIZKARIAREN IZENA: ARGIA – 728. ZENB.

ARGITARATUA DAGOEN IRIAREN IZENA: DONOSTIA

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1935'KO EPAILLAK 24

IDAZLANAREN IZENBURUA: ARETXABALETA

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 14

ARETXABALETA

Adarra jotze utsakiñ ere, ezer ez dagola dakitelako «serio» zerbait esan bearren arkitzen naiz, ez «Zintzo»k au edo bestea esan eta miñ eman dialako ez, baizik bear dan garaian bear dan bezela itz egiten badakiala adierazteko nun nai, «Zintzo»k «Constancian» dionez, ni kristautasuna alde batera utzi eta gizonak aotan artzen nabil. Gizon bat aotan ibili ta kristautasuna galdu badet, esan bearrik ez dago, «Zintzo»k aspaldian galdu a duala, alegia asierako idazkitik gaurkoraño besterik egia ez dualako noski. «Allegados, amor filial» eta gañeruntzakoak, AOTAN artuta ibilli dala, denok dakigu. Politika gayetan sendiko izenak aotan artzea lotsarik ez arkitzea dala ere bai. Orregatik diot nik oraiñ «Zintzo»ri, norbaitegatik zerbait esan bear danean kontu aundia artu bear dala norbera, gai ortan errurik ez eukitzea. Bestela, gertatuko zaio, alako maixu edo irakasle bati gertatu zitzaiona Euskadi'ko erri koskor batean: « Ba omentzan mutil koskor bar bere maixuari «tu edo i» itz egiten ziona. Baña egun batean, irakaslea oso asarrarurik azaldu zan bere aitaren-gana esanaz zer gertatzen zan bere mutikoakin. Baita estu artu ere aita onek. Gogoan artua zan oraingoan gure mutikoa. Urrengo egunean ikusi orduko bere ikaslea, asi omentzan deadarka: itauna! Beori!! Arrituta gure irakaslea, galdetzen dio: Nork esan dik ori neri esateko? Aitak esan diak iri esateko, erantzun zion mutikoak».

Orra garbi asko azaldu «Zintzo», maixu orrek bear dan bezela itz egin bazion, agian baliteke mutikoak ere eraberan erantzutea, orretarako adibide edo «ejemplo» ona bezelakorik ez, eta nik zuregandik ez det artu egundo adibide onik.

Beste gai bat: diozu: ni zure aldean txikia naizela. Eziñ dezaket ukatu, zu, nire aldean, gizon argi eta aundia zerela danok dakigu. Baña bada esaera bat eta zuk ere ezagutuko dezu.

«Bere burua aundi egiten duana kaiku bat da» ala ta guztiz ere, ez estutu, len esan dedan gisan, danok dakigu zu, nere aldean gizon aundia zerela, motiboak ere badituzula ere bai.

Ni ezer ez bat izanagatik zure ondoan, idazki ontan ikasbide ederrak arkitutko dituzu.

Eta zurekiñ guztiz bukatzea erabaki det, zergatik nere ustez, etzera zu gizon autua gauz abetan ibiltzeko. Beste norbait azalduko balitz, baliteke arekiñ zarbait egitea. Amaitu baño len, esan bear dizut, ez naizela ixiltzen bildurragatik, baizik, len

esan dizudanagatik, eta nere iritxiz uste detalako ez dirala, egun auek oso egokiak izkanbillan ibiltzeko, eta gañera beste eginkizun garrantzizkoagoa agertu zaidalako. Eta zuk ere obe zenduke gai auek alde batera utzi ta beste gauza garrantzizko batzuek azaltzen geyago sayatuko baziñake, uste det, badituzula ta.

Agur bada «Zintzo», persecula, seculorum. AMEN.

AITZA

ALDIZKARIAREN IZENA: ARGIA – 732. ZENB.

ARGITARATUA DAGOEN IRIAREN IZENA: DONOSTIA

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1935'KO JORRAILLAK 21

IDAZLANAREN IZENBURUA: ARETXABALETA

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 15

ARETXABALETA

Egun asko ez dira oraindik niola, ez nuala idatziko geyago «Zintzo»k zerabilkian gaiari erantzunak. Baña gaur besterik dira nere asmoak nere lan edo egin bearrak uste baño lenago bukatu ditudalako, ta asti pixka bat nereganatu dedalako: zertxobait idatzia erabaki det ba. Aspaldiko «Kostantzi»bat nereganatu det, ta irakurtzean, ara zer dion gure «Zintzo»,k neri galdetuaz:

«Eta zer diozu zuen aldunak Montzon, Agirre, eta abar, Prieto, Ezkerra katalandar eta abar ibilli dituzten izketaldiagaz? «Zintzo»k galdera onekiñ azaldu nai du gu ezkerrakiñ bat egiñak ibilli gerala, eta ez gerala katolikoak, eta badakit gogor zabalzen ari dala berak dakiañ tokian. Eta orixe erantzun nai nioke gaur, eta azalduko diot zeñ erru audiakin debillen.

Zer ikusi ote dauka Zumarraga'ko batzarrak, an izan giñala ta, gu ezker bezela izentatzeko? Agian, an, erlijioko gairen bat erabili ote zan?... Ez noski!!

Kontu egin zazu, Aretxabaletako erria «peligro» aundi baten arkitzen dala, Eskoziatzako edo Arrasateko erriak, guda baten bitartez, puskatu nai gaituztela. Begiratu al ziñuke gure erri onen aldez irtengo lutekenak EZKERRAK edo ESKUBIAK diran? Noski eskubiboai begi obeagoaz begiratuko zenioke, baño...eskubiak lagunduko ez baluteke?

Ondo dakizu ba zuk orixe bera gertatu dala Zumarraga eta geñetiko batzarretan.

Ez daukate ba zer ikusirik batzar auek, naiz da ezkerrakin izan, kristautasuna gutxitzeko. Bestela neronek ere esango nuke karlistak ez dirala katolikoak, ezkerrakin bat egiten dutela. Orra arrazoi bat neroni gertatua:

Ari giñan egun batean, iru lagun, bat sozialistea, karlista bestea eta ni dakizun bezela abertzalea. Umore onean ari giñana, baña bat batean sartu giñan politikara, eta zer uste dezu? Biak nere aurka asi ziran. Nik orduan, esan alneikan biak bat egiñak egon zirala, ta karlista ura ez zala katolikoa?... Ez nuan esan, eta ez det esango ere, badakit orduan erlijioiko gai bat atera bagendun, nere alde irtengo zuala karlista orrek eta eraberean zuk ere, lotsa izan bear zenuke guregatik esan eta esaten zabilzanak esateko.

Jakiñen gañean abertzaleen izen ona ostikotzen zabiltz, eta «doctriña» edo kristau – ikasbideak dionez, IÑORI IZEN ONA KENDU EZKERO, BEARTUA DAGO BERRIZ IZEN ON ORI BIURTZEA. Kristua zintzoa zeranez, uste osoan nago beteko dezula egin bear garrantzizko ori.

Beste egun batean, beste gai bat aztertuko degu. J.L.

AITZA

ALDIZKARIAREN IZENA: ARGIA – 748 ZENB.

ARGITARATUA DAGOEN IRIAREN IZENA: DONOSTIA

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1935'KO DAGONILLAK 11

IDAZLANAREN IZENBURUA: ARETXABALETA

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 16

ARETXABALETA

IÑAKI DONEA

Gure zaindari dan Iñaki donea goratzeko abertzaleak goizeko zazpiterdian meza ixil bat antolatu zutela, eta izugarritzko notiñ pilla entzutera jun zan. Iñaki ereserkia abestuaz amaitu zan

Arratsaldean, berriz batzuek Eskoraitza'ra eta geiena Arrasatera, emengo gorulariak bertan dantzatzen ziralako eta gañera jai aldi bikaiñ batzuek ziralako: Laisterketak, pelota partiduak, eta bertsolariak: ez edozeiñ... «Txapel» eta «Basarri» baño ez. Aspaldi nuan «Basarri»ri entzuteko zaletasuna, eta arrituta gelditu nitzan. Ez nitzan gogoratu eta eziñ ditzaket emen agertu bota zituan bertsoak, bakar bakarrik orra gogoratzen naizen bat:

Arrasatera etorria naiz
andre gai baten billa;
emen nun dezuten aurrean

ogeita bi urteko mutilla:
oitura txarrik ez det eta
gutziz naiz umilla,
iñor nitzaz gustatzen bada
onera azaldu dedilla.

Etzan iñor agertu, nik dakiala, baño... badakit bat eta geyago poz pozik agertu-
ko zirala. andre gai bat billatzeko, ez dek bertso bat botatzea bezelakorik!

I bezelako bertsolari
gutxi ikusi diat aspaldin
«Basarri» bezelakoak asko
bear ginduzkek Euzkadi'n

ERRIKO JAIK

Urreratzen dijoazkigu erriko jaiak; aurten ere beste urtetan bezela, txirrindulari laisterketa ospetsua degu, 160 anei – neurki edo «kilometro» eta itxaropenak diranez, diran laisterkalari yayoena emen izango dira... Montero anaiak, Trueba'k, Eskerra, Eskuriet eta abar. Ola izan dadilla.

ARGIA

Dotore, oso egoki ta apainki oraingo ontan, gure ARGIA, ainbeste maitasun dogun asteroko aldizkingia. Ez dauka «Estampa», «Ahora» ta gañeruntzeko beste oien «enbirik» iez orixe! Zorionak, eta ia nork duan saria irabazteko «suertia»...

KOSTANTZIAN

Berriz ere agertu da gure («Zintzo») ziriak sartu naian, eta izkanbilla billa, eta uste du erantzuten ez diogulako bildurrez gaudela; ori uste badu uste dezala, baño guziok dakizute ARGIA onek ez duala iñorkin ezda – baidik nai eta nik ere gogo gutxi detala iñorekin asarre ibiltzeko, kristautasun eta katalikotasunak debekatua daukalako.1

AITZA

ALDIZKARIAREN IZENA: ARGIA — 755. ZENB.

ARGITARATUA DAGOEN IRIAREN IZENA: DONOSTIA

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1935'KO IRAILLAK 29

IDAZLANAREN IZENBURUA: ARETXABALETA

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 17

ARETXABALETA

JAYOTZA

Urtzelai'tar KOsme'ren emazteak neskatil polit bat izan du, Miren Josune euskal izen polita ezarririk. Zorionak bere gurasoari.

IZPER BELTZA

iAltube'tar Peli il da! Naigabez beteta utzi gaitu guztiok, Kristobal abeslariaren aitaren eriotzak, baña nai gabe ori geitua izan Elorrion bere seme Jon ere iI dala jakin degunean. Laguntzen diet bere sendikoei beren atsegabea eta zuk irakurle gogoan eduki otoitzean.

EZKONTZA

Arenaza'tar Eladio, Aguriano'tar Justina emakume ederrarekin ezkontzen da; eta Madina jauna, Arrasateko'a, emengo Orueta'tar Meltxora, emakume lirañarekin. Zorionak eta urte askotarako guziok.

LAISTERKETA

Asko izan ziran Lasarten, beribill laisterketa zala ta.
Baita Arantzazun ere, etziran gutxi.
Beste bat arte.

AITZA

ALDIZKARIAREN IZENA: ARGIA – 761. ZENB.

ARGITARATUA DAGOEN IRIAREN IZENA: DONOSTIA

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1935'KO AZILLAK 10

IDAZLANAREN IZENBURUA: ARETXABALETA

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 18

ARETXABALETA

Gogo asko degulako ez da baña, alaitsu bezela, Aretxabaleta eta Euskadi guzia alde batera utzi ta, bagoaz atzerriko usaiak... artzera; zer demontre, ikusi bear degu nola bizi diran España aldean. Orra nora goazen:

Azua'tar Bitorino, Madrid'era; Urrutia'tar Poli, Zubizarreta'tar Leandro ta Zubizarreta'tar Seberiano Logroñora; Unzueta'tar Santi, Urliamendi'tar Juanito, Del Teso'tar Klemente ta Uribetxeberria'tar Kepa, Burgos'era, Sasiain'dar Zezilio ta Peña'tar Josu, Santander'era.

Ikusten dezutenez, beste aberri baten atze – aurre guziak zaintzera goaz. Obe genduke bertan gelditzea, baña juan bearrak...

AITZA

ALDIZKARIAREN IZENA: ARGIA – 774. ZENB.

ARGITARATUA DAGOEN IRIAREN IZENA: DONOSTIA

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1936'KO OTSAILLAK 9

IDAZLANAREN IZENBURUA: ARETXABALETA

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 19

ARETXABALETA

Auteskundeak gañean ditugu aldun berriak aukeratzeko. Beti gertatu oi dan bezela, baserritarrak batez ere, lagun ugari izango dituzte egun auetan. Boto egunetan guziak oroitzen dira baserritarrakin, baño gero... ez da arpegira begiratu ere! Ori gertatu izan da orain arte, baserritarra beti baztertua egon izan da, boto egunak kendu ezker. Orain ordea ez da gertatzen orrelakorik, eskerrak NAZIONALISTAI, baserritarren artean bazkun sendo bat sortua dute: EUSKO NEKAZADIEN

BAZKUNA bere izena. Bazkun onek egin dituan lan ederren berri danok dakigu. Abertzale aldunak batez ere Irujo jaunak eta Irazusta jaunak egin duten lanen berri badakigu. Lan auen berri dakiten baserritar asko eta asko dira, eta esker ona agertu naiez beren botoa orreindako izango dala, askori entzun diot neronek. Abertzaleak edo nazionalistak, katolikoak ez dirala, ezkerakin bat egiñik dabiltzala eta orrelako umekerari ez omen diote jaramonik geyago egingo.

Izango dira, zoritxarrez bear baño geyago gezurrari eta «sufritu eziñak» eragiten dioten zitalkeri eta gezurrari jaramon egingo dioten baserritarrak. Ez asmo txarrez, baserritarrak ez du beñere asmo txarrez jokatu izan, baizik «rengañatuta», itz leunai jaramon eginda. Poliki, poliki, badijok gure baserritarrak esnatzen, eta oraindik elduko da ordua, « monarkiko» errege zale auei jaramonik egingo ez diotena.

Azkeneko auteskundeetan Maeztu atera zuten diputado, karlistak. Boto geyenak baserritarrenak or nunbait izango ziran. Ba egia diot, jakingo baluteke baserritar guziak zer lan egin duan Euskal – erriaren eta baserritarren alde, ez luteke beren botorik geyago artuko karlistak. Izan ere!! Badirudi, gizon auen egin bearra nazionalistagatik gaizki esatea dala, eta jakiña, gero lanerako astirik ez.

BASERRITARRAK ... !! entzun...! Zergatik eman zuen boto lanerako astirik ez dutenai? Eman zaiozute gizon langilleai, eta langilleak, Euzko Alderdi Jeltzalekoak dituzu. Oneik ez dute «kritikazio» eta gaizki esaka ibiltzeko astirik, beren egin bearrakin betetzea «gustatzen» zaiote eta.

Ez jaramonik egin itz leunari, esan zaiozute egintzak bear dituzutela, itzakin aspertuta zaudetela.

ERNE!! Bada baserritar eta gañetiko euskaldunak!, kontu izan nori eskaintzen diozun zure autarkia, bear bada zure kalterako izan liteke – ta. Alderdi bat besterik ez dago Euskal – Erria'ren zorientasuna billatzen dabillena: EUZKO ALDERDI JELTZALEA, Jaungoikoa eta Lege Zarra, bere goiburua duala. Zu ere euskalduna ez al zera ba...? ORDUAN!...

Zure botoa izan dedilla
Eusko Alderdientzat.
Eta ez Euzkadi nundik
llko dabilzanentzat.
Orrela egiña
Etzera damutuko.
Eta biotzez dizut
dala zure onerako.

AITZA

ALDIZKARIAREN IZENA: ARGIA – 797. ZENB.

ARGITARATUA DAGOEN IRIAREN IZENA: DONOSTIA

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1935'KO UZTAILLAK 19

IDAZLANAREN IZENBURUA: ARETXABALETA

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 20

ARETXABALETA

BERRIRO

Batzuen batzuek iII ote nitzan larri zebilzan, baña ikusten dezutenez oraindik bizi naiz.

ARANTZAZU'N

Gazte talde bikaña eldu zan, bertan sortutako jai ederrara. 60 luistar bagiñan eta beste ainbeste or nunbait luistar etziranak. Ez giñan asarre biurtu, Arantzazuko Amaren babesean igaro genduen egunagaz. Gure biotza pozez eta atsedenez estalita gelditu zan. Bertan artutako erabaki sakonak bateko al ditugu.

APAIZ BERRIA

Larrinoko auzora, apaiz berri bat etorri zaigu. Guztiok ezagutzen degu alkaterean anai gazte Jauregi'tar Justo. Auzoko guzien gogoko izan zaitezela, eta orretarako Jaungoikoa'k bear dan bezelako argia eman dezaizula opa dizut. Ongi etorri.

ESKORIATZA – N

Jai polita eskoriatzarrak antolatu zutena beren pelota toki berria zabaltzeko. Beste gauz batzuen artean, pelota partidu bikañak ikusi genitun. Lenbizi Etxaniz anaiak Sustarra eta Uribe'kin neurtu ziran. Anaiak nagituta nunbait ba ezer gutxi egin zuten, eta samur asko irabazi zuten Sustarra eta Uribe'k. Sustarra'k, berak nai zuana egin zuan.

Bigarren partidua askoz ere ikusgarriagoa zan. Gabilondo eta Alberdi emengoak, Arrasate'ko Etxeberria eta Sara'ren aurka. Partidua berdindua izan zan eta atzenik iru tantoz irabazi emengoak. Laurak dotore jokatu zuten; baño batez ere Alberdi eta Etxeberria'k oso egoki. Txalotuak izan ziran.

ESKAERA BAT

Mesedez eskatzen dirate eta beren naia beteaz alkate jaunari dei bat egi-ten diot. Kale barreneko jendea ez dago "konforme" ba iturri gabe arkitzen da eta etxean dutena oso ur epela dala diote. Len iturri bat bazan enparantza ondoan, eta ortik eramaten zuten kale barreneko sendi guziak ur preskoa, baña orain ez dakit zer gertatu dan tantorik ere irtetzen ez du. Kalebarrenda-rran naia da, lenbailen "arreglatu" dedilla ez bear ori eta ori egiñaz naigabe ori aldenduko da.

Orra bete kalebarrendarren naia. Orain itxaron egin bear zertan gelditzen dan iturri ori.

AITZA

EGUNA

ALDIZKARIAREN IZENA: EGUNA – 2. ZENB.

ARGITARATUA DAGOEN IRIAREN IZENA: BILBAO

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1937'KO CJIRTARRILLAK 2

IDAZLANAREN IZENBURUA: AURTENGO GABON EGUNAK

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 21

AURTENGO GABON EGUNAK

Ogei urtean gabon guziak aita–amaren ondoan, orain arte, igaro izan ditut. Egun ori, nere amak, sendi guzia alkarganatu eta alkarren artean, alaitsu eta sendi arteko algara ederrean igaro nai izaten du eta orrelaxe gertatu da orain arte, egun ori, gure etxean benetan alaia izaten da. Igez ordea Santander'go guda etxean igaro bear izan nuan egun zoragari ori, eta nere amak, eun orretan, bere seme-txoa, ogei urtean, lenbiziko aldiz, palta zitziola nabaitu zuan... eta nere etxean etzegon bestelako algara eta iriparra. Baña nere amak, bazekian nun arkitzen nitzan, eta idazki kutun-kutun bat bialdu ziran, eta beste zertxobait ere bai, eta urrengo urtean alkarrekin igaroko genduen pozak, bere biotzean nabaitzen zuan samiña, aldendu zan.

Igaro da urte bete... Berriz gabonak, eta igezko utsune ber-bera nabaitzen du nere amatxok. Baña, alegia... aurten ieziñ bialdu idazkirik eta ez beste ezertxo ere! Iru ilabete dira, bere semeak, alde egin zuala etxetik, eta arrezkero bere beririk ez du... Bizi ote da? DII ote da? Ez daki ezertxo ere!...

Amaikatxo ama on egongo da zalantza auetan gure Euzkadi'n eta batez ere gure Gipuzko maitean, askok bere semea bizi dute, baña beste askok...

Aurtengo gabonak, negargarriak benetan, aurten ez da izan bestelako algara eta alaitasunik. Urrengo urterako utzi bear.

AITZA

ALDIZKARIAREN IZENA: EGUNA – 53. ZENB.

ARGITARATUA DAGOEN IRIAREN IZENA: BILBAO

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1937'KO EPAILLAK 3

IDAZLANAREN IZENBURUA: ARETXABALETA'RAK GUDA OÑEAN

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 22

ARETXABALETA'RAK GUDA OÑEAN

Atsegiñez estalita eta pozik jakin degu, Galdotz'tar Jokin, gureganatu dala. iOngi etoria Jokin, ori dek, bikain jokatzea, eta jakin zak, gogo aundia daukagula, irekin jardun aldi bat egiteko.

Asturias'tik datozen izpar onurak. Eurak ere, areta aundiz irakurtzen ditugu, batez ere euzko – gudariak egiten dituzten aurerakadaren beri izparingiak zerbait esaten digutenean. iGero etori dedila edozein "kakanaru" esaten euskotarok gure-tiak gerala ta, or baten batek esan duan bezela!

Jakiñean zerate baña ez dio ajolik, gure parapetotara etori izan dan askotan beri eman dizuet. Badakizute, 70 k, lur sagar edo "patata", kin etori zala. Baña guri zer esan zigun iñok ez dakizue! Bere "deklarazioak" onela egin ziguten:

"Beltza" da nere izena, 6 urte ditut, eta "politikarik" ez det, eta oregatik nere erian, paxistak sartu ziranean, ez nuan igesirik egin. Zortzi "ordeno y mando" bat etori, udal etxeko aurean batzeko asto guziak.

Arezkero, or ibili naiz gau ta egun, mendirik – mendi ler egin arte lanean, pentsu gutxi, eta egura ugari gure irabazi guzia. Nere anai asko, bide bazteretan utzi dute bizia, batzuk goseak, beste batzuek lertuta. Orain izena ere aldatu dirate, "Negro" deitzen dirate. Beste asko ere zuregana etoriko litzakez baño, esaten digute zuek jan egiten dituzutela, baña ala ta guztiz ere, oraindik nik uste det, pasatuko dirala geyago ere alderdi onetara, ba an astorik ezin bizi leike. Guretatik oraindik ez dute iñor erail edo "afusilatu" ba guk, askok uste ez aren, "influentzi" puxkabat ba'degu paxista artean, ba asko gure anaiak dira.

Artu zazute "patata" edo lur sagar auek, gauza asko ez da baña.

Ora zer esan digun gure "Beltzak", eta dirudinez pozik arkitzen da gure artean, eta emendik aurera "Beltzak" ekariko omen digu bazkari eta gañetiko ekari bear diran gauza guziak.

Beste "nobedaderik" ez da emen, beti ere, "morterazo" batzuek eta kito: Eguraldia degu txar xamara, edura zuri, eta zudara gori, baña ala ta guztiz ere umorea nagusia.

Agur, beste bat arte.

Eibar'ko guda oñetik.

AITZA

ALDIZKARIAREN IZENA: EGUNA – 64. ZENB.

ARGITARATUA DAGOEN IRIAREN IZENA: BILBAO

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1937'KO EPAILLAK 19

IDAZLANAREN IZENBURUA: ARETXABALETA'RAK GUDA ONEAN

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 23

ARETXABALETA'RAK GUDA OÑEAN

Lengo egun batez esan bezela jokatu zan, Eibar'en gudari artean ainbeste ezta-baida sortutako ostiko partidua. Geyen jokatu zutenak irabazi zuten, ala zioten ikusten egondu ziran guziak, eta auek aretxabaletarak ziran. Lenengo "gola" gipuzkoar sailekoak sartu zuten, baña an lenengo ta azkena ere berau zan. Lendabiziko partididu erdian, bat eta uts gelditu ziran, baña bigarenean aretxabaletarak iru erezkaran sartu zituzten. Jokalari onenak, Gipuzko sailean, Leandro ta Gabarain, Aretxabaletaren artean, Lizaralde, Alberdi III eta Elkoro. Zuzendari edo "arbitroai" txistua galdu zitzaiola ta, zer egin aundirik etzan izan. Partidua bukatu zanean galdetu nionenan bere iritxia erderakada auxe bota ziran "completo dominio de Aretxabaleta".

Igazi dan igandean, Zaragoitia lagundiko, ikuriñaren onespina izan zan. San Koman'go parapeto aurean, jaupa ta guzti.

Egun gutxi baru, irugaren saileko, Aretxabaleta gudarien ikuriña onespentu bear degu, eta oretarako paskoazkoa beteaz, uste det, jaun artze ta guzti, ospatuko degula egun ori.

Astelen-an parapetotan egin genduen, lan onurakoa dala deritzait. Goiz oretan, izugarizko aizea zala nabaitu genduen, bazirudien, geu ere artu ta reketangana eraman bear giñuela, eta baten bati gogoratu zitzaion zein ereza izango litzake au izparingi pila bat aizean bitartez bialtzea. Esan eta egin "Euskadi", "Lan Deya", "Euzko-Langile", "Aberi Azkatuba" eta EGUNA, irakurtzeko zoriona izan zuten reke-

teak egun oretan, eta nola guretik paxisten parapetotara, neurkin edo "metro" gutxi dauden, uste det nik, egunero irakuriko dituztela gure izparingiak, emendik aurera, eta nik uste det, askok uste duten baño, onurakorago izango zaigula orela egiten badegu.

AITZA

ALDIZKARIAREN IZENA: EGUNA — 76. ZENB.

ARGITARATUA DAGOEN IRIAREN IZENA: BILBAO

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1937'KO EPAILLAK 19

IDAZLANAREN IZENBURUA: ABERI EGUNA EIBAR'EN

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 24

VI. ABERI EGUNA EIBAR'EN

ZARAGOITIA LAGUN DIAK ANTOLATUTAKO JAIK, ZORAGARITASUN AUNDIAKIN OSPATU ZIRAN

Gipuzkoa'n ere Aberi Eguna ospatu da naiz ta gudaren txinparta ots artean izan, Eibar'en batez ere, guztizko jai aldi bikaiñak ospatu ziraden, naiz, egualdiak guk nai bezela lagundu ez.

PARAPETOAN

Goizean iragarita zegon bezela, parapetoan izandu zan jaupa ixila, jauna artze ta guzti.

Eibar'en jauna nagusi batekin asiera eman zitzaion jai aldiari, Abeslariak ezin obeki. Ondoren jauna artzea. Eleizkizuna bukatu ondoren, gosaria Abei — Etxean.

LAISTERKETA

Amaretan, asiera, eman zitzaion. Sail bakoitzetik, bi laisterkalari irten zuten. Bereala agertu ziraden, Goxenola, Bengotxea eta Uriarte besteen gañetik. Buruka polit baten ondoren ora elduera:

- 1 Goxenola
- 2 Bengotxea

- 3 Uriarte
- 4 U rutia
- 5 Rodanes
- 6 Rekondo

ARI JASOTZAILEAK

"Txato" ospatsuak, nor dan agertu zuan, 12 aldiz jasoaz, iru minutuen baru, 125 kiloko ari bat. Zerbaitegatik izan zan txalotua.

BAZKARIA

Lagundi guzia eta Aberi – Etxeko batzarkide guziak batu ziran bazkaltzean. Alai-tasun mendiakin igaro ere, ba, "Txato" bertsoetan eta "Alberdi" txistus jotzen yayoak dirala erakutsi ziguten.

PELOTA JOKALDIA

Alberdi ta Larañaga'k irabazi zioten Lekuona eta Elustondo'ri 22 eta 13 gelditurik. Baña gogan izan Lekuona'k min artu zuala bestela, ikusgariago izango zan partidu au.

Gero beriz, ezpata – dantzariak, beriz erakutsi zuten, euren yayotasuna ondoren lapiko apurtze, eta beste jolaz alai batzuek.

Ilunabarera arte, euskal dantza eta ondoren apariaz, bukatu zan, aurtengo Aberi Eguna.

Datoren urtean, bakoitzaren etxean izateko aukera izango al degu.

AITZA

EGUNA-ALDIZKARIA (1937)

ZENBAKIA	ERRIA	URTE-EGUNAK	IDAZ-LANAREN IZENBURUA
10	BILBAO	1937 - 1 - 12	ARETXABALETAKO IZPARRAK
12	BILBAO	1937 - 1 - 14	EUSKERA GURE IZKUNTZ BAKARRA.
40	BILBAO	1937 - 2 - 16	ARETXABAUTARRAK BERRIZ
59	BILBAO	1937 - 3 - 10	ARETXABALETARRAK GUDA ONEAN.
74	BILBAO	1937 - 3 - 28	ABERRI - EGUNA
93	BILBAO	1937 - 4 - 20	ARETXABALETARRAK GUDA ONEAN.
—————	BILBAO	1937 - 3 - 6	BILDUTAKO SORTATXOAK



-1.kàitaii4 Mtitiati441.

*S4k/ Säif

1 110ftmodii.



-1lg
 Sa %
 d p Mijrpur
 iftpd r3lo
 ks
 bfr
 32 3 II t
 44rg. W:g1
 rlfä
 "\$ 31411:1°8111 149W
 ;J
 Wiqj'i4''5''''''':0
 § gr* 2ITA
 Gai
 q0-"ak? v1alg
 I21
 7 " ,4 1 4 34 rwi's .11 4
 ti; 19.2''
 14!d i4lillbh.15.,Ig2witj'ii ~HEWijd-Wifi'i
 BV2Çe
 '1 : 1; 1!!!Jypi P!! glw

ALDIZKARIAREN IZENA: EGUNA

ARGITARATUA DAGOEN IRIAREN IZENA: BILBAO

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1937K0 URTARRILA 12.

IDAZLANAREN IZENBURUA: ARETXABALETAKO IZPARRAK.

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 10

ARETXABALETAKO IZPARRAK.

Larogei egun igaro dira, gure eritik alde egin genduen eta beste hainbeste, paxista madarikatuak beren jabe, egin zirala, eta gaur arte, bertako ezertxoren beri jakingabe egondu gera. Gaur ordea zerbait jakin degu, bertan egondako eta oraiñ gurekin arkitzen dan emakume bateri eskerak.

Emakume onek dionez, lenbiziko lana, gure erian sartun ziranean, karlistak etzerau guziak, "detenitzea" izan zan, naiz da gero, aske utzi.

Akizu'tar Bitorino, eta Gartzia-Etxabe'tar Isidor erailduak edo "afusilatuak" izan dira Donostian. Lenbiziko egunetan, au arkitzen omen zan Galdotz'tar jokin, baña giltzaperatu egin zuten abertzalea zala jakiñ zutenean, eta bere beririk ez dute erian. Era berean Azkautz'tar Klaudio eta Santander'tar Baleriano'ren seme bat. Emakumeai, bakean utzi diote, bakar bakarik Peña'tar Inazi, euki zuten iru egunean giltzapean, baña gero, askatua izan zan.

Lasagabaster'tar Mateo'ren saltoki edo "comercioa" guztiz utsik utzi dute, eta era berean bere bizitzako etxea ere, agian, "cuchara" bat ere ez diote utzi. ¡Oneik diote, maitasuna abertzaleai!!

Eretore jaunak ere "sermoi" ederak egin omen ditu, eta "gracias a los nabarricos" bere itzak dira. Gogoan eukitzeko itzak noski!! Guk uste genduen, abertzaleai eskerak, bizi dirala Aretxabaleta'ko apaizak, baña ikusten daunez "gracias a los nabarricos".

Bukatzea noa, lero auek, baña lenengo irakurle guziaz, otoitza bat eskatzen diotet, Isidor de Bitoriano'ren gogoen izenean, ba biak ziran abertzale, eta batez ere Jainko zale, zintzoak. Oregatik il zituzten Jaungoikoa eta Lege Zara, maite maite zituztelako. Zoritxareko egun aietan, etzuan nai, batez ere Bitorino'k, alde egin ba, uste zuan berari, etziotela ezer egingo iGizajoa! Zer uste zenduan, ba zuk bezelako biotz biguna dutela baso pitxi auek?

Zuur nago, eri guziak negar egingo zutela il zituztela jakitean, baita karlistak, ere, ba, asko nai zioten guziak, gizon on eta kristau zintzoak ziralak.

iAgur Bitorino, agur Isidor! Zerura arte, agur.

AITZA

Euskera gure izkuntz bakarra

litituoLo "rilm gertats. 1 aaria. - arn no pa., 2.:n.ataga 7 V
 tas3e affmin atn euski, -?' pop • ala erea'.
 grab isaia er9. Oat nwqraki "3. - 4a'
 birhao obires 41 ~ 15der kYa21 jat011, Yare Acte.«
 "a ag;s da. «casna aaeR essrus.t2 esan Oehrr J..1414,yr&k
 ta,ve k ageois imaL nalarta"letsek earutibr"
 e⁸⁵g⁹aan bat aiftle Walic'),~1 Uka 03oak* ortan nutuk
 abutralf allr ariftg> gabe, eitib44rwn ba' eman a
 et, ea waskenaa ot*Lake4k
 par iutit dalcaMileis hatz.le maera
 istaaam kFatar4 r's daul,• ;lar: or,je. 4.141~1.114~4~.. *444+
 dct, italiere: 10.eziaril Grrtil
 teen daaa da, etlielra 113,7110 gkiribb.
 Imulcera baka eta Ofitu⁸eik .aaors.
 wawes utei fluo best ela
 tsa, ar⁸.:Asko aTaraJ amesors. ata "dis.
 nite ~ ardrrea,
 AntaLls -ra aor gettAtu ams. OCaltr
 uk Le ~ Nutteas, ataaai eta keekki,
 dj\$ babekm orek ralarfs 0114
 Leif
 ||~12 ||Of' ~.111111141 06,4
 ctria:no para, klerarka •
 induk tito kals. r
 rae aun, fierantskay
 ***** • • • ~944• ••••••• •
 Of,tlancr• daben lia'tza

Norbarena saindu:en

Ingeles gerra-ontzi
 pillo bat España
 inguruetan

Arriskuak ezerem guran
 •ii-vr Tori —Lartateta'ko itzes;
 aisa Oar'.

ALDIZKARIAREN IZENA: EGUNA

ARGITARATUA DAGOEN IRIAREN IZENA: BILBAO

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1937K0 URTARRILA 14

IDAZLANAREN IZENBURUA: EUSKERA GURE IZKUNTZ BAKARRA

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 12

EUSKERA GURE IZKUNTZ BAKARRA

Tamala da gurekin gertatzen dana, hainbeste abertzale artean euzkaltzale gutzi izatea. Tamala eta lotsagarria da izan ere. Gai onegaz, ederki baño obeto diño "Txiri" idazle jatorak, eta egia da, euzkera barik, abertzaletasunik ez degula nai. Euzkera utseko egunkari bat sortu degu, baña, ainbat abertzale gelditzen dira irakuri gabe eta ez euzkeraz ez dakitelako, ez da izpar gutxi dekarelako, baizik euzkera utsean argitaratzen dalako. ¡Ezin omen dute irakuri euzkeraz! ¡Gezura! Gertatzen dana da erdera nayago degula, euzkera baño, eta abertzaleak bagera, euzkera utsa izan bear da gure izkuntza, antxiñako asaben antzera, eta "derigorean" bakarik erderaz.

Antxiña ara zer gertatu zan, Oñati'tik Legazpi bitartean, artzai eta erdeldun batekin, onek galdera auxe egin zion.

- Oiga, buen hombre, donde está el camino para Madrid?

- Sekula ez nauk izan baña, nere ustez aparte abil, erantzun zion.
- "¿Camino para Zumaraga y Villarreal?"
- Nik iri zor diala, mila ereal!, sekula ikusi ez da?
- Ikusirik, asare antzera euzkaldun artzaia, esan omen zion, erdeldu-nak,
- Escuche, escuche!!
- Eskuka, eskuka, ortan gaituk, ba, utilak! Eta astinduren bat eman zion.

Gu ere, orelakoak bagaña!

ia a ak bat ha" .r.ak ei san fiik La atta kabt- tri- r R- para p	ILLU% VVVVV Irugaferta. Siatfikatuak euron ;ntenet ker, e"n nai eberan aaltteak Srte t.de afftk, . dira, United A 'nntno:-1 NVor- r-al, G*****44444~444444- Aretzabartarrak herriz Kinpartat'ori 7.1 ettut tgaro, o caent- kp epx aldi bat itan eta btfl, rutta otr- tara eldtt rra, oraingo ontan E:tarlr xanda ilaz eairu. PrtFM Sei iftwl darnatki4e. rta onra bera au tai iun desa iru edo Sau 'kaltonatet" eta kito, Crotrabera •LX Xi esan 4u - "p.4 esta i Par., ba onera et"ti diran errolrome eradar, deak gorabera, sartu dute Geyenakin te- lauct ketaidja, uan oreduen. Elialdu ballo euren enkr, d,ote, atatotak jan IxaNe dt- mcib. Ioritga. eta untrtit er. [atoo a'i rrait e i Zl,3!L:4 hatrudan .-; asko: ere obe dutela Na. .,fat gato aldera <i>tu</i> ti. ATIWIC ^{Pr} tlifrn Cni" chne. balio aereak ottera, mit da tsiak- jan brifa ""- Adro:ti a'deara. lianpoiaf asko omen da 16" sa, Atabate ta b"ite eli bat ruetakeek ere bil Rege gtant hattork ere bafia I Mr- Utenkolako idizlqp desu Ga oado alkiu-rn llmere "serball aineke rojetsu. I . . . AITZA	Brila ukita det v lana PrtFM
---	---	--

Rrida niSetir't

ALDIZKARIAREN IZENA: EGUNA

ARGITARATUA DAGOEN IRIAREN IZENA: BILBAO

IDAZLANA ARGITARATUTAKOEN EGUNA: 1937K0 OTSAILLA 16

IDAZLANAREN IZENBURUA: ARETXABAL'TARRAK BERRIZ

IDAZLEAREN IZENA: AITZA

IDAZLAN ZENBAKIA: 40

ARETXABAL'TARRAK BERRIZ

Kanpanzar'en 72 egun igaro, 10 eguneko opor aldi bat izan eta beriz guda oñe-tara eldu gera, oraingo ontan Eibar'ko txanda izan zaigu.

Sei egun damazkigu, eta gora bera gutxi izan degu iru edo lau "kañonazo" eta kito. Gorabera gutxi esan det, baña ezta egia, ba onera etori diran emakume mor-doak gorabera, sortu dute. Geyenakin izketaldia, izan genduen. Bialdu baño len, esaten omen diote, aratoiak jan bearko dituztela, eta umeak ere jaten asi gerala eri batzuetan, eta askoz ere obe dutela Naparo aldera jutea. Askok ori egiten omen dute, baño geienak onera, naiz eta "Aratoiak" jan beara izan.

Azkoiti aldean, kanpotar asko omen dago, Arasate ta beste eri batzuetakoak ere bai.

Beste gauz batzuek ere ba idakigu, baña urengorako utziko degu.

Gu ondo arkitzen gerala, umore onean, eta "zerbait" egiteko gogotsu.

AITZA
(Eibar'ko guda oñetik)

Arthabaltafak guda dean

Gazdok Ck^j ig^{...} da^{*} ioda d^{....1} —
ea dala oroko +b,ltae egut tar ia ela
ada odea^{*} ar, une cLi
g buk ate atar :.* une Or. go-
